

A3698

Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak / Nekane  
Jausoro Santa Cruz (dir).- Donostia: s.p., 1995, 144 p.

CASARES KULTUR ETXEA

Tokiko Bilduma




GAZTE  
DONOSTIARREN  
HIZKUNTZAREKIKO  
HARREMANAK

Donostian,  
1995ko uztailan



GAZTE  
DONOSTIARREN  
HIZKUNTZAREKIKO  
HARREMANAK

Donostian,  
1995ko uztailean



Ikerketa lan hau, Donosti Hiriko Euskararen Udal Patronatuak eskatuta , Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia 2 Saileko Nekane Jausoro Santa Cruz irakasleak burutu du.

Lan honetan EHUko beste bi irakaslek parte hartu dute taldeak burutzen eta analisisia egiten: Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba eta Andrés Davila Legerén.

# 1. HELBURUAK.

Ikerketa honetan helburu orokor batekin lan egingo dugu: Donostiako gazteek euskararekiko dituzten jarrerak, irudiak, motibazioak, hots, praktika diskurtsiboak, aztertuko ditugu. Helburu zabal hau lortzeko beste hainbat helburu zehatzagoak bereiztuko ditugu:

- Gazte hauen euskararen irudia: zer da euskara beraientzat? Hiru mailatan aztertuz: Banakoan, gizartean eta sare hurbiletan.

- Gazte donostiarren jarrerak euskararekiko; kontzeptu honen barnean bai perzepzioak bai motibazioak sartzen ditugularik:

\* Nola ikusten dute gazte hauek euskararen gizarte izaera, euskara eta gaztelaniaren arteko harremanak.

\* Euskara ez dakitenen artean ikasketa prozesuaren motibazioaren sakontasunak: zertarako balio du euskarak, zergatik ikasi euskara.

\* Euskaraz alfabetatuak daudenen artean beraien eguneroko erabileraren motibazioetan sakondu: euskararen egunerokoaren erabilera aztertu (noiz, norekin, non...). Horrekin batera, hizkuntzaren erabileraren zirkuitoan sakondu hizkuntza bien arteko harremanak aztertzeko, hau da, euskararen zirkuitoaren haustura eta gaztelaniarekiko erlazioak bilatzeko.

\* Azken finean, hizkuntzak zein modutan duen eragina harreman interpersoneletan eta hauen artikulazioa hizkuntza bera erabiltzean.

- Zer da euskara gazte hauentzat?: komunikazio tresna, nortasun elementua, kultura berezia, sentimenduen ala pragmatismoaren mundua... Zein inplikazio mota dute euskararekiko.

- Eguneroko bizimoduak behar dituen hizkuntza funtzioak nola betetzen dituzte? zein hizkuntzatan eta zergatik. Horrekin batera sakonduko dugu hizkuntza bakoitzak zein hizkuntza funtzio betetzen duen gazte hauentzat.
- Gazte euskaldunen artean euskararen ezagupenaren eta erabileraren arteko artikulazioa aztertu. Bi dimentsio horien artean gauzatzen den hausturaren zergatiak sakontzeko.
- Gazte erdaldunen artean euskara zer den ikusi; ezagupena eta erabilera hautsiak daude? zergaitik ezagutu/ikasi euskera? eta erabili?.
- Azken finean, gazte hauen errepresentazio sistiman, non eta nola dagoen euskara aztertu.

## **2. METODOLOGIA.**

Ikerketa hau burutzeko erabili den metodologia kualitatiboa izango da, egokiena delako gure helburuak lortzeko. Diskurtsoen mundua, hots, espazio sinbolikoa sakontzeko metodologia berezia delako. Metodologia honetan dauden teknikak ezaguturik, eztabaida taldea aukeratu dugu ikerketan erabiltzeko.

### **2.1. DISEINU TEKNIKOA.**

Gazte donostiarren kolektiboa nolabait finkatzeko adin talde batean kokatu dugu ikerketa: 16 - 19 urtetakoak. Horrela, ikasketa mundua, lan mundua, koadrila, poteoa eta hainbat eguneroko praktikak aztertuko ditugu, hizkuntza barne dagoelarik. Ikerketa honek institutu eta lanbide heziketako ikasleak bereziki kontuan izango ditu (hau da, gazte ez unibertsitariak); horregatik, gazte horiekin eztabaida taldearen teknika erabiliko dugu, diskurtsoak bilatzeko egokiena delako. Unibertsitateko ikasleekin berdin egingo dugu; esplorazio gisa erabiliko ditugu zer nolako harremanak dituzten euskararekiko aztertzeko.

Gazte ez unibertsitarien artean, bi mundu bereiztu ditugu, diseinuaren ardatz bat osatzen dutela: bata, IKASKETA MUNDUA, hots, BBB eta UBIkoak eta bestea, LAN MUNDUA, hau da, Lanbide Heziketakoak. Banaketa honen zergatia honako honetan datza: euskal eredu askoz ere hedatuagoa eta sendotuagoa dago instituto mailan lanbide heziketa mailan baino eta horrek eragina du hizkuntzarekiko; gainera, lan munduaren hurbiltasunak bere eragin berezia du, nolabait gaztelaniaren mundua delako (euskararen inguruan gazteekin egin dugun beste ikerketa batean diskurtso ezberdinak gauzatu dira eredu batean eta bestean; interesgarria izan daiteke Donostiako gazteen artean zer gertatzen den ikustea).

Diseinuaren beste ardatza hizkuntza ereduarena da. Aipatutako mailan hizkuntza ereduak bi dira, A eredu eta D eredu; horrela, bi eredu horietan ikasten ari diren gazteak aukeratuko ditugu. Hala eta guztiz, ikerketaren helburuak direla eta, interesgarria deritzogu kontuan izatea ere 8. mailararte dagoen B ereduan ikasi duten gazteak (batzuk A ereduan eta beste batzuk D ereduan egongo direnak).

Taldeen perfilak osatzeko, bi aldagai kontutan izango ditugu: famili giroarena (guraso euskaldunak ala erdaldunak izatea) eta bizi diren auzoarena (auzo euskaldunagoa ala erdaldunagoa). Bi aldagai hauek gazteen ingurune hurbilari dagozkie eta neurri batean interesgarria daiteke kontuan izatea egunerokoa nola hedatzen den ikusteko (ikasketaz gain aisialdi praktikak bereziki).

Unibertsitate mundua ere interesatzen zaigu, bertara hurbiltzen diren gazteen hizkuntzarekiko jarrera aztertzeko; gazte euskaldun alfabetatuaren erabaki-prozedura, hots, euskara ala gaztelania erabakitzeko zein mekanismo eragiten duten aztertuko dugu. Zein toki eransten dioten hizkuntzari karreraren aukera egiterakoan alde batetik, lanaren perspektibak eta hizkuntzaren aukera, bestetik. Mundu honek bere ikerketa berezia beharko luke, ingurune eta espektatiba ezberdinak zabaltzen zaizkielako gazteei; ikerketa honetan, gure helburua esplorazio bat egitea da, zer nolako inplikazio duten gazte hauek euskararekiko aztertzeko.

Gazte unibertsitarien artean, kontuan izango dugu zientzietan ala letretan ikasten ari diren, alde batetik, eta bestetik, euskaraz ala gaztelaniaz ikastea aukeratu duten.

## **2.2. EZTABAIDA TALDEEN PERFILAK.**

Diseinuaren atalean azaldu diren ardatz eta aldagaiak kontuan izanda, ZORTZI EZTABAIDA TALDE burutuko ditugu. Eztabaida taldeak honako perfil hauetakoak dira:

1.E.T.: - IKASKETA MUNDUA (3.B.B.B/ UBI)

- A EREDUKOAK
- FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
- AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
- NESKA/MUTILAK

2.E.T.: - LANAREN MUNDUA (LANBIDE HEZIKETA: 2.ZIKLOA)

- A EREDUKOAK
- FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
- AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
- NESKA/MUTILAK

3.E.T.: - LANAREN MUNDUA (LANBIDE HEZIKETA: 2.ZIKLOA)

- D EREDUKOAK
- FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
- AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
- NESKA/MUTILAK

4.E.T.: - IKASKETA MUNDUA (3.BBB/UBI)

- D EREDUKOAK
- FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
- AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
- NESKA/MUTILAK

5.E.T.: - IKASKETA MUNDUA (3.BBB/UBI)

- A ETA D EREDUKOAK (B EREDUTIK ETORRIAK)
- FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
- AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
- NESKA/MUTILAK

- 6.E.T.: - LANAREN MUNDUA (LANBIDE HEZIKETA: 2.ZIKLOA)
- A ETA D EREDUKOAK (B EREDUTIK ETORRIAK)
  - FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
  - AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
  - NESKA/MUTILAK

Unibertsitarien artean bi eztabaida talde burutuko dira honako perfiletakoak (lehenago aipatu izan dugunez, kolektibo honetan zer gertatzen den ikusteko, esplorazio gisa):

- 7.E.T.: - GAZTE UNIBERTSITARIAK (1. MAILAKOAK)
- ZIENTZIETAKOAK/LETRETAKOAK
  - ERDIAK EUSKERAZ IKASTEN/ERDIAK GAZTELERAZ
  - D EREDUTIK ETORRIAK
  - NESKA/MUTILAK

- 8.E.T.: - GAZTE UNIBERTSITARIAK (1. MAILAKOAK)
- ZIENTZIETAKOAK/LETRETAKOAK
  - GAZTELERAZ IKASTEN
  - A EREDUTIK ETORRIAK
  - NESKA/MUTILAK

### **2.3. AZKEN DISEINU TEKNIKOA.**

Ikerketaren azken diseinua hamar eztabaida taldez, talde hiruko batez eta bi elkarrizketa sakonez osatzen da, kontaktazio lana egiterakoan arazo handiak izan direlako gazte hauek biltzeko. Honela banatzen da diseinu osoa:

- 1.E.T.: - IKASKETA MUNDUA (3.B.B.B/ UBI)
- A EREDUKOAK
  - FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
  - AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
  - NESKA/MUTILAK

(Perfil hau bi aldiz egin zen; lehenengo taldea ez zen egokia ikusi partaide kopuru mimimoa zeukalako, orduan, beste bat egitea erabaki zen. Hala ere,



talde biak kontuan izan dira azterketan, lehenengo taldeak informazio interesgarria zeukalako ere).

2.E.T.: - LANAREN MUNDUA (LANBIDE HEZIKETA: 2.ZIKLOA)

- A EREDUKOAK
- FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
- AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
- NESKA/MUTILAK

3.E.T.: - LANAREN MUNDUA (LANBIDE HEZIKETA: .ZIKLOA)

- D EREDUKOAK
- FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
- AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
- NESKA/MUTILAK

4.E.T.: - IKASKETA MUNDUA (3.BBB/UBI)

- D EREDUKOAK
- FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
- AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
- NESKA/MUTILAK

5.E.T.: - IKASKETA MUNDUA (3.BBB/UBI)

- A ETA D EREDUKOAK (B EREDUTIK ETORRIAK)
- FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA
- AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
- NESKA/MUTILAK

(Perfil honetan beste talde bat burutu da ere -5bis- B eredutik D eredura pasa direnekin, honela euskaldun mundua hobeto aztertu izan da).

6.E.T.: - LANAREN MUNDUA (LANBIDE HEZIKETA: 2.ZIKLOA)

- A EREDUKOAK (B EREDUTIK ETORRIAK)
- FAMILI GIROA: EUSKALDUNA/ERDALDUNA

- AUZOA: EUSKALDUNAGOA/ERDALDUNAGOA
- NESKA/MUTILAK

(Lanbide heziketaren euskal adarra oraindik ez dago hedatua, hori dela eta. Donostian eskola bat bakarra dago euskaraz ematen duena; horregatik, talde honen azken perfila A eredukoena da (Btik etorriak, noski). Hori osatzeko beste talde bat egin da -6bis- non elkartu diren A eta D eredukoak berezitasun batekin: batzuk Donostiakoak ziren eta besteak bi herrietakoak; azterketarako kontuan izan dira berezitasun horrek eman lezakeen informazioagatik).

Unibertsitarien artean eztabaida talde bat burutu da, talde hiruko bat eta bi elkarrizketa sakon (esplorazio gisa informazio interesgarria lortu izan da):

- Ubirarte euskaraz ikasi dutenekin: talde hiruko bat egin da eta bi elkarrizketa sakonak: 7.TALDE HIRUKOA.:

- GAZTE UNIBERTSITARIAK (1. MAILAKOAK)
- EUSKARAZ IKASTEN (EHUn)
- D EREDUTIK ETORRIAK

#### BI ELKARRIZKETA SAKONAK:

- GAZTE UNIBERTSITARIAK (1. MAILAKOAK)
- GAZTELANIAZ IKASTEN (UNIBERTSITATE PRIBATUAN, EUTGn)
- D EREDUTIK ETORRIAK


- Ubirarte gaztelaniaz ikasi dutenekin eztabaida talde bat burutu da:

- 8.E.T.: - GAZTE UNIBERTSITARIAK (1. MAILAKOAK)
- ZIENTZIETAKOAK/LETRETAKOAK
- GAZTELANIAZ IKASTEN
- A EREDUTIK ETORRIAK
- NESKA/MUTILAK

Azken diseinu hau kontaktazioaren zailtasunagatik burutu da. Hala eta guztiz, diseinu koerentea eta egokia da ikerketaren helburuei aurre egiteko eta, zalantzarik gabe, informazio nahiko eta interesgarria lortu ahal izan da. Datorren irudian azken diseinuko taldeen eta elkarrizketeten kokapena adierazten da.

# 1. IRUDIA

## Azken Diseinua



→ EREDUAK

## UNIBERTSITATEKOAK

**7T** Hiruko Taldea [ E ]  
(D) → D

**8T** A → A [ G ]

**Elkarriz.1** (D) → A [ E ]

**Elkarriz.2** (D) → A [ E ]

### 3.- SARRERA.

Taldeetan ez da agertu lana eta ikasketa munduen artean ezberdintasun nabaririk euskararekiko. Hizkuntzarekiko haustura ardatza nagusia ereduaren artekoa izan da. Honek ez du esan nahi bi mundu homogeneo bereiztu direnik, zera esan nahi du, ordea: bi mundu orokor ezberdin bereiztu dira A eta D ereduaren artean (B ereduko taldeak banatu egin dira alde batera batzuk eta beste alde batera besteak) baina horrekin batera mundu bakoitzean posizio ezberdinak agertu dira. Hauxe sakonduko dugu txostenean.


Beste alde batetik, gazte hauentzat hiria, Donostia, erdararen hiria da; gaztelania sentitzen da eta ikusten da "normala", bi arrazoik babesten dutelarik ideia edo sentipen hau: jende gehienak euskaraz ez dakiela (hots, euskalduna gutxiengoa dela eta horrekin batera, euskalduna bera gutxiengo sentitzen da, eta azken sentimendu honek garrantzia du bere euskararekiko jarreran) eta kanpoko jende asko dagoela (hots, erdalduna dela eta euskararekiko atxikimendurik ez duela).

Gure taldeen azterketa egin ondoren, esan dezakegu hizkuntza ereduaren arabera agertu direla bereiztasun nabariarenak euskararekiko: zentzu honetan, taldeen euskararekiko hurbiltasun txikiagoak edo handiagoak berarekiko irudiak eta jarrerak aldatu ditu. Hurbiltasun kontzeptua zentzu ezberdinetan ulertu behar dugu: hurbiltasun "fisikoa edo espaziala" (kale mailan, lagun edo ezagun euskaldunak; etxe mailan, guraso edo famili euskalduna eta eskola mailan, hizkuntza eredu euskalduna) nahiz hurbiltasun "ideologikoa" (euskararekiko atxikimendu berezia). Txosten honen azalpenaren ikusiko dugunez, hurbiltasun hau oso loturik doa euskararekiko inplikazioari (edo, hobe esanda, inplikazio mota ezberdinei). Gazte hauek hiri berdinean bizi dira baina horrek ez du esan nahi euren egunerokoa berdinean bizi eta definitzen dutenik.

Gure ikerketako gazteen artean hiru diskurtso orokor ezberdin nabaritu ditugu; euskararekiko urrunetatik hurbilenera hauexek dira: KONTRAKO DISKURTSOA, INDIFERENTZIA DISKURTSOA eta DISKURTSO EUSKALZALEA. Datorren irudian taldeen eta diskurtsoen arteko erlazioa azaltzen da, hau da, diskurtso bakoitza zein taldeetan hedatu den. Diskurtso bakoitzaren ezaugarriak aztertuko ditugu aurrerantzean.

# 2.IRUDIA

## TALDEEN ETA DISKURTSOEN ARTEKO ERLAZIOA



KONTRAKO  
DISKURTSOA

INDIFERENTZIA  
DISKURTSOA

EUSKALTZALE  
DISKURTSOA

[ GAZTELANIAREN  
ATXIKIMENDU  
KOMUNITATEA ]

[ EUSKARAREN  
ATXIKIMENDU  
KOMUNITATEA ]

## 4.- KONTRAKO DISKURTSOA.

Diskurtso hau A ereduko talde bateko partaide batzuetan hedatu da (1Tko zati batean). Deitura hau eman diogu euskararekiko jarrera urruna eta agresiboa duelako: hizkuntza horren gizarte izaera guztiz baztertzen duelako. Diskurtso hau hedatzen duen posizioa tinko azaldu da taldean nahiz eta gutxiengoa izan, honek esan nahi du gizarte mailan diskurtso honek dituen argumentazioak kristalizatuta (nolabait, errotuta) daudela (nahiz eta guk ezin esan zein kopurutan dagoen); hori dela eta, talde berdinean dagoen Indiferentzia diskurtsoari aurre egin ahal dio (azken honek erantzun egiten diolako).

### 4.1- Hizkuntzaren irudia.

Diskurtso honetan, hizkuntza gaztelania da. Euskarak bi ezaugarri ditu "obligazioa" da eta "asignatura" da, biak peioratiboak. Posizio honetan kokatzen diren gazteak gaztelaniaz bizi dira eta euskara urrun dago euren egunerokotasunetik. Gazteen egunerokotasuna hiru gunetan banatu dugu argiago ikusteko hizkuntzarekiko harremana: ETXEA (famili giroa), ESKOLA (ikasketak eta lana sartzen dugu gunean) eta KALEA (lagunarteko, aiasialdiko harremanak).

**-ETXEA.-** Gune hau gaztelaniaz da eta gune honetan hedatzen diren harreman sareak gaztelaniaz dira ere bai; etnizitate ezberdina agertzen da ezaugarri funtsezkoa, hots, posizio honetan erreferentzia ez da Euskal-Herria edo Euskal Komunitatea baizik eta Espainia da eta honen barruan erregio ezberdinak (Euskal Autonomia bat gehiago delarik): "porque aquí toda la gente o somos de Galicia, o de Asturias o de Castilla" (1T,19). Azken finean, Euskal Elkarte Autonomokoak izanda ere azken erreferentzi osagarria eta etnizitatearen erroa Espainia da. Gure taldeetan posizio hau etorkinen seme-alabetan agertu da (bigarren belaunaldikoak, Euskadin jaiotakoak direnak) baina horrek ez du esan nahi etorkinen arteko posizioa denik soilik.

**-ESKOLA.-** Gazte hauek gune honetan, ia soilik, aurkitzen dute euskara euren egunerokoan eta gainera derrigorrezkoa zaie ikasgai delako. Euskara, orduan, ikasgai bat da (ez du beste ezaugarriarik) eta ez dute onartzen bere derrigortasuna, oso jarrera gogorra agertuz: "que obliguen a estudiar euskera como obligan es un abuso" (1T,19).

Balorazio ezkorra egiten dute euskara ikasgaiari buruz: "denbora kentzen duelako" beste ikasgai edo beste gai batzuk ikasteko (adibidez beste hizkuntza garrantzitsuagoak: alemana, ingelesa), "noten arteko batazbestekoa jeisten duelako" (bereziki selektibitateari begira). Ez diote zentzurik ikusten derrigorrez ikasi beharrari, azken finean, ez duelako ezertarako balio:

- Ez diote balio pragmatikorik ikusten. Lan munduari begira euskararen garrantzia oso mugatua ikusten dute (lan publikoetarako bereziki, eta hori "inposizio" bezala, hots, jarrera ezkorrekin):

\* Alde batetik, lanpostu ospetsuetarako (entrepresa pribatuetarako) euskarak ez du baliorik: "para curros guapos, guapos, o sea de alto estanding no" (1T,29).

\* Bestetik, lan eremuan, euskara dikotomia batean sartzen dute (hau, ikusiko dugunez, talde denetan agertzen den jarrera da nahiz eta erantzun ezberdinak izan): BARRUAN (HEMEN)/KANPOAN (HAN). Euskararen balio minimoa gutxituta gelditzen da dikotomia honen arabera; euskarak zerbait balio baldin badu ere Euskal Autonomi Elkartera mugatzen da eta, bertan, lan oso berezietara (lan publikoa); kanpoan, aldiz, euskarak ez du ezertarako balio. Hau dela eta, gaztelania da askoz ere ospetsuagoa lanari begira dikotomia honetako alde bietan kokatzen delako: Barruan eta Kanpoan.

"pues me estudio alemán o me estudio otra cosa, me hago una diplomatura de historia, en lugar de ese tiempo que le dedico al euskera, y así puedo conseguir un trabajo más fácilmente y en cualquier otro sitio y no sólo aquí, en el País Vasco" (1T,21).

- Ez diote balio simbolikorik edo integratzailekerik eransten. Euren nortasun hizkuntza eta, horrez gain, komunikazio hizkuntza gaztelania da; gaztelania da denek dakiten hizkuntza, Espainia osoko hizkuntza, horren arabera euskararen funtsezko irudia "borondatezkoa" izan behar du; ez dute onartzen eskolan ere ezta ikasgaiaren derrigortasuna: nahi duenak ikas dezala, "que sea libre, que estudie quien quiera" (1T,20). Jarrera agresiboa agertzen da ikasgaiaren kontra egitean, oinarrizko bi argumenturekin, bata, argumentu pragmatikoa, bere utilidade falta eta bestea,

argumentu sinbolikoa, derrigorrezko hizkuntza bakarra gaztelania dela (euskara hizkuntza erregionala da, folklorikoa).

"Yo cuando empecé a estudiar no sabía euskera, no sabía lo que era el euskera: ¿qué es eso, esa cosa tan rara?. Ahora, mi hermana la tienen ahí aplastándola con el euskera" (1T,62).

- **KALEA.**- Gazte hauen kalea gaztelaniaz da eta gainera horrela ikusten dute izan behar dela; azken finean, komunikazio hizkuntza bat izan behar delako eta berau gaztelania da, noski. Donostian ez dute arazorik zentzu honetan, euren eguneroko aisialdia gaztelaniaz dagoelako eta hurbileko harremanak ere gaztelaniaz direlako. Beste aldetik, euskaradunak direnekin hizkuntza amankomuna dutenez ez dira planteiatzen beste motatako harremanik ez bada gaztelaniaz: "El lenguaje es algo para comunicarse, no es algo para decir si tú hablas euskera qué haces aquí, si no hablas... si quieren comunicarse conmigo pues a ver si hablamos en castellano" (1T,58).

Posizio honetan "komunikazioa" aldarrikatzen da helburu gisa, horretarako gaztelaniaz izan behar du euskaraz ez dakitelako eta, horrez gain, gaztelania delako komunikazio hizkuntza berezia. Euskararen irudia hizkuntza erregionala, borondatezkoa denez, gizarte hizkuntza gisa ezin du funtzionatu. Horrekin batera, ez dute onartzen leku publikoetan lehenengo hizkuntza euskara izatea, hori gaztelaniaren funtzioa delako:

"Vas a la biblioteca (Koldo Mitxelena) y te hablan en euskera, igual en castellano si cuadra, y eso es un abuso" (1T,19).

Hizkuntzaren irudia lotuta doa nola ikusten den etorkizunaren ideiare. Diskurtso honetako jarrera orokorra agresiboa da euskararekiko eta hori ondo ikusten da etorkizunaz galdetzen zaienean: zalantzarik gabe oso etorkizun ona ematen diote euskarari baina ez beraiek horrela nahi dutelako baizik eta erakundeak (Eusko Jaurlaritza aipatzen da: funtzionarien kasua) derrigortasuna eskatzen ari direlako. Erakundeen ekintzak euskararen inguruan ez dituzte onartzen euskararen gizarte izaera onartzen ez dutelako:

"Tiene un gran futuro, toda la gente que no queremos hablar euskera nos vamos a ir de aquí, la tenemos clara" (1T,60).




## 4.2.- Hizkuntzaren gizarte izaera.

Atal honetan bereziki aztertuko dugu euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanak hizkuntza biak gizarte ekintza bezala ulertuta, hots, gizarte interakzioaren arteko elementu oinarrizkoak bezala ulertuta.

### 4.2.1.- Hizkuntzaren funtzioak.

Hizkuntza bakoitzak funtzio batzuk bete ditzake gizarte mailan; hizkuntza bakoitzari zein funtzio mota eransten zaion ikusita ondo uler dezakegu hizkuntzari eransten zaion gizarte leku mota:



- Jatorrizko funtzioa (Función vernacular). - Lekuan lekuko hizkuntza eta berez sortzen dena; ama hizkuntza, sentimenduen ezaugarriak batzen dituena. Diskurtso honetan, gaztelaniak betetzen du etxeko, familiako, hots, komunitate hurbileko funtzio hau. Funtzio hau nortasun hizkuntzarena da, posizio honetan gaztelaniak betetzen duena: nortasun espainola:

"Vivimos en España ¿no? Hay que hablar en castellano" (1T,44).

Nortasun kolektiboaren erreferentzia bakarra Espainia da, eta bertako hizkuntza gaztelania. Kontestu honetan euskararen lekua hizkuntza erregionalarena da. Honi lotuta beste gai bat agertzen da: zer da vasco izatea. Gai honetan eztabaida sutsua dago posizio honetan eta Indiferentzia diskurtsoan kokatzen direnen artean (1T taldean, A ereduak denak). Kontrako diskurtsoan daudenak ez dute bereizten ser vasco-ser español, nolabait ser español-ek betetzen duelako nortasun hori; horrela, onartzen dute vasco osoak (edo vasco) ez direla hainbat elementu falta zaizkielako: "Si no eres de familia vasca, no has nacido aquí, no sabes hablar euskera, no eres un vasco puro... Lo han dicho en la televisión" (1T,23). Onarpen

horrekin kritika ezkutua egiten diote planteamendu horiek adierazten dutenei (mundu abertzalea, orokorrean); azken finean esan gabe adierazten dutena hau da: zuen planteamenduak ez ditugu onartzen baina horrela nahi baldin baduzue, hala bedi, ez gara vascos ez dugulako onartzen vasco osoak edo erdiz-perdizkoak egotea. Mekanismo perbertsoa da hau: beste muturreko diskurtsoaren elementuak onartu norberaren argumentu bezala bestearena kritikatzeko eta aldi berean norberarena babesteko. Jarrera honi, aurre egiten diote Indiferentzia diskurtsoan kokatzen diren gazteek: hauek ez dute onartzen Kontrako diskurtsoan kokatzen direnek erabilitako argumentu horiek ezta planteamendua ere; vasco izatea, bereziki, bertan jaiotzearekin lotuta dago, horrekin batera, vasco nahi izatearekin ere bai: "Si naces ya lo eres; otra cosa es que tú quieras, que reniegues de ello: o te te consideres o reniegues de ello" (1T,25).

Kontrako diskurtsoan kokatzen diren gazte hauek vasco nortasunean ez dute euskara bereizten funtsezko ezaugarri gisa; euskara vasco batzuk duten jatorrizko hizkuntza izan daiteke (hots, etxekoa, komunitate hurbilekoa), eremu pribatuetakoa beti ez gizartekoa; aldiz, gaztelania vasco denek duten (eta eduki behar duten) hizkuntza da.

- Transmisioko funtzioa (Función vehicular).- Komunikazio hizkuntza, ezagutza dimentsioa da pisurik handiena duena eta ez sentimenduena. Diskurtso honetan gaztelaniak betetzen du funtzio hau oso-osorik, bi maila bereiztu ditezkelarik:

\* Alde batetik, BARRUKO maila: Euskal Autonomi Elkartearen kopuru gutxi dira euskaradunak, gainera, euren egunerokoan euskaraz oso jende gutxi daki edo erabiltzen du (euskara urruna sentitzen dute; bereziki herrikoei, baserrikoei lotuta); euskara borondatezkoa ikusten dutenez, euskaraz ez dakitenez, euren komunikazio hizkuntza bakarra gaztelania da. Horrekin batera, gaztelaniari erantzen diote transmisioko funtzioaren legitimitate osoa eta bakarra (euskarak ez du legitimitaterik - borondatezkoa izan behar duelako- funtzio hau betetzeko):

"Me parece muy bien que su lengua que la cuiden, que no sé, que tal y cual pero, ¿por qué tengo que estudiar yo el euskera?" (1T,23).

\* Bestetik, KANPOKO maila: Espainia denez euren erreferentzia gaztelaniak ere, kontestu horretan, betetzen du komunikazio funtzioa, legitimitate bakarrarekin

gainera: "Si vas a la Costa del Sol de vacaciones..." (1T,43). Funtzio hau betetzeko gaztelaniari eranstean diotela legitimitate bakarra honako aipamen honetan argi adierazten da: Alemanian alemaniera ikasiko lukete bertako gobernuak lana ziurtatuko balie; alderantziz, euskararekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ez dute jarrera berbera adierazten; euskarari ez diote alemanieraren estatus berbera eranstean ez dutelako komunikazio hizkuntza gisa kontsideratzen, horretarako gaztelania dago (azken hau izango litzateke hizkuntza nazionala eta euskara ,aldiz, erregionala).

- Erreferentzia funtzioa. - Kultur baten altxor iraunkorra, arbasoei eta kultur tradizioei lotuta (literatura, tradiziozko ipuinak,...). Funtzio hau gaztelaniak betetzen du osotasunean, alde batetik ez dakitelako euskaraz eta bestetik, euskararen edo euskaradunen kultura ez dutelako ezagutzen eta, horrez gain, ez dute inongo interesik ezagutzeko, ez diote erakargarritasunik ikusten (folklore gisa ezik). Euskara asignatura gramatika soilari lotuta dago (nolabait, zailtasunari) eta uko egiten diotenez hizkuntza horrek hedatzen duen kultura dimentsiora ez dira heltzen (ideologikoki, ez dute nahi).

"Hay otras cosas en las que te notas distinto. Por ejemplo, hablais de grupos de rock que si Negu Gorriak no sé qué, llegas ahí y no te empanas de nada y dices, bueno, ¿de qué están hablando éstos?" (1T,28).

- Funtzio mitikoa. - Eremu sakratuari dagokiona, hizkuntza magikoa. Gaztelaniak ere betetzen du funtzio hau; bera da nortasun hizkuntza, ospedun hizkuntza, nolabait, ate guztiak zabal dezakeen hizkuntza (atzerrian ere ospeduna, hainbat hiztunekin...). Euskarak ez du funtzio hau betetzen, hain mugatua da bere irudia Kontrako diskurtso honetan.

Diskurtso honetan gizarte izaera osoa eta bakarra gaztelaniak du; berari onartzen diote gizarte legitimitate osoa: lurraldetasuna (Espainia erreferentzia hartuta) eta gizarte interakzio hizkuntza izatea. Euskara, aldiz, hizkuntza erregionala izanik borondatezkoa izan behar du eta horren ondorioz, banakako dimentsioan kokatzen dute oso-osorik, bi esparru bereiztuta:

- Esparru pribatura mugatu (nolabait, jatorrizko funtziora: etxekora, senitartekora, harreman hurbiletara).
- Kultur esparrura: kultura kontzeptua ez bizimodu edo tradizio gisa ulertuta, "kontsumo" bezala ulertuta baizik, hau da, banakako eta borondatezko aukera

(euskara "kultura produktu" bat da nahi duenak "kontsumitzeko": adibidez, jaialdiak, erakusketak, etab.).

Horrela, euskararen gizarte dimentsioa oso mugatua dago: kultur esparruan soilik eta (banakako) kontsumo bezala definituta.

#### **4.2.2.- Euskaradunen eta erdaradunen arteko harremanak.**

Euskaradunekiko harremanak gertatzen direnean, gaztelania da komunikazio hizkuntza, azken finean, posizio honetako gazteek ez dakite euskaraz. Euskara komunikazio hizkuntza gisa ez dutenez onartzen, ez diete euskaradunei onartzen euskaraz egitea beraiek tartean egonda; honek esan nahi du, ez dutela euskaradunak kolektibo bezala ikusten (hizkuntza batekin), hau koerentea da euren euskararen irudiarekin (banakakoa eta borondatezkoa). Adibidez, gazte batek adierazten du hockey talde batean sartu zenean bera zela euskaraz hitzegiten ez zekien bakarra eta egoera hori ikusita ez da planteiatzen bere buruaren aldaketarik, bestearikiko errespetorik, alderantziz, denak gaztelaniaz dakitenez berau da hizkuntza "normala" eta komunikazio hizkuntza; ez du onartzen ezta taldeko beste gazte batek zalantzan jartzea gaztelaniaz egin beharra; argi ikusten da aipamen honetan:

"Lo que pasa es que había el típico que decía, por qué teníamos que hablar en castellano, y yo le decía <pues a mí háblame en castellano porque no te entiendo, igual que yo te puedo hablar en inglés y no me entiendes>" (1T,31).

Honelako egoera batean, denak bat ezik euskaradunak direnean euskarari eustea gatazkatsua izan daiteke aipamenean ikusten den bezala; geroago azalduko dugu euskaradunen jarrera baina orain azpimarratu behar dena hauxe da, posizio honetako gazteek ez dutela egoera hori onartzen, ez diotela legitimitaterik ematen (euskaraz egitea planteiatzen duenari "el típico" deitzea, konnotazio peioratiboarekin, adierazgarria da). Gainera, aipamen bertan ikusten denez, euskarak ez du gazte hauentzat berezitasunik beste hizkuntzen aurrean (adibidez ingelesa edo alemaniera), hobe esanda, euskarak beste hizkuntza hauek baino garrantzi gutxiago du, balio gutxiago duelako: balio pragmatiko gutxiago (lanari begira, atzerrira begira).

Horrelako egoera bati aurre egitea euskara onartuz "obligazio" bezala ikusten da; zentzu honetan, euskararen gizarte izaera ez denez onartzen ulergarria da jarrera hau: euskaraz saiatu baino lehen alde egitea nahiago:

"Pues nada, porque me voy a otro equipo. Yo si aprendo euskera es porque quiero, no porque me obliguen" (1T,32).

#### **4.2.3.- Euskararekiko inplikazio maila.**

Arestian ikusi dugunez, posizio honetan kokatzen diren gazteak ez dute euren egunerokoan euskararekin topo egiten eskolan ez bada (eta oso puntualki kalean); euskara urruna ikusten dute eta gainera ideologikoki ere ez diote gizarte garrantzirik ematen. Hori dela eta, esan genezake <inplikazio eza edo hutsa> dutela posizio honetan. Inplikazio kontzeptua bi dimentsiotan banatu dugu azterketarako argigarriak direlakoan, hau da, inplikazio harremana homogeneoa bezala hartu beharrean bi motatako inplikazio harreman bereiztu ditugu: alde batetik, <inplikazio ideologikoa> (errepresentazio mailan euskararekiko atxikimendu motaren bat izatea) eta, bestetik, <inplikazio praktikoa> (eguneroko bizimoduko praktiketan non kokatzen duten euskara). Bereizketa hau interesgarria da dimentsio bien artikulazioa ikusteko (euskararen kasuan beti ez datozelako bat ikusiko dugunez).

Posizio honetan ez dago inplikazio ideologikorik euskararekiko ez delako atxikimendu motarik nabarmentzen, ospegabeko eta interesgabeko hizkuntza da (euskara esparru pribatuko, borondatezko mailan kokatzen dute); gazte hauek euskarari baino garrantzi gehiago ematen diote beste hizkuntza bati (ingelesa, alemaniera), zentzu honetan, euskara zama handi bat da beraientzat (eta horri agresiboki erantzuten diote):

"Quiero aprender otro idioma, quiero aprender alemán, quiero dedicar ese tiempo a otras cosas. ¿Por qué tengo que perder mi vida así?" (1T,50).

Ez dago inplikazio praktikorik ezta; euren egunerokoa gaztelaniaz da arazorik gabe (etxean, eskolan eta kalean). Ez dakite euskaraz eta ez dira arduratzen horregatik (ez dute jakiterik nahi) beste lehentasunak dituztelako euskararen aurretik. Posizio honetan ez dago ezagupenaren motibaziorik, horretarako, oztopo ideologikoa da gainditu behar den lehenengo pausua euskarari (eta euskaradunei) ez diotelako onartzen gizarte legitimitaterik, transmisioko hizkuntza bakarra gaztelania delako beraientzat.

## **5.- INDIFERENTZIA DISKURTSOA.**

Diskurtso hau A ereduko talde denetan (unibertsitatekoa barne) gehi B ereduko talde batean (5T taldean salbuespen batekin: gaur egun D ereduan dauden partaide batzuk -denak ezta- ez daude diskurtso honetan, euskarazale diskurtsoan baizik) hedatu da. Diskurtso honetan ez da euskara baztertzen, aurrekoan gertatzen zen bezala; Indiferentzia deitura eman diogu euskararekiko inplikazio mota <arduragabekoa> delako (azalduko dugunez). Diskurtso honetako euskararekiko harremana taldeen dinamika bertan argi ikusi da: hizkuntzaren gaia sartu denean harridura edo deserosotasuna agertu da, ez diotelako interes berezirik ikusten gai honi. Euskararekiko ikuspegia estatikoa da, hots, hizkuntzaren egoera dagoena da eta, nolabait, egoera finkatua da eta horrela onartzen dute, ez dute aldaketaren beharrik ikusten edo aldarrikatzen.

### **5.1.- Hizkuntzaren irudia.**

Gazte hauentzat hizkuntza komunikazio tresna bat da, harremanak bideratzeko tresna. Ez da problematizatzen hizkuntzaren egoera edo izaera. Euskarak bi ezaugarri ditu:

- Bata, Autonomi Elkarteko "beste hizkuntza" dela, hots, lehenengo hizkuntza gaztelania da (denek ezagutzen duten hizkuntza da); gainera, euskara dago, bertako hizkuntza dena eta batzuk bakarrik ezagutzen dutena.

- Bestea, eskolako ikasgai (edo gai) bat da onartu behar dena bertako hizkuntza delako; euskaldunen ondarea delako (eta eurena ere bai, euskaldunak direnez -nahiz euskaradunak ez izan).

Ez dago euskararekiko nortasun sentimendurik, euskara bertako <beste> hizkuntza da (bigarren hizkuntza, gaztelania da lehenengoa), bertakoa dena, baina beste konnotaziorik gabe:

"-Otra vía más para comunicarte con gente

-Es otro idioma que se ha puesto y ya está y tienes que, nada, es otro idioma más, sin más" (5T,36).

Euskaldun (vasco) izatea ez dago euskarari lotuta. Gazte hauentzat euskaldun izatea bi elementuz osatzen da: bata, biologikoa (Euskadin jaiotzea) eta bestea borondatezko aukerakoa (bertakoa sentitzea), hots, "ser de aquí y sentirse de aquí" (5T,42). Elementu biak loturik doaz eta harreman horretan euskarak ez du leku berezirik; nortasunaren harreman horretan euskara <beste batzuk> (hauek aipatzen direnean HB eta Jarrai aipatzen dira, <erradikal> bezala difinituz) sartzen dute desoreka gatazkatsua sortuz eta hori ez dute onartzen:

"Porque parece que hay niveles de vasco, si eres vasco y sabes euskera pues eres más vasco" (5T,43).

Euskaldun izaeran euskara jakitea sartzea "limitazio" bezala ikusten da, azken finean euskaldun denek ez dakiten hizkuntza delako:

"Si todos supiésemos euskera pues muy bien, mucho mejor, pero como todavía no sabemos todos, pues..." (5T,43).

Eztabaida sortzen da 5T taldean (Btik datozenak) euskararen garrantziari buruz euskaldun izaeran: batzuentzat (D ereduan daude gaur egun; hauek ez dira kokatzen diskurtso honetan, Euskalzale diskurtsoan baizik) hizkuntza bat kultura bati lotuta doa eta horren arabera garrantzi berezia du bere ezagupenak:

"Es que yo creo que para entender la forma, bueno, la cultura de un sitio y todo eso tienes, bueno no tienes porqué pero te ayuda mucho (hizkuntza ezagutzea)" (5T,44).

Besteak, diskurtso honetan kokatzen direnak, ados daude adierazpen horrekin maila ideologiko batean, hau da, hizkuntza bat garrantzitsua dela kultura hori ezagutzeko ideiarekin bat datoz (ingelesa dela edo beste hizkuntza bat) baina gero euskararen kasuan ideia hori matizatu egiten da, ez da hain garbi ikusten: euskal kultura (cultura vasca) bi hizkuntzez osatzen da eta gaztelania jakinda gero ezagutzen duzu kultura hori; kontestu honetan, euskararen ezagupenak ematen dizun gauza bakarra kultura horren azpi-kultura bat ezagutzea da, hau delako kultura euskaradunaren irudia diskurtso honetan: CULTURA VASCA multzoaren barruan azpi-multzo bat dago KULTURA EUSKARADUNA dena; orduan, azpi-multzo hori ez bada ezagutzen ez diote horrelako garrantzirik ematen multzo orokorra (gaztelaniaz, noski) ezagutzen delako. Euskalzale diskurtsoan kokatzen denak esaten duenean

arraroa dela ingeles batek ingelesa ez jakitea (euskarari buruz gauza berbera euskaldun batentzat) adierazgarria da diskurtso honetan kokatzen denaren erantzuna, hau da, euskaldunak nahiz gaztelaniaz mintzo inoiz ez dira gaztelarrak izango, euskaldunak baizik:

"Pero uno de Estados Unidos no es inglés por mucho que hable inglés"  
(5T,43).

Zentzu honetan, gazte hauentzat euskarak ez dio ezer berezirik ematen euskaldunari. Hala ere, aipa ditzakegu bi dimentsio ezberdin non euskarak baduen leku berezia, KANPO/BARRU dikotomiak eragiten dituenak: gazte hauentzat, KANPOAN, euskarak bai ematen diela zerbait, eta hori da, besteekiko <berezitasuna>, hau da, hizkuntza berezia dute eta horren arabera ezberdinak dira: "porque no te entienden y entonces, no sé, te sientes como, sí, especial" (5T,38). KANPOAN besteen erreferentzia konkretua katalanetan konkretatzen da, hau da, katalanak gogor eusten diote katalanari eta horri erantzuteko (ez dutelako onartzen horrelako jarrerarik hizkuntza amankomuna izanda) euskara tresna oso baliagarria zaie ez dietelako ulertuko eta maila berean erantzuten dietelako (nahiz eta beraiek euskaraz ez jakin). BARRUAN, aldiz, euskarak mekanismo berbera eragiten du baina zentzu alderantzizkoan: euskaldunen artean euskara ez da euskaldunen nortasun amankomuneko eragile funtsezkoa, <gu> bat eraikitzen laguntzen duena, <berezitasuna> baizik, hots, batzuk dakitena eta beste batzuk ez. Berezitasuna den heinean ez da <komodoa> bere erabilera eta, gainera, ez du balio erantsirik ezta. Salbuespen bezala, agertzen da aipamen bat beste harreman batzuk zabal daitezkeela euskararekin, baina hori ere ez da onartzen posizio honetan: "A lo mejor te relacionarías con otro tipo de gente, <otro> no, con más tipo de gente. Tú sabes euskera y castellano y te da para relacionarte con gente que sabe castellano y para relacionarte con gente que sabe euskera. Si sólo sabes castellano te puedes relacionar también con gente de euskera pero yo al menos lo veo diferente" (2T,30).

Aipamenean agertzen denez, euskarazko harremanak beste jende batekin erlazionatzeko lagun dezaketela onartzen da baina salbuespena da, hori ez delako gazte hauen ikuspegia; diskurtso honetan ez diote garrantzirik ematen euskaraz ala gaztelaniaz harremanak izateari, hizkuntza tresna bezala ikusten delako eta komunikazioa aurrera eramateko ez da bereizten hizkuntza bakoitza; beraien komunikazio hizkuntza bakarra gaztelania da eta ez dute zalantzan



jartzen < normaltasun > hori: "Pero yo me relaciono igual. A mí me da igual que el otro sepa euskera o no, para mí es una persona más" (2T,30).

Gaztelaniaren eta euskararen irudiak oso ezberdinak dira, hori azaltzeko hiru guneen banaketa egingo dugu.

- **ETXEKO GUNEA.**- Gazte hauek ez dira erdaradunak soilik, euskaradunak ere badaude (A ereduan daudenak); gazte erdaradunak eta euskaradunak diskurtso berberan kokatzen dira, euren ezberdintasun bakarra gune honetan dago: gazte erdaradunak etxea erdaraduna dute, gazte euskaradunak, aldiz, etxea euskaraduna dute, hau da, etxean ikasi dute euskaraz hitzegiten. Etxean edukitzea euskara erreztasuna ematen diete hitzegiteko orduan; etxeko guneak <aseguro> bezala funtzionatzen du, horrela, nahiz eta beste guneetan erdal mundu batean bizi ez dute euskara maila (hitzegiteko maila) galtzen praktika faltagatik etxean badutelako. Euskaradunen arteko jarrera hau ulertzen da ez diotelako euskarari hitzegiteaz gain besterik eskatzen.

Gune honek diskurtso honetan (bai Euskaltzale diskurtsoan ere ikusiko dugunez) garrantzi berezia du, ez bakarrik euskaradunen ikuspegitik erdaradunen ikuspegitik baita ere: gazte hauentzat etxeko gunean euskara edukitzea <erreztasun edo abantaila> bezala ikusten da euskara ikasteko orduan; hori dela eta, D ereduko en irudia familia euskaradunetara mugatzen da bereziki, euren arteko ezberdintasun sakona adieraziz (hau da, D eredukoek errezagotzen dute euskararen gaia etxean euskaradunak direlako eta eurak -A/Bkoak-, aldiz, ez):

"Yo creo que en nuestro caso importaba, yo creo que mucho, que nuestros padres no hablan en euskera, en casa yo por lo menos no hablo en euskera, yo si hablara en casa luego..." (5T, 47).

- **ESKOLA GUNEA**<sup>1</sup>.- Gune honetan gaztelania da harreman hizkuntza bakarra, hala ere, ezberdinduko ditugu A ereduan eta B ereduan daudenak, diskurtso berberan kokatu arren euren euskararekiko harremana ezberdina delako (hurbiltasun mota ezberdina da).

---

<sup>1</sup>ESKOLA gune honetan ertaineko maila bakarrik kontuan izan dugu, unibertsitateari atal berezia eskainiko diogulako.

## A EREDUKOAK

Euskara onartzen den ikasgai bat da, ingelesa bezalakoa. Euskara ikasgaia edukitzea bi arrazoigatik onartzen da: alde batetik, nortasun/hiritartasunagatik (Autonomi Elkartean bizitzeagatik) eta bestetik, ikuspegi pragmatiko bategatik, lana bilatzeko. Bi arrazoi hauen pisu berezia matizatu beharra dago: IT taldeko zati bat Kontrako diskurtsoan kokatzen da eta bere euskara ikasgaiarekiko jarrera agresiboari aurre egiteko bi arrazoi hauek adierazten dira (besteari erantzuteko). Baina, besteari aurre egiteko ematen diren arrazoiak norberanak eta norberari zuzenduak ere izatea ez da gauza berbera; gazte hauentzat bi arrazoi horiek balio dute kontrako jarrerari erantzuna emateko baina beraiekiko matizatu behar dira:

- Nortasun/hiritartasun arrazoia: nortasun-identifikazio sentimendua baino hiritartasun jarrera da agertzen dena, hots, bertako hizkuntza (edo hobe esanda, bertako <beste> hizkuntza) denez egokia da hezkuntza sistiman sartuta izatea; horren arabera A eredia onartzen dute eredu egoki bezala nahi duenarentzat. Ez daude arduratuta euskara mailagatik, balorapen positiboa ez da entusiasmaz adierazten, onarpen soilarekin baizik:

"A mí me gusta el idioma, o sea, el euskera, lo que es el idioma el euskera, me gusta aunque no lo sé hablar, pero me gusta y por eso no me importa" (1T,40).

— Lanaren gaia, balio pragmatikoa, nahiz eta beste posizioarekiko argumentu bezala erabili, oso argumentu motela da beraientzat; aurreko diskurtsoan bezala, BARRU (HEMEN)/KANPO (HAN) dikotomia agertzen da, non euskarak posizio ahulena duen:

\* BARRU (HEMEN) muturrean euskara oso mugatua dago lan publikoari (ia soilik) lotuta; lan publikoan eskatzea onartzen da hizkuntza bien ofizialtasuna kontuan hartuta, hau da, arrazoi politikoagatik. Hitzegitearen maila azpimarratzen da soilik, jendeari begira; idatzia ez da aipatzen:

"Tú estas en una sociedad bilingüe, castellano y euskera, y tu vas a una Kutxa tú tienes derecho a que te hablen tanto en euskera como en castellano, es lógico que en la Kutxa para dar mejor servicio al cliente pidan euskera y castellano, yo tampoco sé euskera ¡cuidado!" (8T, 21-22).

Esparru pribatuan beste hizkuntza batzuk (ingelesa, alemaniera) garrantzitsua-  
goak dira. Entrepresa mundua (pribatua) gaztelaniaren mundua da eta hau argi  
ikusten da lanbide heziketako (2T) taldean: talde honetan, besteetan bezala,  
euskararen garrantzia lan mundurako adierazten da baina horrekin batera ez  
dira arduratzen euren euskara maila eskasarekin geroari begira (2T,33); hau  
kontraesana badirudi ere ez da hori. Errealitateari begira, euren lan esparru  
berezia mundu pribatua denez, hor argi dute ingelesak euskarak baino  
garrantzi handiagoa duela; horrekin batera, praktika garaian ere ikusten dute  
zein den euskararen garrantzia: oso entrepresa gutxik eskatzen dute praktikak  
euskaraz (hau euskaradunen kexa bat da, ikusiko dugunez), horregatik,  
errealitate mailan ez daude arduratuta euren euskara maila eskasagatik (faktore  
hau ez delako, errealki, hain eraginkorra beraientzat):

"En la empresa pública, Diputación y eso, necesitas euskera. En otra,  
igual, en una empresa normal, igual, ven que tienes nivel de todo, te  
falta el euskera pero tienes un buen nivel de lo que necesitas, entonces  
dejan lo del euskera. Pero..., en la administración pública y eso..., el  
euskera es obligatorio, aquí" (2T,36).

\* KANPOAN (HAN): Autonomi Elkartetik kanpo gaztelaniak soilik hartzen  
du garrantzia; hor euskarak bere balio guztiak galtzen ditu (azken finean, ez  
dago nortasun sentimendurik), pragmatismo ikuspegitik ezin duelako konpetitu  
neurri berdinean beste hizkuntza batzuekin.

Gazte hauek A eredia onartzen dute eta ez dute aldaketarik eskatzen; euskararen  
ezagupena <zerbait hitzegin/ulertu> maila horretan kokatzen dute ez diotelako gehiago  
eskatzen hizkuntzari. Beste maila bat eskolatik kanpo bilatu behar da (euskaltegietan).  
Eskolako maila "para defenderte" da, hitzegiteko, aldiz, beste toki batera jo behar da  
(euskaltegira):

"si te hablan más o menos a entender y así de malas maneras a espresarte un  
poco, creo yo que se aprende en un colegio" (1bisT,28).

Euskararen irudia pragmatismotik eraikitzen denez, euskaraz ikasteari ez diote berezko abantailarik ikusten. Argumentu bat agertzen da kultura maila zabalagoa dela beste hizkuntza bat ezagutzea<sup>2</sup>:

"Es que una ventaja sí que es, es otro idioma más/ -hombre, sí pero..."  
(1T,41).

Baina taldeak ez du onartzen hori abantaila denik euskararen kasuan (lehenago adierazi dugunaren arabera, euskarak ez du balio pragmatikorik), beste hizkuntza batekin izan daiteken bezala. Hau esanguratsua da euskararen ospe gutxia adierazten duelako: beste hizkuntza bat ezagutzea kultura gehiago dela onartzen dute gazte hauek baina euskararen kasura heltzen direnean matizazioak sartzen dituzte, ez diotelako ez balio pragmatikorik ikusten eta kultura euskaraduna ez zaielako erakargarria ezta (ez dute ezagutzen eta ez dute ezagutzeko interesik). Euskararen balio bakarra banakako sentimenduen mailan kokatzen dute, bere ezagupenak eman dezaken <poza>.

Institutu mailako gazteentzat euskaraz ikasteak desabantaila bakar bat du eta da unibertsitateari begira: unibertsitatearen irudia gaztelaniaz agertzen da, hots, ikasketa denak edo gehienak gaztelaniaz daudela eta horren arabera euskaratik gaztelaniara igarotzea gogorra izango delakoan daude. Hala eta guztiz, badago jarrera berezi bat ez diotena garrantzirik ematen ikasketen hizkuntza aldaketari euskaradunak gaztelaniaz ere badakitelako: "normalmente el que sabe euskera sabe castellano" (1T,41). Gaztelania denez <normala> eta euskara <berezia> ez da beti errekonozitzen euskaradunen egoeraren ezaugarriak (ikusiko dugunez geroago). Alderantziz, gaztelaniaz ikasteari ez diote abantaila berezirik ikusten, baina euskararen kasuan agertzen den arrazoi ezberdinagatik: <normala> denez ez du arrazoirik behar; abantaila bakarra, euskararen alderantzizkoa: unibertsitatean hobeto moldatzea gaztelaniaz delako ere, hots, gaztelaniaren irudia -abantaila- malgutasunarena da,

---

<sup>2</sup>Askotan entzun ohi izan dugu euskararen alde egiten diren adierazpenetan argumentu hau: beste hizkuntza bat dela eta hori beti aberasgarria dela. Baina, gazte hauen jarreran ikusten dugunez, argumentu hau ez da oraindik baliagarria euskalzale mundutik kanpo dagoenarentzat; argumentu hori beste arrazoi batzuekin babestu behar da (gizarte ospea maila ezberdinetan, eta bereziki, pragmatikoan), gaur egun euskarak faltan dituen arrazoiak.

egoera ezberdinetan laguntzen dizun hizkuntza dela (euskara, aldiz, ez da egoera guztietarako, eta orduan, arazo gehiago sor dezake):

"Te mueves mejor en la universidad si estudias en castellano, ya sabes cómo va el rollo, sabes cómo coger esto, estudiar lo otro"(1T,44).

Lanbide heziketako gazteek ez diote ezta abantailarik ikusten euskaraz ikasteari, euren ikuspegi bakarra pragmatikoa denez. Entrepresetako praktikak ezagutzeak ziurtasuna ematen diete errealki zer gertatzen den ikusteko, hau da, kontestu horretan gaztelania da nagusi.

Euskaradunen artean badaude ere kexa batzuk euskara ikasgaia ikasteko orduan zailtasunak dituztelako; Batua ikasi behar dutenez, horrek esfortzua eskatzen die idatzi mailan bereziki eta euskararen kalitatea ez zaienez interesatzen, etxeko mailarekin konformatzen direnez, nolabait esfortzu horren saria ez dute ikusten.

## B EREDUKOAK

Gazte hauek gaur egun A eta D ereduan daude baina denak B eredutik datoz. Euren B eredia gaztelaniaz izan da, hau da, harreman hizkuntza -ikasgelakoa barne- gaztelania izan da (eta jarraitzen du izaten). Horrekin batera, euren hizkuntzarekiko kokapena bereizten dute bai A ereduak bai D ereduak: bi eredu horietatik erdibitarrean daude, hau da, A ereduak baino euskara gaitasun handiagoa dute baina D ereduak baino euskara gaitasun txikiagoa dute. Honek esan nahi du A ereduak baino hurbiltasun gehiago dutela euskararekiko; gaitasun gehiago dutenez euren burua A ereduarekiko distantzia batean mantentzen dute, euren badakite hitzegiten (nahiz oso ondo ez hitzegin), azken finean <betidanik> dakite euskaraz, eta A ereduak, aldiz, ez dakite ia ezer, interesik gabe ikusten dituzte euskararekiko:

"A mí el inglés será precioso pero si me hacen estudiar no me gusta y le pasará a la gente lo mismo con el euskera, que se lo hacen estudiar en vez de saberlo desde siempre" (5T,12).

Zentzu honetan, B eredu oso egokia ikusten dute euskara ikasteko arazorik gabe eta esfortzu gutxiarekin (A ereduaz ez dena egiten) txikitatik egiten duzulo:

"Si lo coges por costumbre ya no te cuesta, si hablas desde pequeño no te cuesta, pero si de repente te dicen que en tercero tienes que aprender a hablar euskera pues no, además que te cuesta un montón" (5T,37).

Beste aldetik, D eredukoek baino gaitasun txikiagoa dute euskaraz eta hori euren arteko harremanetan nabarmentzen da: B-koek ez dute euren burua ziur sentitzen Dkoekin hitzegin behar dutenean euskaraz eta horrek ere bere eragina du hizkuntza aldaketan, azkenean beti gaztelaniaz egiten dute:

"A mí lo que me ha influido mogollón, lo del modelo B, que te juntan a hablar con los del D y no sé te sientes inferior, o sea, con ellos hablábamos en castellano, en mi clase se supone que es de D y o sea hablábamos todos en castellano y ellos también al final, o sea, acaba todo el mundo hablando en castellano" (5T,6).

Aipamen honetan argi ikusten da zein garrantzitsua den hizkuntzaren eragina harreman inter-pertsonaletan; hizkuntza bat ez denean ondo menderatzen edo ziurtasunik ez dagoenean hizkuntza batean hitzegiterakoan sentimendu gutxitua sor daiteke, hots, bestearen eskuetan zauden sentimendua (azken finean, botere harremana) eta horrek hizkuntza horren aldaketara eramane dezake.

Gazte hauek, nahiz eta gaur egun A edo D ereduetan izan, ez dira (oraingoz behintzat) eredu horietakoak osorik sentitzen, distantziarekin hitzegiten dute eredu horietaz eta horietakoaz. Eredu bat ala bestea aukeratzeko orduan zein arrazoi adierazten diren interesatzen zaigu azaltzea:

— A eredu aukeratu dutenak bi oinarrizko arrazoi aipatzen dituzte:

1.- Ziurtasun handiagoa gaztelaniaz ikasketak jarraitzeko orduan; horrekin batera, ziurtasun (=lasaitasun/erosotasun) handiagoa gaztelaniaz hedatutako harremanetan.

2.- Euskara, ikasgai bihurtuta, erraza zaie aurrera eramateko orduan (< ikasgai bat gutxiago >).

Bi arrazoi hauen artean, biak garrantzitsuak izanik, azpimarratuko genuke lehenengoa, ondorio sakonagoak dituelako, gure ustez. Euskararekiko < ziurtasun eza > da aipatzen dena eta gainera bi maila ezberdinetan baina biak sendo lotuta daudenak: alde batetik, hizkuntza gaitasun ezaren sentimendua agertzen da ikasketak gainditzeko euskaraz:

"Yo cuando pasé de 8º a BUP me cambié a línea A para tener mayor seguridad porque igual sí hubiera podido hacerlo pero prefería hacerlo en castellano porque estaba acostumbrada al castellano y me cambié, y en euskera pues muy bien porque como tenía buena base pues ahora en euskera me va muy bien" (5T,9).

Erreztasun gehiago dutenez gaztelaniaz, ondorio zuzenena da A eredura igarotzea, gainera, euskara < ikasgai > biurtzea ez die inolako zalantzarik sortzen, alderantziz, A ereduari sartuta, Akoekiko ezberdinketa estrategia bat da gaitasun handiagoa dutelako (argi dute beraiek ez direla A ereduak oso-osorik).

Beste aldetik, hizkuntza gaitasun falta bezain garrantzitsua (agian, garrantzitsuagoa), euskarari lotuta agertzen den komunikazio gaitasun ezaren sentimendua da: hau oso eraginkorra da hiztunen arteko harremanak bideratzeko hizkuntzaren aukeraketaren prozesuan. Komunikazio gaitasunak bere komunikazio estrategiak bideratzen ditu baina subjektuen (hiztunen) arteko harremanak ez dira inoiz harreman orekatuak, iherarkikoak baizik; hori kontuan izanda, B ereduaren artean ziurtasun falta hitzegiteko orduan D ereduarekiko gutxiagoak sentitzea dakar: "pues ellos saben mucho más euskera que tú y para expresarte y así, cogí castellano, sin más" (5T,10). Jarrera hau Akoekin gertatzen zaien kontrakoa da: batzuekiko (Akoekiko) sentitzen duten ezberdintasuna beraien aldeko plusa da - euskara mailarekin ez dute arazorik, gehiago dakite-, baina besteekiko (Dkoekiko) sentitzen duten ezberdintasuna beraien kontrakoa sentitzen dute, gutxituak sentitzen dira, besteek gaitasun osoagoa dutelako euskaraz. Zentzu honetan, B ereduari egoteak badirudi ez diela

ziurtasun berezia eman euskararekiko<sup>3</sup>, alderantziz, ziurtasun falta nabaria agertzen da eta, gainera, D ereduarekiko lotura gutxiegia; B eredia gaztelaniaz bizi izan dute eta D eredura igarotzea beste mundu batean sartzea da (-euskaraz bizi- munduan); bi mundu horien artean ez dago zubi sendorik ziurtasun eza gainditzeko, eta sentimendu hori gainditzea ezinbestekoa da. Honako aipamen hau adierazgarria da:

"Pues que te acostumbras desde pequeño ya, entonces si haces toda la vida en castellano pues ya sabes lo que te espera y si haces toda la vida en euskera pues ya dominas el euskera pero si estas en B pues no sabes muy bien cómo va a ser D, si vas a tener muchas dificultades de hablar todo en euskera o si haces todo en castellano pues bueno vas a aprender euskera y..." (5T,14).

Bi mundu ezberdinen tartean daude eta batek ematen dien ziurtasuna -gaztelaniaz- besteak ez die ematen -euskaraz-: gaztelaniaz bizi izatetik euskaraz bizi izatera igarotzeak lotura gehiago behar ditu D ereduarekin, hurbiltasun gehiago ziurtasuna sendotzeko.

B ereduaren irudia bikoitza agertzen da, aurrekoari lotuta:

- Alde batetik, <transizio ereduaren> irudia du, hau da, D eredia izango litzateke bere irteera naturala; irudi hau gatazkatsua da, <inposizio> bezala ikusten bait da (azken finean, eurak ez dute aukera hori nahi izan):

"No es como en el cole, en el cole cuando salimos de 8º a la gente sí que le animaban mogollón <hacer en euskera, no sé qué>, la gente, me acuerdo de que una amiga mía se iba a ir a modelo A y ¡bua! joe, le agobiaron mogollón porque, pero aquí en el insti es distinto" (5T,9).

- Beste aldetik, <eredu autonomoaren> irudia du, hots, gazte hauek une batean eredu aukera bat egin behar izan dute eta, nahiz eta egin duten aukeran gustora egon, nolabait, aukera hori geroago izatea gustatuko litzaieke; B eredia luzatzea UBIrarte desio bezala agertzen da. Desio honek izkututzen duena zera da, beraiantzat B eredia

---

<sup>3</sup>Ezin dugu ahantzi B eredu <mota> askotako ikastetxeak daudela: batzuk A eredura hurbiltzen dira gehiago eta beste batzuk D eredura gehiago. Gazte hauen kasua lehenengoko egoerara hurbiltzen dela esan genezake beraien deskribapenagatik (azken finean, B eredia <gaztelaniaz> bizi izan dute).



A eredia bezalakoa dela (gaztelaniaz hitzegiten zuten ia beti) ezaugarri positibo batekin, euskara maila Akoek baino altuagoa dutela; horren arabera, A eredian ez dute ezer asko irabazi eta bai zerbaite galdu -euskara maila-: B eredia komodoa zaie gaztelaniaz hitzegiten zutelako eta aldi berean euskarazko maila bat lortzen zuten (nahiz eta ez izan hitzegiteko maila nahikoa); horrela, hizkuntza biak lortzen dituzte nahiz eta maila ezberdinetan: gaztelania osorik eta euskara erdi maila batean (Akoek baino gehiago, Dkoek baino gutxiago), hitzegiteko arazoekin. Hala ere, gaitasun desoreka hau ez die bereziki arduratzen, beraientzat <oreka> da, eta azken finean, A eredian baino euskara maila hobetagoa izango dute:

"Por qué se va a perder uno y el otro no, yo creo que lo mejor sería que, es que por eso decíamos antes lo de la línea B, porque era eso, lo que decía, el equilibrio, que más o menos sabes si sigues en ese modelo de enseñanza bilingüe pues tienes las dos cosas controladas casi igual" (5T,47).

Euskara maila galduko dutela asमितzen dute. Euskara ikasgaia euren maila baino baxuagoa da eta horrek ematen dieten erreztasuna beste aldetik maila bera galtzea dakar. Galtze prozesu honen aurrean bi jarrera agertzen dira: gazte batzuei ez zaie larregi inporta euskara maila galtzea, aukera bat egin dute eta abantaila gehiago ikusten diote aukera honi nahiz eta euskara maila galdu; beste batzuei, aldiz, inporta zaie daukaten maila galtzea, nahiz eta hori ez izan arrazoi nahikoa beste eredia aukeratzeko (instituto batek kasu hauetarako eskolatik kanpoko euskaltegia antolatzen du; bertako ikasleek joateko asmotan daude, nahiz eta ez oso pozik larunbat goiz osoa delako).

#### D EREDUKOAK

- Gaur egun D eredian daudenak arrazoi bat bakarria aipatzen dute aukeraketa prozesuan: euskara maila ez galtzea. Ez da hainbeste euskaraz jarraitzea edo bizitzea, zentzu sinboliko batean, hots, ez da hainbeste afirmazio baten ondorioa, negazio batena baizik: hizkuntza maila ez galdu:

"Yo me pasó porque tú cuando estas en línea B sabes perfectamente euskera, lo que te falta es hablar, no te sueltas a hablar y normalmente hablas en

euskaraz ikasteak gaztelaniaren gaitasuna galtzea dakarrela (azken finean, etxean nahiz kalean gaztelaniaz bizi dira). Beste aldetik, euskara ikasgai bihurtzea abantaila bat izan liteke baina epe motz batean soilik; epe erdi batera desabantaila da euskara maila galdu egiten delako eta errez ikasi/lortu dena galtzea ez dute abantaila bezala ikusten.

Dkoek euskaraz ikastearen bi oinarrizko abantaila aipatzen dituzte:

\* Bata, antolaketari begira, talde txikiak direla eta horrek eragina du irakaskuntzaren kalitatean: talde txikiek kalitate hobea eta banakako atentzioa ahalbidetzen dute: "y así aprendes más" (5T,17).

\* Bestea, hizkuntzari begira, euskararen maila sendotzen dela, horrela, esfortzu gutxi batekin euskara maila ona lortzen da (bereziki, hitzegiteko maila): "que avanzas (en euskera)" (5T,17).

\* Hirugarren abantaila aipatzen da, baina, gazte hauek ez dute abantaila erreala edo hurbila bezala ikusten (potentziala edo teorikoa, bai) azken hau: lanaren inguruan kokatzen dena, hau da, euskaraz gaitasuna izanda lana errezagoko bilatzeko posibilitatea dago (esanguratsua da, abantaila mota hau aipatzen duena Euskalazale diskurtsoan kokatzen dela bereziki):

"Además, yo creo que ahora para buscar trabajo por aquí y todo eso ya te exigen euskera, entonces tienes una ayuda más, ¿no? sabiendo euskera y eso" (5T,17).

A ereduok ez dute zalantzan jartzen lehenengo arrazoi biak, baina, ez diete garrantzirik ematen D ereduak aukeratzeko; alde batetik, talde txikiagoak izatea ez zaie hainbeste inporta eta bestetik, euskara maila sendotzea interesgarria izan daiteke baina euren euskara mailaren ziurtasun ezean A ereduan gelditzen dira ondorio guztiekin batera. Hirugarren arrazoiarekin ez datoz bat eta interesgarria da taldearen jarrera: lehenengo ixiltasuna dago adierazpen horren aurrean (agian, potentzialki ados daude horrela dela nahiz errealki ez ikusi oso hurbil; hala ere, desabantaila izango litzateke beraiantzat), gero jarrera defentsiboa agertzen da abantaila potentzial horren aurrean, A eredutik distantzia hartuz: eurak A ereduan daude baina ez dira A ereduok oso-osoan B ereduok baizik, horrek esan

nahi du ez dutela A ereduoen maila eskasa, beraien euskara maila erdiko da eta horren arabera hurbilago daude lanaren egoera horri aurre egiteko:

"Claro, eso sí, pero a ésta por ejemplo le dan un trabajo y tiene que hablar en euskera y fijo que te soltabas otra vez porque ahora ya, pero alguien de A no podría" (5T,18).

### ETORKIZUN HURBILA: UNIBERTSITATEA ETA LAN MUNDUA.

**UNIBERTSITATEA.-** Unibertsitateari begira jarrera ezberdina dago A eta D ereduatan dauden artean. Gaztelaniaz ikasten daudenak ez dute zalantzarik euren ikasketa hizkuntza gaztelania izango dela, euskaraz ez dute gaitasunik eta:

"Yo no sé qué carrera voy a hacer pero creo que seguiré en A, lo que pasa es que seguiría yendo a una academia de euskera o haciendo algo para mantener, es que en D si la carrera ya me parece..." (5T,29).

D ereduaren daudenak, aldiz, iritzi ezberdinak dituzte: batzuk, euskaraz jarraituko dute < ikasketa ohituragatik >, beste batzuk, aldiz, zalantzan daude ez dakitela zer egingo duten. Zalantza honen azpian bi eragile daude biak elkarloturik: bata, karrera mota eta bestea lanari buruzko perspektiba, hau da, gazte hauek ikuspegi pragmatikoa dute unibertsitateari begira, azken finean, ikasketa mota hori lanaren mundutik hurbilago dago eta. Euskarari ikasketa mota batzuk lotzen dizkiote, nolabait, lanari begira euskara lagungarria izango delakoan: funtzionari, magisteritza, kazetaritza, Euskal Filologia aipatzen dira. Beste ikasketa batzuk, bereziki zuzenbidea edo medikuntza (MIR azterketa aipatzen da, gaztelaniaz dena), aldiz, gaztelaniari lotzen diote. Ikusten denez, gizartean euskararen normalkuntzak betetzen ari duen esparruak eragina du unibertsitateko euskal adarreko ikasketei garrantzia emateko orduan (irakaskuntza, administrazioa eta komunikazio entresak); bestelako esparruak -mundu pribatuarenak bereziki- gaztelaniarenak dira, hots, hobe gaztelaniaz ikasi:

"Según el trabajo que quieras hacer luego, si esperas tener un despacho o algo así, si quieres trabajar en algo de eso hay muchos más en castellano que en euskera" (5T,29).

Nahiz eta D ereduaren egon gazte hauek euskararekiko ikuspegi sinbolikorik ez dute,

beraien ikuspegia pragmatikoa da eta hori horrela izanda, unibertsitateko ikasketak ez dituzte zuzenean lotzen ertaineko hizkuntza ereduarekin, haustura bat dago ertaineko eta goi mailako ikasketen artean eta haustura horren ardatza lan merkatuarekiko espektatibetan kokatzen da eta kontestu horretan gaur egun gaztelaniaren nagusitasunak zalantzan jartzen du, gazte hauen artean, hizkuntza ereduaren jarraipena, ez dagoenez, gainera, beste motatako harremanik euskararekiko, hots, sinbolikoak.

### ZUBI-IKASTAROARI BURUZKO JARRERA (A EREDUKOEN ARTEAN).

Lehenengo eta behin esan behar dugu gai hau bi taldeetan sartu duela ikertzaileak, 5T eta 6T taldeetan (A ereduan daudenei gaur egun, Btik etorriak) helburu berezi batekin: nola ikusten duten beste ikasketa maila batera igarotzerakoan hizkuntza eredu aldatzeko zubi-ikastaro bat egitearen ideia (nolabait, hizkuntza ereduaren aldaketa bermatzeko posibilitateak) esploratzea. Honi buruz bi jarrera oso ezberdinak agertu dira: alde batetik, jarrera ezkorra (5T) eta beste batetik, jarrera baikorra (6T). Ezberdintasun hau bi arrazoiengatik dela uste dugu:

- **Lehenengoa:** talde bien kontestua oso ezberdina da, bata institutu mundukoa da (5T) eta bestea lanbide heziketa mundukoa (6T); bi kontestu horietan ikasketen antolaketa ezberdina da, alde batetik, institutu munduan D eredu osatua dago (gazte hauek A eredu aukeratu dute) eta, horrez gain, institutu munduan zubi-ikastaroak urrunago ikusten dira (ez da normalki erabiltzen den antolaketa mota bat); lanbide heziketan, alderantziz, D eredu osatu gabe dago, eta horrekin batera, hurbilago ikusten da horrelako ikastaro mota bat, ezagutzen dutelako antolaketa berezi hori euren esparruan ( BBBtik L.H.rako < curso de adaptación > aipatzen da).

- **Bigarrena:** gazte hauek bi diskurtso ezberdinetan kokatzen dira, 5T taldekoak Indiferentzia diskurtsoan, hots, ez dago euskararekiko harreman berezirik -sinboliko-rik-; 6T taldekoak, aldiz, Euskalzale diskurtsoan kokatzen dira, hots, euskararekiko harreman sinbolikoak hedatzen dituen diskurtsoan. Honen arabera, euskararekiko jarrera eta inplikazio mota ezberdinak izanik, talde bietan gai honi buruz ezberdintasunak agertu dira.

Atal honetan 5T taldeko jarrera azalduko dugu 6T taldearena geroago sakonduko dugularik (Euskalzale diskurtsoa azaltzen dugunean).

Zubi-ikastaroa beste mailako (goi mailako) ikasketei lotuta doa, gazte hauek euskal adarrera hurbiltzeko helburuarekin. Bi hitzetan esanda, ez da argi ikusten ez helburu bera ezta antolaketa mota:

- Ez diote interesik ikusten unibertsitatean euskaraz ikasteari, ez interes berezirik ezta beharrik ere; euskarara aldatzea goi maila horretan, lan merkatuari begira, ez die ezer ematen: "Eso (zubi-ikastaroa) sería para uno o para dos que dijeran <¡ostras! pues he hecho mal, me vendría mejor en euskera>" (5T,34).

Euren ikuspegia pragmatikoa denez, euskararen balioa dimentsio horretatik neurtzen dute: "Que no merezca la pena no (euskaraz ikastea), que no te sirve" (5T,34).

Bi arrazoi agertzen dira erakargarriak izan ditezkenak hizkuntza eredu aldatzeko: euskal adarrean ikasle kopurua txikiagoa denez, atentzio handiagoa nahiz ikasketa pertsonalatuagoa izan daiteke. Hala ere, <kalitatezko> bi arrazoi hauek ez dira kontuan hartzen, ez dira nahiko erakargarriak kontrazko beste arrazoiak gainditzeko.

Institutuan hizkuntza ereduaren aukera posible izan dute eta aukera hori egin dute, horregatik beste aldaketa bati ez diote zentzurik ikusten:

"Yo en euskera no me tomaría la molestia. Es que ya he elegido, si hubiese querido hacer pues hubiese seguido, hubiese sido el mismo esfuerzo que no haciendo ahora lo que estoy haciendo y luego otra cosa más, que ya no compensa" (5T,32).

- Zubi-ikastaroaren irudia ez dute ondo ulertzen, urruna egiten zaie. <Barnetegia> aipatzen dute konkretuagoa edo hurbilagoa zaielako. Ikastaro honen helburua euskara maila ber-lortzea izango litzateke eta beraien euskara maila mintzaira mailan eskasagoa denez, horretarako barnetegiak ematen duten aukera egokia da, horrez gain, udan direnez ez da kurtso denborarik galtzen:

"Con eso te vas el verano anterior a un barnetegi y ya lo recuperas todo, si ya lo has sabido enseguida lo coges" (5T,31).

Ikusten denez, gazte hauek ez diote zentzurik ikusten horrelako ikastaro bati, bereziki euren aukera egin dutelako bere garaian (institutuan). Gainera, unibertsitatean euskarara bueltatzeak ez ditu elementu erakargarririk: ez balio pragmatikorik ez balio sinbolikorik, orduan, nolabait, denbora galtzea izango litzateke.

**LAN-MUNDUA.-** Lanari buruz posizio berbera hedatzen da A eta D eredu-tako gazteetan; euskarak balio mugatua du bi aldetatik:

- Bata, Euskadi (Elkarte Autonomia) barruan, balio mugatua du, bereziki enpresa publikoetan eskatzen delako; besteetan, arlo pribatuan, gaztelania da nagusi.

- Bestea, BARRUAN/KANPOAN dikotomia gazte hauetan ere agertzen da. Dikotomia horretan euskarak galtzen du mutur bakar batean kokatzen delako eta bertan era mugatuan (BARRUAN); gaztelania, aldiz, bi muturretan kokatzen da, barruaz gain kanpoan ere hizkuntza baliagarria da (Espainia mailan). Euskarak ez duenez beste ezaugarri sinbolikorik pragmatikotasunean galtzaile gertatzen da gaztelaniarekiko. Dikotomia honetan euskararen posizioa mugatzailea agertzen da, hots, gazte hauentzat euskaraz ikasteak badirudi gaztelania <galtzea> dakarrela (nahiz eta argumentazio hau ez izan esplizittoa) eta horren ondorioz hobe da gaztelaniaz ikastea. D eredu-an daudenak une batean zalantzan jartzen dute argumentazio hori euren gaur egungoaren arabera (euskaraz ikasten ari dira), baina, azkenean onartzen dute inplizitoki, geroari begira (unibertsitateari) argumentazio honek pisu berezia hartzen du eta (azaldu dugunez). Esan dezakegu gazte hauek ez dutela dikotomia hau gaingaitzen euskararen alde ez dutelako sartzeko ezaugarri sinbolikorik. Euskarak, gaur egun, balio pragmatiko gutxi duenez galtzaile gertatzen da lehian sartzeko beste hizkuntza zabalagoekin (edo egoera sendoagorekin, gaztelania izan edo ingelesa).

## A/D EREDUKOEN ARTEKO HARREMANAK.

Interesgarria deritzogu eredu bietakoen arteko harremanak azaltzea, azken finean, gune berezi batean kokatu arren gero azalduko dugun harreman zabalagoen ( Kaleko euskaradun/erdaradun harremanak) islada delako. Eskola barruan eredu biak oso ezberdinak agertzen dira; gazte hauen kasuan, Bkoak izanik, euren buruaren kokapena D eredutik bereizten dute eta A eredutik gertuago kokatzen dira. Ereduen arteko haustura honelakoa da: A-B // D, hau da, gaztelaniaren mundua eta euskararen mundua: A-B koak "españolitos" eta "los castellanos" ziren Dkoentzat, Dkoak, berriz, "los vascos" A/Bkoentzat. Gazte hauek gaur egun ez daude B ereduari, A eta D ereduetan baizik, baina, hala ere, euren burua A eredutik gertuago ikusten dute ez A ereduari daudenak soilik, D ereduari daudenak ere bai. Distantzia mantentzen dute Dkoekiko (gaur egun Dn daudenak barne), bi ezaugarri definitzen dituztelarik: < itxiak > eta < politizatuak > dira (inplizitoki ulertzen da, beraiek < irekiak > eta < ez-politizatuak > direla). Badirudi Dkoekin, orokorrean, harreman gutxi dutela:

"Suelen ser bastante cerrados y es eso, que también les da, que a veces les da cosa relacionarse con los de A porque les ven como españolitos" (5T,22).

Dkoen irudi honek euskararekin zerikusi handia du, eransten dieten bi ezaugarri horiek euskararekiko duten harreman ezberdinak eragiten duelako: alde batetik, Dkoek euskara eta euskal nortasuna elkarlotzen dituzte eta horren arabera euskaraz hitzegitea aldarrikatzen dute (gazte hauek egiten ez dutena):

"Pero la gente también les obligan a hablar en euskera, les tienen muy metido en la cabeza que tienen que hablar en euskera porque son vascos y porque siempre tienen que hablar en euskera, y a veces yo sé que en el instituto fue un tío a decirles, a darles una charla que siempre tenían que hablar en euskera y así, están super orgullosos y quieren hacerlo en euskera" (5T,20).

Beste aldetik, ikasketetan Dkoek eta gazte hauek (A/D) jarrera ezberdina dute hizkuntzarekiko: Dkoek euskarari garrantzi handia ematen diotenez, dena euskaraz egitea nahi dute eta zerbait gaztelaniaz baldin bada ez dute onartzen; gazte hauek (berezi Dn daudenak), aldiz, gaztelaniaz eman behar badute zerbait onartzen dute:

"Me tienen que juntar con los de A y claro a mí me dan las clases en

castellano y no se me ha pasado por la cabeza armarles una bronca en el instituto por eso, y hay gente en mi clase, en la de D, que sí que lo haría" (5T,20).

Euskararen inguruan zerbait egitea edo esijitzea, gazte hauentzat <politika edo itxikeria> da, beraientzat <normala> gaztelania delako eta euskarari ez diotelako horrelako garrantzirik ematen. Orduan, Dkoekiko ezberdintasuna horretan datza, Dkoek (matizatzen dute Dko denak ere ez direla, gutxi batzuk baizik; hala ere, irudi orokorra istilutsuak direla da) euskara "instrumento político" gisa erabiltzen dute eta beraien arteko diferentzia honela adierazten dute:

"Es que tú a lo mejor hablas euskera, no, porque te gusta, no lo hablas pensando pues si hablo euskera voy a ser más vasco que los demás" (eta Dko askok, aldiz, bai) (5T,21).

Ikusten denez, ezberdintasun honen azpian euskararen irudi ezberdina dago: A/B----euskara/banakako dimentsiokoa/bigarren hizkuntza eta D-----euskara/gizarte dimentsioa/lehenengo hizkuntza. Zentzu honetan, adierazgarria da unibertsitateari buruz egiten duten adierazpena: une batean, unibertsitatean B ereduak jarraitzea aipatzen da, ez delako eredu aukerarik egin behar horrela; aipamen honen inguruko adierazpen bakarra zalantza bezala agertzen da D ereduokiko: "pero los de línea D quieren darlo todo en euskera" (5T,19). Ez dago Akoekiko zalantzarik, inplizitoki argi geratzen delako Akoek euskaraz ez dakitela eta gaztelaniaz egin behar dutela, hau da, nolabait, hizkuntza ereduaren irudia bi adarretan banatuko litzateke, bata, gaztelaniaz eta bestea, elebiduna, azken honetan suposatzen da Dkoak ere sartuko liratekela. Galdera da: zergatik Dkoen aipamen soila eta ez Akoena ere, denak eredu elebidunean sartzeko?. Euskaraz ikastea ez dute gaizki ikusten, azpian dagoena hori baino arriskutsuagoa da, gure ustez, hizkuntzarentzat: <borondate oneko asimilazioa>, hau da, denak <normaltasunean> ibiltzeko multzo berean ibili beharra eta horrek dakarrena da, nolabait, normaltasunetik kanpo dagoenaren hurbilketaren beharra: kasu honetan, normaltasuna gaztelania da, horregatik ez dira A ereduok aipatu (ez dakite B eredura igarotzeko euskara nahiko eta ez dute egoera hori zalantzan jartzen); normaltasunetik kanpo euskara dago, D ereduok badakite euskaraz eta gaztelaniaz, orduan, elebidun ikasketetan sartzeko arazorik ez dute. Honek ez du esan nahi D ereduak desagertzea nahi dutenik



(alderantziz, onartzen dute eredu hori), esan nahi duena zera da: ez diotela garrantzi berezirik ematen euskaraz ikasteari eta euskaraz bizitzeari.

Beste ezberdintasun bat dago A eta D ereduko artean: euskarazko lerroan euskaraz diren ekitaldi bereziak dituzte (trikitixa, ipuinak, ekitaldiak, antzerkia) Akoek ez dituztenak. Ekintza hauek gogokoak dira Dkoentzat (relajatzan direlako eta, bereziki, klaseak galtzen dituztelako); An daudenak baztertuta bezala sentitzen dira baina ez euskaraz den zerbait galtzen dutelako (nahiz eta ekitaldiak gustokoak izan), klaseak ez dituztelako galtzen baizik (bigarren arrazoi hau lehenengoa baino askoz ere pisutsuagoa da). Egoera hori kexa gisa adierazten dute A ereduan daudenak beraiek ez dutelako posibilitate hori; gogor kexatzen dira: "privilegio", "clasificando", "discriminando" hitzak erabiliz. <Distintzio> bezala ikusten dute bereizketa hori (jarrera hau Btik An daudenekoa dela; A taldean aipatu ere ez da egin gai hau askoz ere urrunago zaielako: ez dakite euskaraz eta ez dute interesik ezta):

"Por cualquier cosa que sea en euskera pues ya hay una actividad ahí, entonces, los de euskera tienen el privilegio ése de que van a cualquier cosa que se haga, salidas, conciertos" (5T,23).

Hala eta guztiz, taldeko Dkoek ez daude oso ados jarrera horrekin, azken finean, ekitaldi gehienak euskaraz eta gaztelaniaz egiten direlako. Akoek erantzuten dute euskarazkoek denetara joaten direla bai euskarazkoetara bai gaztelaniazkoetara eta horri <diskriminazioa> deitzen diote:

"es que nunca ha habido una actividad a la que sólo puedan ir los de castellano" (5T,24).

Jarrera hau sintonian dator aurrekoan azaldu dugunarekin. Hori argi geratzen da, euskal lerrokoek hizkuntza biak dakitela aipatzen denean: hizkuntza biak jakinda, zentzuzkoa da ekitaldi mota bietara joan ahal izatea; Akoek ez dute hori zentzuzkoa denik ikusten (<pribilejioa> baizik) eta taldea ez da gai horretan sartzen, alderantziz, aipatzen da betiko Akoek ere euskara entzutera ohitu behar direla (horrela, elebidun izatearen <abantaila> aipatu izan denean -inplizitoki-, gazte hauek ez dute abantaila bezala ikusten, bereizketa bezala baizik, nahiz eta eurak elebidun lerrotik etorriak izan). Interesgarria izango litzateke, egoera honi buelta ematea, hau da, gazte hauek negatiboa ikusten dutena -bereizketa-,

positiboa bihurtu -elebidun izateak probetxua dakar (ekitaldi ezberdinak ikustea)-. Ekitaldi bereziak euskaraz izatearen arrazoiak galdetzen zaienean gazte hauek gai hori alde batera uzten dute, euskararekiko duten atxikimendua inplikazio gabekoa delako (horregatik kokatzen dira Indiferentzia diskurtso honetan); gai honen inguruan dagoen aipamen bakarra adierazgarria da: hirugarren pertsonan eginda -inplikaziorik gabe- eta sendotasun gutxikoa, hots, eurenak baino <besteen> arrazoiak adierazten du (eurak ez dutelako arrazoirik):

"Es que también quieren fomentar mogollón el euskera porque se supone que es, o sea, que es sistema castellano, que hay más influencia y todas las actividades las hacen pues eso para euskera" (5T,23).

- **KALEKO GUNEA.**- Gune hau hiri gunea da, hots, gazte hauek Donostian mugitzen dira bereziki (nahiz eta beste aldameneko herrietara ere joan: Orereta, Oiartzun...). Hirian, elkartzen diren leku konkrituak daude, bi aipatzen dira bereziki: Alde Zaharra eta Zona (zentroko kale batzuk), biak oso ezaugarri ezberdinak dituztelarik orokorrean: Alde Zaharra mota denetariko gazteei lotuta doa eta Zona, aldiz, <pijoei> lotuta (nahiz eta taldeetan azpimarratu denetarik dagoela alde bietan). Gazte hauen eguneroko kalea bi esparruetan bana dezakegu: alde batetik, betebeharra (dendak, erakunde ofizialak, serbitzuak) eta bestetik, aisialdia (tabernak, diskoteka, kirola). Gazte hauen eguneroko kalea gaztelaniaz da; betebeharraren esparruak gaztelaniaz dira, dendak eta serbitzuak batez ere. Esparru horietan, gainera, ez dute onartzen bestearen erantzuna euskaraz: beraiek gaztelaniaz hitzegiten badute besteari hizkuntza berbera erabiltzea esijitzen diote:

"Por ejemplo, vas a una tienda y te hablan en euskera y digo <¿qué?>, entiendes o no entiendes y te vuelven a hablar en euskera, no, a mí es que me repatea. Por ejemplo, preguntar en castellano y contestar en euskera" (2T,24).

Euskarazko erantzuna <probokazio> gisakoa zaie; honen azpian, euskararen kaleko legitimazio falta dago, Donostian euskara ez dagoelako agirian, hots, euskara ez da <ikusten> <gutxiengoarena> delako. Horregatik, <normala> gaztelania da, <gehien-goarena> delako, azken finean, Donostia "hiria" delako eta, beti dagoelako "euskara ez dakien norbait" (2T,27). Euskara agerian ez dagoen heinean errazago zaie hizkuntzaren gaia alde batera uztea, hala ere, euren egunerokoan euskara agerian gelditzen da esparru batzuetan

eta hor gazte hauek errekonozitzen dute beste hizkuntza ere hor dagoela. Bi motatako esparruak dira: bata, erakunde ofizialak, non "normalmente todo lo que va relacionado con la diputación, el ayuntamiento y todo eso todos saben euskera" (1T,51).; bestea, alde zaharreko tabernak non euskaraz bereziki entzuten den. Euskararen agiritasunak, hurbiltasunak, berarekiko onarpena zuzpertzten du, hau da, gazte hauek euskara agirian dagoen leku batera (taberna, adibidez) sartzen baldin badira <ezberdinak> sentitzen dira gaztelaniaz hitzegiten, ez dira beste gazte euskaldunak bezalakoak sentitzen eta jarrera hau horrela adierazten dute:

"Entras y dices <¿cómo voy a hablar en castellano?>, zurito bat y ya está / En la barra igual está la gente hablando euskera y dices bajas la voz y hablas en castellano" (2T,28).

Esparru hauez gain, gazte hauek euskara profil mota batzuekin erlazionatzen dute: < ikastolakoekin >, < herrietakoekin > eta < borroka/radikalekin >. Hau oso adierazgarria da euren euskararen irudia azaltzeko orduan: alde batetik, ikastolakoak bereziki erlazionatzerakoan euskararekin beste motatako eskolak (pribatu nahiz publiko) bigarren mailan uzten dituzte hizkuntzaren gaian (irudi hau orokorra izan da ikerketaren talde denetan: ikastola doa euskarari nabarmenki lotuta); bestetik, hiria/herria dikotomia (ikerketaren talde denetan agertzen da ere) hizkuntzaren kontzeptua banatzen du: euskara herriekin eta gaztelania hiriekin, honela, euskara hiriko normaltasunatik urruntzen da; gainera, herrikoekin lotzen denean, bereziki, baserrikoekin lotzen da, hots, nekazal kutsua gordetzen duen heinean hiri kutsua galtzen du (edo, hobe esanda, hiri kutsurik ez du lortzen); azkenengo, eta aurrekoarekin lotuta, hirian euskaraz egiten dutenak < borroka-radikal > tribu urbanoarekin lotzen dute, hau da, hizkuntza dimentsio politikoarekin elkarlotzen dutenekin; honek esan nahi du, tribu urbano horretan ez baduzu etiketatzerik nahi ezin duzula sistematikoki euskaraz egin, bestela, etiketa hori duzu (hau euskararentzat ez da egokia, tribu urbano berezi bateko ikurra biurtzen delako, orduan, tribu horretan ez direnak kokatzen edota kokatu nahi ez dutenak hortik aldentzeko euskara -beste ikur batzuren artean- alde batera utziko dute).

Kaleko harreman sare garrantzitsuena gazte hauen egunerokoan koadrila da; koadrilarekin igarotzen dira aisialdiko ordu gehienak. Koadrilan euskaradunak eta erdaradunak elkartzen direnez hizkuntza amankomuna aukeratzen da hitzegiteko (gaztelania).

Argi bereizten dute adiskidetasuna eta hizkuntza, hau da, adiskidetasuna beste edozein balore baino garrantzitsuagoa da, orduan, ez da onartzen lagun batek hizkuntza sartzeari harreman horretan (harremana haustuko luke):

"Es que con los que andas suelen ser amigos tuyos y si son amigos de verdad no te van a decir si no hablas euskera no ando o si hablas castellano no ando contigo" (1bisT,44).

Euskaraz hitzegiteko gai ez direnez (gaur egun Dn daudenak ezik) gaztelania da beraien komunikazio hizkuntza eta hori aldarrikatzen dute (une batzutan agresiboki). Ez da onartzen lagunak hizkuntzaren inguruan sartzeari, hots, <inposizio> gisa ikusiko lukete euskara bakoitzaren aukera delako, borondatezkoa gainera; ez diote garrantzirik ematen hizkuntza batean ala bestean hitzegi beraientzat berdina delako (berdina da gaztelaniaz egiten den heinean, noski).

### EUSKARAREN ETORKIZUNA.

Hizkuntza baten etorkizunaren irudian berarekiko atxikimendu eta harremana nabarmentzen dira. Diskurtso honetan kokatzen diren gazteak bi ikuspegi ezberdinak dituzte euskararen etorkizunaren inguruan:

- Ikuspegi baikorra: geroa, etorkizuna, ona izango da euskararentzat. Etorkizun positibo hori mintzaira mailarekin eta eskolarekin (ikastola bereziki) erlazionatzen dute:

"Yo te digo que a uno que sabe euskera le gusta hablar en euskera, van a ikastolas que aprendan euskera" (1T,60).

A taldean hizkuntza hitzegitea dela galdu behar ez dena eta hori galtzen baldin bada euskara galduta dagoela aipatzen denean, beldur hori gainditu egiten da, baina, ez gazte hauen inplikazioagatik, besteekiko erreferentziagatik -inplikazioagatik- baizik (azken hauek ikastolakoak eta etxea euskaradunak dutenak dira): "siempre hay alguien que lo habla" (1T,60). Btik etorritako taldean, aldiz, etorkizuna elebidunagoa izango dela aipatzen da. Gaztelania galdu gabe, euskararen ezagupen maila zabalagoa izango da:

"Igual hacer la situación más bilingüe de lo que está ahora, pues como puede ser en Canadá que se habla en yo no sé qué zona, en Québec, que hablan

francés e inglés los dos idiomas, todo el mundo sabe hablar inglés perfectamente y francés perfectamente" (5t,47).

Hori lortzeko eskola eta etxea aipatzen dute eragile funtsezko bezala. Eskola, eragile formala -ikasketa prozesua-, eta familia, eragile informala -mintzaira erreztasuna-, konplementatzen diren heinean etorkizuna hobetuz izango da euskararentzat (etxeko euskara falta nabarmentzen dute euren euskararen erreztasun faltan -mintzairan bereziki).

- Ikuspegi ezkorra: etorkizuna oraina bezalakoa ikusten dute. Ikuspegi honen azpian dagoen arrazoia zera da: gaur egun euskara ez dakiten (eta ikasten ez duten) asko daude -A eredukoak- eta horren arabera geroa ezin izango da asko aldatu:

"En la gente que tiene mi edad tampoco, cuando llegas a esa edad ya es difícil que aprendas si no quieres tú, si no te preocupas por ello, o sea, alguien de mi clase que no haya estado en euskera, ahora ya ése no va a aprender euskera a no ser que se lo proponga" (5T,45).

Ikusten denez, etorkizuna gune bati (edo biri) lotuta doa, eskolari eta etxeari, bereziki lehenengoari; eskolaren euskararekiko harremana ikastolak bereganatzen du (nahiz eta publikoan ere D eredua izan). Beste gunea, kalea, baztertuta gelditzen da gazte hauen geroko irudian; hirugarren gune hau ahozko interakzioaren (mintzairaren) gunea da eta hor euskara bermatzea askoz ere zailagoa da banakako borondatea sartzen delako:

"Pero te puedes proponer tú hablar en euskera, pero no se lo puedes imponer a nadie ¿no?" (5T,49).


Beste aldetik, <euskararen belaunaldia> umeak edo gaztetxoak dira, hau da, etorkizuneko gazteak; eurak gaur egungo gazte bezala <zaharrak> dira euskararentzat ez eskolan ezta etxean ez dutelako hizkuntza lortu izan (eskolatik kanpo ikasteak, geroago ikusiko dugunez, denbora eta esfortzu handia daramatza).

Gazte hauen hizkuntzaren, eta bereziki, euskararen irudia talde batean agertzen den aipamenak kondensatzen du: "Cada uno que hable como quiera, como sea feliz" (1bisT,68). Ondo adierazten du geroago azalduko dugun euskararekiko inplikaziogabeko posizio hau.

## 5.2.- Hizkuntzaren gizarte izaera.

### 5.2.1.- Hizkuntzaren funtzioak.

Hizkuntzak betetzen duen/dituen funtzioak bere gizarte izaeraren islada dira, horregatik, interesgarria zaigu bere azalpena. Diskurtso honetan euskara eta gaztelania aurreko diskurtsoan agertzen zuten beste posizio bat agertzen dute:



- **JATORRIZKO FUNTZIOA:** funtzio hau komunitate esparrura mugatzen da, nolabait, etxeko, familiako, hizkuntza da. Diskurtso honetan kokatzen diren gazteentzat funtzio hau bi hizkuntzak betetzen dute: erdaradunentzat gaztelaniak eta euskaradunentzat euskarak. Hizkuntza bati funtzio hau betetzea suposatzen dio etxeko gunea bereganatzea, eta hau oso garrantzitsua da hizkuntza baten transmisioan. Gazte hauek, ikusi dugunez, garrantzi handia ematen diote familiarterako erabilerari, horrek erretzen duelako hizkuntzaren ezagupen/erabilera. Inplikazioari eman diogun atalean azalduko dugu euskararekiko zein ondorio duen jarrera honek gazte hauengan.

- **FUNTZIO MITIKOIA:** funtzio hau hizkuntza sakratuarena da. Nolabait, ospea bereganatzen duen hizkuntzak betetzen du (ospe historikoa, gaurkoa...). Gaztelaniak, funtzio hau betetzen du bere <zabaltasunaren> irudiagatik (ia ate guztiak irekitzen ditu, nolabait esateko, mugagabea da): lanaren esparrua dela, komunikazio (hiztunen kopurua) esparrua, etab. Gaztelania hizkuntza mitikoa da bere transmisioko funtzioagatik nabarmenki (horrez gain, bere ezaugarri pragmatikoengatik), hots, azken funtzio honek eranstean dio bere ezaugarri mitikoa. Euskarak, aldiz, funtzio mitiko mugatua du. Honekin zera esan nahi dugu: euskararen ezaugarri mitikoa bere <berezitasunak> eranstean diola. Gazte hauentzat,

euskararen jatorri ezezagunak gehi bere berezitasun morfologikoak osatzen dute euskararen dimentsio mitikoa; gaztelaniarekin gertatzen ez den bezala, euskarak funtzio mitikoa betetzen du jatorrizko funtzioagatik bereziki, hots, azken honek eransten dizkio funtzio honen ezaugarriak.

- **TRANSMISIOKO FUNTZIOA.**: Transmisioko hizkuntza, bete betean, gaztelania da, honek esan nahi du, berau dela hizkuntza amankomuna eta, horren arabera, komunikazio hizkuntza bera dela. Euskarak transmisioko hizkuntza izateko oztopoak ditu, bereziki, hiritar denek ezagutzen ez dutelako. Gazte hauentzat, lehenengo hizkuntza, denek dakitena, gaztelania da; euskara, aldiz, bigarren hizkuntza da, hots, batzuk bakarrik dakitena (eta horregatik ezin ahal duena izan komunikazio hizkuntza, hots, funtzio hau osotasunean bete). Funtzio hau da kaleko guneko funtzio berezia, hau da, gizarte esparru eta gizarte interakzioak betetzen dituen, horregatik bere garrantzia hizkuntza batek betetzeko ahalik eta osotasun zabalenean bere normalkuntza aurrera eramateko. Gazte hauen egunerokoa gaztelaniaz izateaz gain, euren euskara eta gaztelaniaren gizarte onarpena ezberdinak dira:

- Gaztelania hiri hizkuntza da, komunikazio hizkuntza nagusia (lanerako, goi mailako ikasketetarako, erosketetarako...), hau da, euren eguneroko interakzioaren hizkuntza. Kaleko guneko hizkuntza legitimoa da (denek dakitelako).

- Euskarari, aldiz, bi legitimitate ezberdinak onartzen dizkiote:

\* Bata, hirikoa, non euskarari ez dioten komunikazio legitimitaterik onartzen, denek ez dutelako ezagutzen. Hiria ez da euskararen <toki naturala> gutxik dakitelako, horregatik, ez dute onartzen transmisioko funtzio hau berak betetzea hiri mailan. Euskara erabiltzen dutenei komunikazio hizkuntza bezala hiri mailan "gente cerrada" (1T,67) eta "sector político" (HB ingurukoa) (2T,23) deitzen diote, hots, etiketa mugatzaileak. Euskara transmisioko hizkuntza izateko hiri mailan hiru kontzeptuk mugatzen dute: < edukazioa >, < errespetoa > eta < komunikazioa >, hau da, gizarte interakzioa aurrera eramateko eta ez mozteko hizkuntza amankomuna behar da, bestela, baztertze mekanismoa hedatuko litzateke.

\* Bestea, herrikoa, hots, herrietan euskara elementu < normala > da, nolabait esateko, herriak (nekazal ezaugarria) dira euskararen < toki naturala >, horren

arabera, kontestu horretan euskarari komunikazio legitimitate osoa ematen diote:

"Por ejemplo, te vas a un pueblo que está super perdido y que es super pequeño y que sólo hablan euskera, no te vas a poner a hablar en castellano, si quieres conocer gente allí tendrás que hablar euskera" (1T,68).

Bereiztasun hau murriztailea da euskararentzat: bere hiztunak, hiritik aldentuz, herri/baserri ingurura mugatzen ditu eta. Horrez gain, gazte hauen egunerokoari zentzua eransten dio: alde batetik, euren eguneroko erdaraduna < normala >, legitimoa biurtzen du; bestetik, eguneroko euskaraduna legitimoa biurtzen du beraientzat egunerokoa ez den kontestuetan soilik, hots, ez die arazorik sortzen ez delako euren egunerokotasuna salbuespena baizik (azken finean, euskaradun kontestu horietara gutxitan joaten dira eta ez zaie asko interesatzen: baserri giroa da eta).

Euskararen transmisioko funtzioa ez dute gaztelaniarena bezala ulertzen. Azken honek betetzen du funtzio hau bere osotasunean, hots, hizkuntza erregistro ezberdinen gaitasuna eta erabilera egoera ezberdinetan (egoera formalak nahiz informalak). Euskararen transmisioko funtzioa, aldiz, ez dute erlazionatzen gaitasun oso batekin, bi < gaitasun > motekin baizik: herrietan, euskaraz egiten den heinean, zerbait hitzegiteko gai izatearekin ("chapurrear", "hacerte entender"); hirian, besteari, euskaradunari, ulertzeko gai izatea, hau da, hirian ez da hainbeste norberak hitzegitea (komunikazio hizkuntza gaztelania da eta), besteari ulertzea baizik:

"Yo si sé euskera no es para hablar sólo en euskera, es para la gente que habla en euskera para que no tengan que hablar en castellano y para entendernos" (1T,70).

Ez da bilatzen euskararen gaitasun osoa edo zabala, egoera batzuei erantzuna ematea baizik; egoera hauek, egunerokoan, ulertze mailakoak dira, hots, euskaradunei ez dietela ulertzen (bereziki, betidanik A ereduan egon direnak; B eredutik etorritakoak ulertze maila badute). Mintzaira maila, egunerokoan, ez da kontuan hartzen, azken finean, bestek gaztelaniaz baldin badaki (eta beti daki, euskaradunak elebidunak direlako) hizkuntza amankomuna erabiliko dutelako; horrekin batera, salbuespenetan (herrietan) mintzaira maila minimoa edukitzea interakzioa burutzeko. Horregatik, B ereduan ikasi eta gero A eredia aukeratu dutenak ez dira larregi arduratzen euskara maila galduko dutelako, azken finean,



alfabetazio osoa ez dutelako bilatzen, mintzaira minimoa baizik. Zentzu honetan, honako aipamena, luzea izan arren, adierazgarria da:

"Yo ahora que estoy en A ya es que cambiarme a D se me haría... O sea, yo ahora puedo seguir en A y tengo un nivel de euskera que no es muy alto pero que bueno que yo creo que con eso basta, y que entiendo, en castellano me va bastante bien y sé euskera decentemente, yo creo que ahora despues de COU en el caso de que fuese a la universidad no creo que hiciese en euskera, bueno no haría en euskera porque no puedo, yo creo que no podría, no estaría a la altura porque hubiese perdido en esos años, sé que voy a perder euskera" (5T,30).

Beste alde batetik, lanari begira, onartzen dute euskararen transmisioko funtzioa zerbitzu/erakunde mailatan, baina, ikuspegi batetik soilik: bezeroari erantzuna emateko, hau da, mintzaira mailan; beste laneko mailak (idatzia, harremanak...) gaztelaniarekin erlazionatzen dute bereziki, horregatik, ez dira arduratzen euskararen gaitasunaz arlo horretan.

- **ERREFERENTZIA FUNTZIOA.:** Funtzio hau kultura munduari lotuta doa. Kultura kontzeptua zentzu zabalean ulertuta (literatura -iraganekoa eta gaurkoa-, tradizioak -dantzak, festak-, musika, bertsolaritza, ohiturak...). Zentzu honetan, gaztelaniak betetzen du funtzio hau osorik, hots, gazte hauen erreferentzia mundua gaztelaniaz da. Kultura euskaraduna ez zaie bereziki interesatzen, gainera, ezagutu ere ez dute ezagutzen: A eredukoek ez dute gaitasunik ulertzeko eta B eredutik etorri direnak, maila hobetagoa duten arren -bereziki D ereduan daudenak-, ez dute interes berezirik agertzen (rock euskaraz eta bertsolaritza dira aipatuak: batzuei gustatzen zaie eta beste batzuei ez). Euskara, hizkuntza, kulturari lotzen zaio oso era murriztuan: EUSKARA = GRAMATIKA/ADITZAK (hots, Transmisioko hizkuntza soilik) VS EUSKARA = KULTURA (ohiturak, tradizioak, bizimodua..., hots, erreferentzia funtzioa). Azken finean, 1T taldean (1T,69-70) ondo ikusten da euskarari, hizkuntza bezala, mintzaira/ulermen minimoa eskatzen diotela transmisioko funtzioa, maila batean, bete ahal izateko. Alderantziz, ez diote garrantzirik ematen euskararen kultura dimentsioari, ez behintzat kultura bizimodu bezala ulertuta: kultura euskaraduna banakako kontsumokoa da, hots, <ezagutu> (eta ez <bizi>) ahal daiteken arloa. Honela, kultura euskaraduna gizartearen -egunerokoaren- arlo autonomoa da,

<ezagutu/bizi> dikotomian lehenengo poloan kokatzen dena:

"Si quieres conocer la cultura sí, si no te preocupa tampoco tienes muchos problemas por no saber euskera" (5T,44).

Adierazgarria da gertatu izan dena unibertsitarien (A ereduaren) taldean. Ikertzaileak galdetzen duenean zer gertatzen den edo zer egin daitekeen interesatuta bazaude <cultura euskaldun> -a ezagutzeko Donostian, taldearen jarrera argigarria da: alde batetik, <cultura euskaldun> kontzeptua murrizten dute, ze <aprender euskera> -ren sinonimo bezala hartzen dute (bere zentzua badu, nolabait, kultura berezi hori ezagutzeko euren lehenengo pausua hizkuntza ezagutzea izan beharko litzatekelako), baina, hala ere, kontzeptuaren murrizketa bat dago. Bestetik, defentsa mekanismo bat sortzen da konfusio bat dagoelako, <cultura euskaldun>, kasu honetan, <cultura vasca> bezala ulertzen dute, orduan, saiatzen dira bereizten kultura (eurentzat, gainera, bi hizkuntzezkoa dena; garrantzitsuagoa gaztelaniazkoa) eta hizkuntza (euskara, kasu honetan, kultura horren zati bat dena eta ez garrantzitsuena). Lehenago azaldu dugun bezala, kultura euskaraduna cultura euskaldunaren azpi-multzo bezala ikusten da, eta interes gutxiko azpi-multzoa, gainera:

"Y luego, es que hay que separar un poco cultura euskaldun y euskera. Yo no sé euskera y me siento de aquí, a mí eso nadie me lo va a discutir (-claro, claro), quiero decir que es el día a día, la cultura euskaldun será lo que vivimos todos aquí pero que no tienes que ir buscándola ahí, ¡ah, voy a buscar cultura euskaldun! (barreak) (8T,55).

Aipamenean ondo ikusten denez, kultura kontzeptua bizimoduari lotuta doanean gaztelaniak betetzen du horrek behar duen hizkuntza funtzioa eta ez euskarak. Horrez gain, aipatzekoa da, gure ustez, gaztelaniaz gertatzen den (ez kasu honetan soilik) terminoen konfusioa, adibidez, euskaldun eta vasco sinonimotzat jotzen badira, beste termino batekin deitu beharko diogu euskaraz dakien euskaldun-vascoari (guk, euskaradun deitu diogu analisiaren beharragatik), ez estetika arazo bategatik, baizik eta bestela, aipamenean ondo ikusten denez, konfusioak agertzen direlako eta sinonimia joku horietan euskarak galtzen du bere nortasun/presentzia gaztelaniaren alde, azken hau indartsuagoa delako.

Orain arte azaldu dugunaren arabera, diskurtso honetan kokatzen diren gazteentzat,

gaztelania da gizarte hizkuntza nagusi eta indartsua; euskara, aldiz, komunitate -pribatu- arloan murgilduta gelditzen da. Honen arabera, gizarte/banakako ardatzean gaztelania gizarte muturrean kokatzen da eta euskara, aldiz, komunitate muturrean.

Gazte hauek nortasun kolektiboa ez dute euskararekin erlazionatzen, <vasco> izateak ez dakar berarekin euskara jakitea. Euskarak borondatezko aukera izan behar du, hau da, banakako mailako aukera; bestelakoak, derrigortasunak, ezin ikusiak ekar lituzkelako.

### **5.2.2.- Euskaradunen/erdaradunen arteko harremanak.**

Eskola mailan eredu araberako ezberdintasunak (etiketak) agertzen diren bezala, kale mailan beste egoera bat gertatzen da, hots, Donostiako kalean gaztelania da nagusi eta gazte hauek lasai bizi dute euren egunerokotasuna euskararik gabe gaztelaniaz. Koadrila da kaleko, aisialdiko, harreman sare garrantzitsuena eta bertan hizkuntza amankomuna erabiltzen da denetarik dagoelako (euskaradunak, erdaradunak...) eta, gainera, erdaradunak gehiengo direlako. Gazte hauek, egoera hau ez dute <aukera> bezala ikusten, hau da, bi hizkuntza daudenez bata ala bestea aukera daiteke komunikazio hizkuntza gisa; alderantziz, euskara ez dutenez menderatzen ezin da euren aukera erreala izan, horregatik, gaztelania da beraientzat komunikazio hizkuntza bakarra. <Komunikazioa> aldarrikatzen dute beste edozein gauzaz gain eta hori gaztelaniaz soilik lor dezakete. Euskararen aukera ez dute ez erreala ezta potentziala ikusten ere; ikertzaileak sartzen duenean <euskaradunekiko errespetoa> ez dute kontzeptu hori ez ulertzen ezta onartzen: euskaradunak elebidunak direnez gehienetan -hirian behintzat- bi hizkuntzatan hitzegiteko aukera dute (beraiek ez dutena):

"Es que ellos saben euskera y castellano. Una persona que sólo sabe castellano no es por no respetar, es que no lo sabes hablar" (2T,33).

Ikuspegi honek zentzua du euskaradunei buruz duten irudia ikusita. Banakako mailan kokatzen dute euskara eta berarekin batera euskaraduna, hau da, euskara eta euskaradunen eskubidea banakakoa da, ez kolektiboa edo gizartekoa; euskaradunen irudi kolektiborik ez dutenez, ez dute ikusten <errespetu> kontzeptu horren zentzua. Euskaraduna izatea banakako mailakoa denez, euskaradunen eta erdaradunen interakzioan <edukazioa>, eta <komunikazioa> dira azpimarratzen diren elementuak, hau da, hizkuntza bakarra dakienarekiko <errespetoa> eta ez alderantzizkoa. Ikuspegi honetatik, interakzio mailan euskaraduna

-elebiduna- <galdu> egiten da erdaradunaren -elebakarraren- alde, eta hori da gazte hauek legitimotzat jotzen dutena.

Honekin batera <borondate oneko asimilazioa> deitu duguna gertatzen da: gazte hauek, euskaradunen <diferentzia> onartzen dute (hots, euskara dakitela), baina, banakako ezaugarri gisa onartzen dute, orduan, euskaradunen eta erdaradunen arteko integrazioa (<berdintasun> bezala ulertua) da bilatzen dutena; ez dute kontuan hartzen, <berdintasun> horrek euskaraduna eta euskara irensten dituela. Adierazgarria da unibertsitarien taldeko aipamen hau:

"En pedagogía el fallo que tiene, para mí personalmente, bueno, fallo, unas personas querrán seguramente dar las clases en euskera, pero a mí me da pena que en una clase esté castellano y en otra euskera, a mí eso me dió muchísima rabia, pero claro yo no soy capaz de estudiar en euskera, me hubiera encantado tomar contacto con gente que habla euskera, gente que habla en no sé cuantos, o sea, más mezclados, esta separación de euskera y de castellano no me gusta" (8T,18).

Ikusten denez, hizkuntza ereduen bereizketa - euskal adarra egotea- <murriztailea> ikusten da ikasleen arteko harremanekiko; harreman hauek zabalagoak izango lirateke ez balira eredu ezberdinak egongo, hau da, azken finean, denak gaztelaniaz ikasiko balute. Honek ez du esan gura euskal adarra ez denik onartzen; euskal adarra onartzen da euskaraz ikasteko eskubidea onartzen delako, baina, integrazioaren ideia hor dago eta ezberdintasunak onartu beharrean berdintasunak bilatzen dira. <Borondate oneko asimilazioaren> mekanismoa euskararekiko arriskutsua da, euskararen -eta euskaradunaren- banakako legitimitatea onarturik, gizarte legitimitatea baztertzen duelako <komunikazio>, <errespetu> osagarriak erabiliz. Hau arriskutsuagoa da euskararen normalkuntzarentzat honi erantzutea edo aurre egitea kontrako diskurtso bati baino zailagoa delako, integrazioaren izenean ezberdina berdintzen duelako, hots, gehiengoak gutxiengoa irensten du berdintasuna aldarrikatuz. Horregatik, koadrila batean denak euskaradunak badira eta bat bakarra erdaraduna, gaztelaniaz egitea onartzen dute, "no le vas a marginar a la chavala" (5T,60); ikertzaileak galdetzen duenean ikasi dezakela barreak daude, ez dute uste ikasiko duenik esfortzu handiegia delako eta "además que tampoco es malo que los otros hablen en

castellano" (5T,60).

Hirian, euren egunerokoan, euskara ez dago agerian, hau da, lasai ibil daitezke euskara jakin gabe. Euskaradunen eta erdaradunen artean ez dago <gatazkarik> euskaradunak gaztelaniaz egiten dutelako, eta gazte hauek euskaradunen jarrera hau <normaltzat> jotzen dute errespetoaren arabera. Hiriko gazte euskaradunek ez dute legitimaziorik euskaraz egiteko erdaradunen aurrean interakzioa apurtuko litzatekelako eta elebidunak direlako (euskaraz egin dezakete baina euskaradunen artean); ez dituzte onartzen hori egiten dutenak eta ezaugarri negatiboz definitzen dituzte: ez dira <lagun onak> edota ezaugarri <erradikala> dute (HB eta JARRAI aipatzen dira). Euskaradunen euskaraz egiteko legitimitate bakarra herrietan (eta baserrietan, bereziki) kokatzen dute. Euskaradunaren irudia baserriari loturik doa, betiko estereotipoa osatzen delarik (baserritarra, gaztelaniaz gaizki dakiena, nolabait, kultura gutxikoa eta modernitategabekoa). Kontestu horretan soilik euskararen erabilerari bere legitimitatea onartzen diote, baina, ez da kontestu erakargarria beraientzat:

"pero ¿quién sale con una caserota?, un caserote, no te jode, a ver quién es aquí caserote (barreak)" (1bisT,64).

Nahiz eta eguneroko harremanetan gatazkarik ez izan denak gaztelaniaz egiten dutelako, horrek ez du esan nahi ez daudenik arazorik euskaradunen eta erdaradunen artean. Gazte hauek kexa bat agertzen dute euskaradunekiko, hauek euskara <bereizketa elementu> gisa erabiltzen dutela: erdaradunen aurrean daudenean euskaraz egiten dute eta gero bakarrik daudenean gaztelaniaz. Jarrera hau onartezina zaie, nolabait, <gutxiagotuak> sentitzen dira ez dutelako ulertzen edo ez direlako lasai sentitzen. Jarrera hau dela eta, euskaradunak legitimazioa galtzen dute euskaraz hitzegiteko nahiari buruz; nahi hori benetazkoa izango balitz beti egingo lukete euskaraz eta ez soilik euren aurrean bereizteko:

"si normalmente entre ellos hablaban en castellano, si porque es a nada que llegue alguien de fuera, para realzar el euskera, luego cuando están entre ellos hablan en castellano" (1T,32).

Ageriko gatazka ez baldin bada ere, maila sakon batean gatazkaren elementuak daude; euskaradunekiko errespetoa ez dute onartzen euskaradunak elebidunak direlako eta eurak ez,

gainera, jarrera agresiboa ere sortzen da gai honen inguruan:

"El que no te está respetando es él, te está diciendo que eres menos que él, que eres tonto y no sabes euskera, que si quieres tener algo, o sea se considera como superior, que si quieres hablar con él pues aprende euskera que si no..." (1T,73).

Aipamena oso adierazgarria da, errespeto kontzeptua ez delako ulertzen eta ulertzen dena zentzu desorekatu batean ulertzen da, hau da, euren kontra den zerbait, eurak gutxiezteko (azken finean, elebakarrak dira) jarrera eta ez eskubide baten posibilitatea (eurak inplikatu daitezken posibilitadea).

Euskaradunen eta erdaradunen arteko harremanetan euskara oztopo bat da gazte hauentzat (gaitasun gutxi edo batere ez dutelako); oztopo praktikoa eta teorikoa (bere gizarte legitimitatea mugatua delako). Euskarak zailtasunak soilik sortzen ditu euren harremanetan, horregatik, gazte hiritar elebidunari ez diote onarpenik ematen euskaraz egiteko euren inguruan -inposizioa izango litzateke- hiriko hizkuntza <normala> eta nagusia gaztelania delako. Gazte herritar/baserrikoari, aldiz, bai onartzen diotela euskararen erabilera bere elebitasuna edo gaztelaniaren gaitasuna ez delako ziurtzat jotzen (horrek kulturagabeko irudia sortarazten du, batere erakargarritasunik gabekoa):

"Vas a un caserío que hablan solamente euskera y tú sabes euskera y castellano, hablarás en euskera no hablarás en castellano, es lo mismo. Lo que decíamos del respeto, que tenías que hablar en euskera si te están hablando en euskera. Si tú sabes castellano y euskera, si solamente sabe hablar en euskera le vas a contestar en euskera no en castellano" (2T,34).

Beste euskaraz erantzutea legitimoztat jotzen dute, nolabait, euskararen kokapenean daudenean (horrekin batera, besteak gaztelaniaz ez badaki edo gaizki hitzegiten badu); hala ere, beraiek ez dira elebidunak, orduan, nahiz eta onartu jarrera hori, praktikan ezingo lukete aurrera eraman ez dakitelako euskaraz (horrek ez die arduratzen, herriko/baserriko egoera hori salbuespena delako beraien bizimoduan). Hori berbera, hirian, ez dute onartzen bestea beti elebiduna delako, orduan, euskaraz nahiz gaztelaniaz egin dezakelako. Arazoa sor liteke hiritar beste horrek ez badu euskaraz bezain ondo gaztelaniaz egiten, ze, orduan, euskaraz

egiteko legitimitatea izango luke:

"Pero es que a ellas no les costará mucho hablar en castellano, si les costara..., mucho pues hablarían en euskera" (5T,60).

Aipamen honek adierazten duena interesgarria da, bide bat irekitzen duelako euskaradunen gizarte izaera legitimatzeko, hots, gaztelaniaz erreztasun gutxiago izatea; baina, horrek behar duena da gazte euskaradunen kale guneko euskararen eguneroko erabilera eta hori gaur egun ez da gertatzen; horregatik, gazte hauek, erdaradunak direnak, hiriko egoera ezagutzen dutenez, ez dira arduratzen euskaraz gaitasunik ez dutelako.

Hirian euskara ez dago agerian eta agerian dagoenean bi ezaugarri negatiboekin agertzen da: bata, politikari lotuta (bereziki ezker abertzaleari lotuta eta intolerantziatz definituta) eta bestea < edukazio >, < errespetu > ezari lotuta. Irudi hau haustea komenigarria da euskararentzat, bere erabilerarako oztopoa delako: talde bateko ikur berezia izatea mugatzailea da hizkuntzarentzat talde horrekin identifikatzen ez direnak hizkuntza bera ere alde batera utziko dutelako; horrez gain, banakako maila soilik bereganatzea gizarte edo kolektibo mailako beharrak ez ikustea eta ez onartzea dakar. Hirian, egunerokoan, euskaradun batek euskara ikas dezatela adieraztea gatazkatsua, da, jarrera agresiboa agertzen dute: euskara ikastea banakako erabakia denez, ez diote inori (ez lagunei ez nobioari...) uzten horren aipamenik egiterik. Motibazioa bultzatzea ezin da esplizittoa izan (edo ez soilik behintzat), inplizittoa baizik, hots, inguruko egoeran euskararen ageritasunak banakako aukera bultzatzea:

"Lo que puede pasar también es que tú, por ti mismo, al tener un novio que hable euskera dices, hombre, qué guay, venga, voy a aprender euskera para hablar con mi novio en euskera. Pero no que te diga el novio aprende euskera porque quiero que hables euskera" (2T,32).

### **5.2.3.- Euskararekiko inplikazio maila.**

Gazte hauen euskararekiko inplikazio maila < arduragabekoa > dela definitu dugu, honekin zera esan nahi da, gazte hauen euskararekiko harremana ez dela negatiboa -positiboa baizik- baina zentzu < eroso > batean, hots, arazorik edo lanik gabe eurentzat. Euskara

onartzen dute baina ez badie oztopo edo arazo berezirik sortzen. Inplikazio kontzeptuan bi maila bereiztu ditugu:

— Inplikazio ideologikoa: ideologikoki euskarari onartzen zaio leku bat gizarte mailan nahiz eta mugatua izan. Honek esan nahi du kontrako diskurtsoan kokatzen diren gazteak baino pausu bat gehiago ematen dutela euskararekiko, bi zentzutan, herri/hiri dikotomiaren bidez: alde batetik, herriko/baserriko jendeak euskaraz du bere egunerokotasuna (hirian gaztelaniaz den bezala) eta hori horrela dela onartzen dute, horregatik, egunerokotasun hori <errespetatu> behar da; horrela, kontestu horretan, euskara maila minimoa izatea (<chapurrear>, <hacerte entender>) onartzen dute kontestu berezi horietarako (euren egunerokotasuna ez dutenak arriskuan jartzen). Beste aldetik, jarrera honen beste aldea hau da: hirian egunerokotasuna gaztelaniaz denez, hori ere euskaradunek errespetatu behar dute, orduan, hirian ez zaie interesatzen bereziki hitzegiteko maila, ulertzekoa baizik, hau da, euskaradunei euren artean euskaraz hitzegiten ari direnean ulertzeko gai izatea. Euskararekiko inplikazio ideologikoa bi alde hauetatik datorkie: hitzegiteko maila minimoa (herrietarako) eta ulerpen maila (hirirako).

— Inplikazio praktikoa: Diskurtso honetan ez dago inplikazio praktikorik euskararekiko. Inplikazio ideologikoa, maila batean behintzat, baldin badago, gero hori gauzatzeko, ez dute beste pausu bat ematen. Gazte hauek ez dira euskararekin inplikatzeko ez <gazte> bezala: galdetzen zaienean euskarak gazteekin zerikusirik duen beste belaunaldiarekin lotzen dute hizkuntza, "todo lo contrario, es de generaciones para atrás" (2T,25); ez <guraso> (geroari begira) bezala: ez dute garrantzizkoa ikusten eurak euskara jakitea euren seme-alabak euskalduntzeko; hori eskolari erantzen dioten funtzioa da, "eso da igual, en el colegio puede aprender euskera y tú no saber. eso no tiene que ser un impedimento, que le tengas que enseñar a tus hijos" (2T,32). Salbuespen bezala, aipatu, gaur egun D ereduaren dagoen batek (Btik etorria) garrantzia ematen diola bere etxean (etorkizunean) euskara jakiteari umeak euskalduntzeko orduan.



sintonian; bien arteko ezberdintasuna azpimarratzen dutenaren inguruan datza: batzuentzat, euskarak ez du arazo berezirik, gizarte mailan ere badituelako hainbat tresna bere alde, bereziki kazetaritza/komunikazio esparruan:

"yo pienso que no es un problema. Tienes tele en euskera, radio en euskera, revistas en euskera, periódicos en euskera y ya suelen poner anuncios y todo, más no creo que puedas hacer" (5T,48).

Horren arabera, euskarak eskolaz gain badu beste gizarte esparru batzuk bereganatuta, orduan, ez dago beste ezer egiterik; horregatik, ez datoz bat euskara <gaizki> dagoela esaten dutenekin motibazio politikoak daudela azpian uste dutelako, "sí, cuando se dice eso es por los intereses de quien lo dice" (5T,50). Politika eta hizkuntza aipatzen direnean, beti mundu abertzalea bereizten da eta bereziki ezker abertzaleko esparrua (ezaugarri negatiboz osatuta: erradikaltasuna, biolentzia...). Erabilera falta aipatzen denean, hori banakakoa, borondatezko mailakoa denez ez dute onartzen ezer egin daitekenik norberaren aukera ez bada, "pero eso (erabilera) ya luego es personal" (5T,48). Ikusten denez, gizarte mailan dagoena onartzen dute baina elementu bat azpimarratzen dute: dagoena badago, besterik (hots, inplikazio praktikoari dagokiona: ikasketa/erabilera) ezin liteke egin ez bada borondatezko mailan, bestela, inposizioa izango litzateke eta. Beste batzuk, aldiz, azpimarratzen dute erabilera falta bereziki eta horren arabera erabilera bermatzea aipatzen dute:

"Meterte en asociaciones y eso del euskera, pero con que te propongas hablar en euskera y hagas hablar a los que están alrededor tuyo ya basta" (5T,48).

Galdetzen zaienean zein elkarte motetan ez dute ezer konkreturik erantzuten, orokorrean baizik, "euskaltegi y así, fiestas de euskera y cosas de éstas" (5T,48). Erabilera azpimarratzen duten arren, ez dago inplikazio praktikorik adierazpen horietan, nolabait, inplikazio ideologiko mailakoa da; honek esan nahi du, posibilitate potentzialak adierazten dituztela eta ez errealak, alde batetik, ez dutelako (gaur egun D ereduan daudenak ezik) erabilera gaitasunik, eta bestetik, ez dutelako arrazoirik, euren egunerokoan, hizkuntza aldaketarako, egoerak ez dielako <behartzen> .

Euskararen etorkizuna positiboa ikusi arren (lehenago azaldu dugunez), ez da euren inplikazio praktikoagatik; euskararen etorkizuna eskolaren eraginagatik dator bereziki.

Inplikazio praktikoa gauzatzeko, gazte hauek euskararen ikasketa prozesua aurrera eramane behar dute (Akoek ezagupena/erabilera eta Btik datozenak erabilera sendotzeko) eta horretarako, eskolak eman ez diena euskaltegiak eman beharko lieke; baina, horretarako, esfortzua eta denbora behar dute. Euskara ikastea eskolatik kanpo oso urrun ikusten dute (bereziki Akoek; B eredutik etorriak hurbilago ikusten dute) zailtasun handia delako esfortzuagatik eta denboragatik. Egoerak -lanak, harremanak...- ez badie derrigortzen edo bultzatzen, hots, euskararen beharra ez badute sentitzen ez dute pausu hori emango. Pausu hau emateko, euskararen <beharra> ikustea ezinbestekoa da: euskara <agerian> eta <hurbil> sentitzea oso garrantzitsua da; hau, bereziki, bi esparruetan nabari da: bata, lanerako beharrezkoa ikustea zentzu errealean (euskara esparru zabalagora murgiltzea; adibidez, lanbide heziketakoez praktiketan ere euskararen presentzia -ageritasuna- ikustea); bestea, harremanetan, euskaradunen presentzia hurbila, hots, euskaraz hitzegiteko ohitura agerikoa izatea erdaradunen aurrean hauek konturatu daitezkeen hizkuntza aldaketaren zailtasunaz; horrela, euskaradunak beraien hizkuntzaren legitimitatea sendotzen dute transmisioa euskaraz ere betetzeko. Diskurtso honetan kokatzen diren gazteak ez dute nortasun sentimendurik euskararekiko, euren ikuspegia pragmatikoa da, baina, horrekin batera, onartzen dute euskaradunek euskaraz hitzegitea (nahiz eta eurekin, elebakarrak direnez, gaztelaniaz egitea eskatu) eta, nolabait, euskararen hurbiltasuna -ageritasuna- sentitzen duten heinean euskararen <beharra> sendoago sentituko dute; horrela, talde batean aipatzen da:

"Si la mayoría habla en euskera y tú tienes interés por aprenderlo" (1T,48).

Hau da, bi eragile aipatzen dira euskararen <beharra> areagotzen dutenak: bata, euskararen -ageritasuna- hurbiltasuna eta bestea norberaren erabakia izatea (banakako maila hor dago: euskara ikastea/erabiltzea banakako aukera izan behar du, bestela, inposizioa izango litzateke eta hori ez dute onartzen). Azken finean, eragile biak konplementarioak dira: euskararen hurbiltasunak (harremanetan bereziki, baina, beste arlo batzuetan baita ere -dendak, kartelak...) <presio sinbolikoa> (gizarte mailakoa dena) egiten du euskararekiko banakako aukera bultzatzeko. Euskararen hurbiltasuna -ageritasuna- ezinbestekoa da euskaradunaren gizarte onarpena lortzeko.

Inplikazio praktikoa bereizterakoan, gazte hauen artean bi ikuspegi daude, biak

sintonian; bien arteko ezberdintasuna azpimarratzen dutenaren inguruan datza: batzuentzat, euskarak ez du arazo berezirik, gizarte mailan ere badituelako hainbat tresna bere alde, bereziki kazetaritza/komunikazio esparruan:

"yo pienso que no es un problema. Tienes tele en euskera, radio en euskera, revistas en euskera, periódicos en euskera y ya suelen poner anuncios y todo, más no creo que puedas hacer" (5T,48).

Horren arabera, euskarak eskolaz gain badu beste gizarte esparru batzuk bereganatuta, orduan, ez dago beste ezer egiterik; horregatik, ez datoz bat euskara <gaizki> dagoela esaten dutenekin motibazio politikoak daudela azpian uste dutelako, "sí, cuando se dice eso es por los intereses de quien lo dice" (5T,50). Politika eta hizkuntza aipatzen direnean, beti mundu abertzalea bereizten da eta bereziki ezker abertzaleko esparrua (ezaugarri negatiboz osatuta: erradikaltasuna, biolentzia...), Erabilera falta aipatzen denean, hori banakakoa, borondatezko mailakoa denez ez dute onartzen ezer egin daitekenik norberaren aukera ez bada, "pero eso (erabilera) ya luego es personal" (5T,48). Ikusten denez, gizarte mailan dagoena onartzen dute baina elementu bat azpimarratzen dute: dagoena badago, besterik (hots, inplikazio praktikoari dagokiona: ikasketa/erabilera) ezin liteke egin ez bada borondatezko mailan, bestela, inposizioa izango litzateke eta. Beste batzuk, aldiz, azpimarratzen dute erabilera falta bereziki eta horren arabera erabilera bermatzea aipatzen dute:

"Meterte en asociaciones y eso del euskera, pero con que te propongas hablar en euskera y hagas hablar a los que están alrededor tuyo ya basta" (5T,48).

Galdetzen zaienean zein elkarte motetan ez dute ezer konkreturik erantzuten, orokorrean baizik, "euskaltegi y así, fiestas de euskera y cosas de éstas" (5T,48). Erabilera azpimarratzen duten arren, ez dago inplikazio praktikorik adierazpen horietan, nolabait, inplikazio ideologiko mailakoa da; honek esan nahi du, posibilitate potentzialak adierazten dituztela eta ez errealak, alde batetik, ez dutelako (gaur egun D ereduan daudenak ezik) erabilera gaitasunik, eta bestetik, ez dutelako arrazoirik, euren egunerokoan, hizkuntza aldaketarako, egoerak ez dielako <behartzen> .

Euskararen etorkizuna positiboa ikusi arren (lehenago azaldu dugunez), ez da euren inplikazio praktikoagatik; euskararen etorkizuna eskolaren eraginagatik dator bereziki.

Eskolaren protagonismoa azpimarratzen da euskararen ezagupena errezagoa egiteko: txikitatik ikasten baldin bada ez da zaila, geroago, aldiz, esfortzu eta denbora handia behar da eta gazte hauek ez diote, aldez aurretik, euskarari emango bi elementu horiek (beste lehentasun batzuk dituztelako: ingelesa...).

Diskurtso honetan kokatzen diren talde denetan adierazpen bat agertu da: ez dira <errudunak> euskaraz ez dakitelako, hau da, hizkuntzaren gaitasuna lortzea ez dago euren eskuetan, besteetan baizik: alde batetik, etxeak (famili giroa) ez die lagundu euskaraz egiten etxe erdaradunak dituztelako; bestetik, eskolak ez die gaitasun maila nahikoa eskeini (A ereduan daude); egoera honen ondorioa hauxe da: ez dute oportunitaterik izan beste batzuk bezala (D eredukoak <abantaila> aipatzen da etxeko giroari buruz -giro euskaraduna-) eta horregatik ez dira arduradun sentitzen:

"Parece que están echando la culpa a los que no sabemos euskera, no sé, los que no saben no tienen la culpa tampoco, unos han tenido más facilidades que otros" (1T,71).

B eredukoek ere jarrera honekin bat datoz nahiz eta gaitasun maila altuagoa izan (bereziki etxeko giroa da aipatzen duten <abantaila>, eurak ez dutena). Euskararen gaitasuna esfortzurik gabe nahi dute eta hori horrela lortzeko etxeko eta eskolako eraginaren garrantzia azpimarratzen dute; hala eta guztiz, horrekin batera, ez dira inplikatzeko, geroari begira, euren etxea euskalduntzeko; eskola gunean, bereziki B ereduan daudenak, eredu horren gaitasuna azpimarratzen dute euskara ere (gaztelaniarekin batera) ikasteko; A ereduan daudenak, ez dute eredu hori baztertzen (hiru ereduen aukeraren alde daude), baina, esplizitoki aipatzen da euskararen ikasketa errezagoa dela txikitatik hasita (orduan, adierazpen hau, inplizitoki, euskararen ikasketa sendotzearen alde uler daiteke, betiere, zentzu batean ulertuta: <esfortzuaren> zamaren ideia alde batera uzteko, ikasketa erreztasunari lotuta). Argi dagoena, zera da, euskararen banakako mailako aukera, euren eskuetan bai dagoena euskaltegien bitartez, alde batera uzten dutela beste aktibitate batzuren alde (denboraren banaketaren arabera euskara ikastea ez dago euren lehentasunetan), horregatik, azpimarratzen dute etxeko eta eskolako guneak, erreztasunagatik.

Ez dugu aipatu gabe utzi nahi 5T taldean (Btik etorritakoak) egin zen joku bat,

interesgarria delako gure helburuetarako: udaletxeko euskararen arduradunak zirela proposatu zitzairen taldekideei eta zer egingo zuketuen euskararen inguruan galdetu. Bi ezaugarrien inguruan kokatu zuten erantzuna:

— Bata, euskararen erabileran, hots, bereziki erabilera azpimarratzen dute ezagupenari buruz ezer aipatu gabe; ikusi dugunez, ezagupena, hots, ikasketa, eskola eta etxetik kanpo direnean esfortzuarri lotzen diote eta hori borondatezko mailan kokatzen dute. Erabilera banakako mailakoa denez, erakunde maila ez da aipatzen, maila hau gizarte edo kolektibo mailakoa da eta (aipatzen baldin bada, banakako dimentsioa azpimarratzen da); kasu honetan, erakundearen ekintzen inguruan <inposizioaren> ideia da baztertu behar dena (gizarte-kolektibo maila denez):

"Actividades donde sabes que van a hablar en euskera sólo" (5T,51).

— Bestea, ekintza erakargarrietan, hau da, garrantzitsuena ez da euskaraz diren ekintzak antolatzea, ekintza erakargarriak antolatzea baizik (erakargarriaz gain euskaraz direnak):

"Es que si quieres hacer algo que te guste no miras si es en euskera o castellano, vas a por la actividad ésa" (5T,57).

Ekintza erakargarrien artean honako hauek aipatzen dira: koloniak, ikastaroak, irteerak, eskursioak, zinema euskaraz, liburuen itzulpena, antzerkia euskaraz, eta euskal musika taldeen ekitaldiak. Hauen artean erakargarrienak irteerak, bidaiak eta koloniak dira: "Desde luego, si ponen un viaje a Amsterdam, aunque fuera en euskera yo iría" (5T,56).

Gazte hauen belaunaldia ez da mugitzen gauzak bilatzeko, alderantziz, kexatzen dira ez zaiela informaziorik heltzen zer dagoen jakiteko; horretarako, leku egokiena informazioa jasotzeko institutua dela azpimarratzen dute, institutuan beti begiratzen dutelako dauden kartelak.

Kultur etxeak ez dituzte bereziki erabiltzen ez bada pelikula edo erreportairen bat ikusteko edota "rol" jokoan parte hartzeko (adibidez Lugaritzeko kultur etxean).

Planteiatzen zaienean ekitaldi bat ("Acción mutante" pelikularen zuzendariarekin

solasa), kultur etxe batean, euskaraz ala gaztelaniaz izan, erantzun bakarra dago: gaztelaniaz izan beharko litzateke bi arrazoiengatik: lehenengo, zuzendariak ziur ez dakielako euskaraz (Bilbokoa izan arren), aurreiritzi hau adierazgarria da euskararen ospea zein mailataraino heltzen den (pertsonei ezagunak, famadunak, erdaradun irudia dute); bigarren, entzule guztiek ulertzeko eta ez bakar batzuk soilik: "en castellano porque está dando un poco de privilegio al euskera" (5T,59). <Privilegio> izango litzateke gaur egun mundu guztiak ez dakielako euskaraz; ez dute beste alderik ikusten, adibidez, euskara sustatzeko ekitaldia izan daitekela. Hau kontraesanetan dator lehenago aipatu ditugun euskarazko ekitaldiak antolatzearekin, azken finean, euskaraz badira euskaradunak soilik ulertuko dituztelako; hemen agerian gelditzen da inplikazio falta: euskarazko ekitaldiak egitearen alde daude, baina, praktikan, ekitaldi interesgarria baldin bada gainera, ez dute hain errez onartzen ez daudelako ziur euren hizkuntza mailarekin; irtenbide bat bilatzen dute: "que haga dos veces una en castellano y otra en euskera" (5T,59). Azkenean, ekitaldi bikoiztua egin behararen alde daude, inor ez baztertzeko; orduan, sortzen den galdera hau da: onartzen ote dute, errealki, euskarazko ekitaldi bakarrak, adierazi duten bezala?. Badirudi teorian baietz, baina, praktikan arazo gehiago dute, nolabait, baztertuak sentitzen direlako (gaitasun faltagatik); horrez gain, euskara sustatzeko ardurarik ez dutenez, kontraesan hori gainditzea zailagoa da.

A ereduko taldeetan ere agertu dira euskararen inguruko ekintzak (bereziki Kilometroak) eta era positiboan onartzen dituzte arrazoi bategatik: <modu ludikoa> delako euskara agerian jartzeko; zentzu horretan inposizioaren, derrigortasunaren ideia baztertzeko da dibertimentuaren alde eta, horrela, euskara hobeto hurbiltzen zaie erdaradunei:

"Es una buena manera del euskera, de forma, así, divertida y tal, tampoco metérselo a la gente... Una forma maja y yo no fui porque tenía otros planes pero una parte de mi cuadrilla sí fue y se lo pasó muy bien..., el próximo año seguramente yo vaya" (1bisT,52).

Indiferentzia diskurtsoa <ezagupenaren> diskurtsoa da (kontrako diskurtsoa maila honetara ere ez da heltzen); honek esan nahi duena zera da, euskararen oinarritzko irudia ezagupenean kokatzen dela (eta ez bizitzean), bigarren hizkuntza ofizial gisa; honekin batera, euskararen inguruan arduragabeko jarrera agertzen da. Euskaltzale diskurtsoak beste pausu bat ematen du, bere oinarria euskara <bizitzea> da, aurrerantzean azalduko dugunez.

## **6.- EUSKALTZALE DISKURTSOA.**

Diskurtso hau honako talde hauetan hedatu da: Institutuko eta lanbide heziketako D taldeetan (hots, 3T, 4T), B eredutik etorritako talde batzuetan (5bisT -gaur egun D ereduan daude, institutu mundukoak-, 6T -gaur egun A ereduan daude, lanbide heziketakoak-, 6bisT -erdiak A eta erdiak D eredutan daude, lanbide heziketakoak) eta D eredutik etorritako unibertsitarien hiruko taldean (7T) gehi bi elkarrizketetan.

Diskurtso honetan kokatzen diren gazteak ardura eta interesa nabarmendu dute euskararen gaia sartu denean. Hizkuntzarekiko ikuspegi dinamikoa dute, hots, egoera, gaur egun, dagoena da, baina, arrazoi batzuegatik (arrazoi historiko-politikoak aipatzen dira), eta horregatik, alda daiteke edo aldatu beharra dago. Diskurtso honen ardatza ez da aurrekoena bezalakoa, hots, pragmatismoarena; euskararekiko atxikimendu mundua da hau, honek esan nahi du euskararekiko nortasun sentimendua dagoela. Talde denak euskaraz izan ziren bi ezik: lanbide heziketako 6T (B eredutik etorriak, gaur egun A ereduan daudenak) eta 6bisT (B eredutik etorriak, gaur egun D eta A ereduetan daudenak); bietan A ereduan dauden taldekideak ez ziren ziur sentitzen euskaraz hitzegiteko, eta orduan, taldeek gaztelaniaz egitea erabaki zuten.

### **6.1.- Hizkuntzaren irudia.**

Gazte hauentzat euskarak balio berezi bat du, ez dago beste hizkuntzen parean (ingelesa edo alemaniera); euskara Euskal Herriko hizkuntza da eta Euskal Herriko hizkuntza denez, euren hizkuntza da; talde denetan enunziatu berbera dago: <gure hizkuntza> da, hots, euskararen subjeto gisa adierazten dute euren burua (euskaraz hitzegiten ziur sentitzen ez direnak barne). Honek euskararekiko inplikazio ideologikoa adierazten du (geroago azalduko dugun bezala). Euskal Herriko lehenengo hizkuntza euskara da, gaztelania, aldiz, bigarren hizkuntza da:

"euskera-erdera ez liteke aberasgarria izan behar, erdera izango litzateke aberasgarria" (5bisT, 67-8).

Gaztelaniaren irudia bikoitza da, alde batetik, bertan dagoen <beste> hizkuntza da (onartzen dena, bigarren hizkuntza gisa), eta bestetik, <inposatutako> hizkuntza da (ezinbestez onartu behar dena euskararen gaurko egoera ikusita). Garrantzitsua hau da:

hizkuntza bien artean, euskarari ematen diotela lehentasuna.

Euskararen irudi hau talde denetan agertzen da, euskaradun osoak izan edo euskaradun ez-osoak izan, hau da, euskaraz hitzegiteko gaitasuna izan ala ez. Horrela izan liteke, desio mailan kokatzen delako irudi hau; ez da gaur egungo egoeraren irudia, etorkizun bateko irudia baizik (<horrela izan beharko litzateke>). Beste bi diskurtsoetan kokatzen diren gazteek euskara <politikarekin> elkarlotzen duten bezala (zentzu peioratibo batean adierazita, bereziki, ezker abertzaleari lotuta, <erradikala>, <biolentzia> ezaugarriak adieraziz), diskurtso honetako gazteek euskara politikarekin elkarlotzen dute ere bai, baina, zentzu ezberdinean: ez dute aipatzen politika praktika instrumental hutsa bezala, praktika ideologikoa bezala baizik: zentzu honetan, euskara <abertzaletasunarekin> elkarlotzen dute, era positiboan. <Abertzale izatea> <euskara jakitea> bezain garrantzitsua da (gazte batzuentzat, garrantzitsuagoa):

"Zu abertzale sentitzen ez bazera, euskera ikasten badezu, ikasten dezu edo behartzen zaituztelako edo aberasgarri bezala ikasi nahi duzulako, baino, abertzalea sentitzen badezu, zuk ikasten dezu beharrez, o sea, nahi duzulako, ikasi nahi dezu eta zure aburuak behartzen zaituelako" (5bisT, 81-2).

Aipamenean argi ikusten da euskara <sentimenduen>, afektibitatearen munduan kokatzen dutela, orduan, sentimenduez kanpo dauden motibazioak (pragmatiko-instrumentalak) ez dituzte oso begi onekoak nahiz eta beharrezkoak ikusi: hizkuntza ez bada maitatzen, gero ez da erabiliko eta erabilera falta da gainditzea nahi dena.

Gazte hauentzat euskaldun (vasco) izatea ez da jaiotzarekin erlazionatzen hiritartasunarekin baizik: "hombre, vascos somos todos los que vivimos en el País Vasco" (6T,79). Ezberdintzen dute <euskaldun izan> / <euskaldun sentitu>, hots, <hiritartasun> kontzeptuan bi alde banatzen dituzte, bata, bizimodua azpimarratzen duen aldea -Euskal Herrian bizi- eta, bestea, sentimendua azpimarratzen duen aldea -Euskal Herrian bizi eta Euskal Herria sentitu-. Sentimendu hau bertako ohiturei, tradizioari, hizkuntzari lotzen zaio; honen inguruan, azpimarratzekoa da jarrera <defentsiboa> agertzen dela, hau da, sentimendu hau Euskal Herriaren berezitasunaren defentsarekin erlazionatzen da, eta hor, hizkuntza barne-barnean dago. Zentzu honetan, euskaldun (vasco) izateko



euskararen tokia berezia da: euskara jakitea ez da derrigorrezkoa euskaldun izateko; honen inguruan, talde baten (5bisT) esplizitoki ezberdindu dute bi kontzeptu (beste taldeetan implizitoki jarrera berbera dago): "euskalduna" vs "euskalzalea", hau da, euskaraz dakiena "euskalduna" da, baina, euskaraz ez dakien arren Euskal Herria sentitzen duena, hori "euskalzalea" da eta "euskaldunaren" legitimitate osoa du:

"Euskalzalea, ba hori, euskeraz igual ez dakizu baino (- Euskadi maite dezula), o sea, euskalduna zera, ez, (-hori da, Euskadi barnean eramatea) sentimenduz hemengo zera eta euskal, euskalzalea zera, nahiz eta euskeraz ez jakin zuk euskera defenditzen dezu, euskalduna sentitzen zera, Euskadi edo Euskal Herria defenditzen dezu" (5bisT,78).

Gazte hauek euskaldunen artean <euskaradunen> eta <erdaradunen> arteko bereizketa egin beharrean, dikotomia hau hiru muturrera zabaltzen dute: euskaradun / euskaltzale /erdaradun, honek esan nahi du erdaradunen arteko multzo bat bereizten dutela euskararen inguruan nahiz eta euskara ez jakin. Beste aldetik, euskaradunen artean multzo bat badago euskaltzalea ez dena. Gazte hauen ikuspegitik, euskaldun (vasco) izaeran euskarak toki oso berezia du, ezaugarri funtsezkoena ez izan arren. Euskal nortasuna, hau da, <gu> berezi bat, ez dago <hizkuntza komunitatean> (hots, hizkuntza bera erabiltzen duten subjektuak) bereziki oinarrituta, alderantziz, <atxikimendu komunitatean> (hots, sentimendu berezi bat erkidetzen duten subjektuak) oinarrituta baizik. Honek esan nahi du, garrantzitsuagoa dela <atxikimendu komunitateko> erkide izatea <hizkuntza komunitatekoa> baino. Gazte hauek bi <atxikimendu komunitate> bereizten dituzte: <euskararen atxikimendu komunitatea>, kasu honetan, euskal-abertzale munduari soilik lotuta ("euskalzaleak" izango lirateke), eta <gaztelaniaren atxikimendu komunitatea>, kasu honetan, euskal-ez-abertzale munduari lotuta (hots, ez-euskaltzaleak nahiz eta euskaradunak izan). Honen arabera, euskaradunak komunitate bietan daude (gehiago daudela euskararen atxikimendu komunitatean azpimarratu arren), eta hori horrela izanik, atxikimendu mota hizkuntza baino gehiago azpimarratzen dute. Horrela, jendearekin eta beste gazteekin ez dute hizkuntza komunitateak dakartzan eragileak erabiltzen (euskaraduna/erdaraduna izatea), atxikimendu komunitatearenak baizik (euskaltzalea izan ala ez).

Euskararen ezagupenean bi mundu bereizten dituzte: bata, umeen/gazteen mundua,

hots, gaur egun eskolaren bidez euskalduntzea ahal dutenak; hauek euskaraz ez jakitea ez dute ondo ikusten, nahiz eta, azkenean, onartu, euskaltzaleak baldin badira; gaur egungo gazteek eskolan ez badute ikasi ez da euren <errua> izan delako, ez zaielako irakatsi baizik (hau, indiferentzia diskurtsoa hedatu duten gazteekin bat dator, ikusi dugunez); <errua>, gurasoena da ez diotelako euskal adarrari garrantzirik eman euren seme-alaben heziketarako. Bestea, helduen mundua, zailago izan dute euskaraz ikastea eta horren arabera onartzen dute euskarazko gaitasunik ez izatea. Euskararen inguruan dauden hitzak hauek dira: SAIATU, ERRESPETATU, SENTITU, MAITATU (lortu ez arren). Hori baldin badago, euskara ez jakitea (gazteak barne) barkatzen da, eskolatik kanpo euskaraz ikastea oso zaila ikusten dutelako (denboraren banaketak ez duelako laguntzen, beste ardurak batzuk daudelako). Aipatu beharra dago gazte hauek eskola gunean kokatzen dutela euskararen ezagupena, erreztasunagatik; eskolatik kanpo (euskaltegietan) ikastea oso zaila ikusten dute eta barkatzen dute ezintasun hori gaur egungo beste beharren arabera (denbora eta esfortzua behar direnez, onartzen dute gaur egungo bizimoduan euskara ikastea, helduen munduan, zaila dela beste lehentasun batzuk egon daitezkelako; horregatik eskola gunea azpimarratzen dute hizkuntzaren ikasketarako, errezagoa delako). Denak ezagutzen dute hurbiletik (familiakoa edo laguna dela) euskaraz ez dakien norbait eta, hala ere, euskara maitatzen duena, orduan, malgutasun gehiago dago euskararen derrigorriari buruz (beti ere, bere garrantzia azpimarratuta eta, horrez gain, euskaltzale izaera adierazita):

"bera (aita) abertzalea da..., eta euskalduna da, ez daki euskeraz baina, agian ez banion ezagutuko esango nuke euskaldun batek euskera behar du euskalduna izateko, baino nola bere kasuan ez zion uzten... (-bai, zure ondoan edukita ez dezu hori pentsatzen) gainera da zure ezaguna" (5bisT,79).

Bi jarrera ezberdinak daude (nahiz eta sintonian bata bestearekin) euskararen garrantziari buruz, hots, euskarak zer ematen dienari buruz:

- Euskaradun ez-osoak (6T, 6bisT taldeetan), hau da, B mailako euskara dutenak eta gaur egun A eremuan daudenak, nortasun mailan kokatzen dute euskarak ematen diena: "la satisfacción que estas hablando en tu lengua" (6bisT,52); azken finean, gaztelaniatik pausu bat eman dute euskararuntz nahiz eta azken hau ez menderatu.

- D ereduan daudenen artean, euskaradun osoak direnak, batzuentzat "poza", "arrotasuna" eta "bereiztasun handiena" den bezala, besteentzat euskarak ez die ezer berezirik ematen, hau da, euskara oinarritzkoa da beraientzat -ideologia mailan- baina, egunerokoan ez die ezer berezirik ematen; honek bere koerentzia du, azken finean, euskaltzale sentimendua azpimarratzen dutenentz euskaradun izaeraren gainetik, euskara oinarritzkoa dela baieztatzen dute, baina, ñabardura bat eginez:

"niri, ez dakit, euskerak ez dit ezer ematen, egitan ez dit ezer ematen, baino oso garrantzitsua da" (4T,63).

Euskararen izaera BARNE/KANPO dikotomiak gurutzatzen du (lanaren esparruan ere dikotomia hau agertzen da, gero ikusiko dugunez):

— **KANPO** muturrean, euskara <bereiztasun> ezaugarria da, hots, euskaldunak berezkoa duen zerbait, besteengandik ezberdintzen duena (hau, erdaradunek ere azpimarratzen zuten, ikusi dugunez); zentzu horretan, positiboa da:

"Una cosa que te diferencia de los demás, sales fuera y ya sólo por eso te sientes diferente" (6bisT,52).

— **BARNE** muturrean alderantzizkoa gertatzen da. Euskara gatazkatsua da denek ez dakitelako eta berarekiko jarrera ezberdinak daudelako (kontrako agresiboak ere bai); orduan, BARNEAN euskara identifikazio elementua da gizarte multzo batean (ez osoan, <euskararen atxikimendu komunitatean> soilik), baina, identifikazio gisa sentitzeak ez du bere erabilera sendotzen ez-euskaradun asko dagoelako euskararen atxikimendu komunitate bertan. KANPOAN positiboa den bereizketa, BARNEAN ez da onartzen bestea euskaraduna ez izan arren euskaltzalea baldin bada legitimatuta dagoelako; horregatik, BARNEAN euskarak ezartzen duen bereizketa hori ez zaie eroso arazoak dakarzkialako: egunerokoan, normaltasuna bilatzen den arabera, bereizketa edo bereiztasuna alde batera uzten da.

Euskaradunen artean bi ikuspegi nabari daitezke, BARNEko <bereiztasun> honi

buruz. Bata, pragmatikoagoa (bere inguru hurbila erdaraduna da): euskara jakiteari ez dionak nortasun garrantzi berezirik eransten, hau da, euskaraz daki esfortzurik gabe ikasita, eskolaren bidez, eta horregatik abantaila batzuk ditu eta pozik dago:

"eske, ni..., ezin det bereiztu..., nik dakit euskeraz, ba, ikastolan egon naizelako, baino bestela, eta ondo etorriko zait, badakit ondo etorriko zaidala lan baterako edo beti behar dezu hemen bizi zera eta, gauz batzuetarako, baino bestela..." (3T,64);

Bestea, sinbolikoagoa (bere inguru hurbila euskaraduna da), euskara bere nortasun hizkuntza da bereziki eta hori azpimarratzen du beste ezeren gainetik; ezberdintasunaren legitimitatea aldarrikatzen da, baina, < itxikeria > alde batera utziz:

"eske ni ez da berezia izan nahi detela, da berezia naizela..., desberdintasun bat daukat bestebatzuekiko, ba ez dakit, txikitatik euskera irakatsi didatelako, ez nik erabaki dudan zerbait delako/ -hori ez da esan nahi gaizki eraman behar zarela besteekin" (3T,64).

Gune bakoitza azalduko dugu gazte hauen euskararekiko harremana hobeto ulertzeko:

— **ETXEA.**— Gune honetako hizkuntza ohitura gurasoen arabera dator; guraso erdaradunak (edo euskaradun ez osoak) etxea erdaraduna, guraso euskaradunak, aldiz, etxea euskaraduna. Etxeko gunea euskaraduna izatea abantaila bezala ikusten da talde denetan, hots, <aseguroa> da euskara errezago erabiltzeko eta bere praktika ez galtzeko (hau euskaradunak nahiz euskaradun ez-osoak argi uzten dute). Aseguroaren irudia egokia da, gazte hauek euren egunerokoa gaztelaniaz bizi dutelako (bereziki, kalean, baina, eskolan ere bai, euskaradunak barne), orduan, etxea erdaraduna dutenak euskararen praktikaren faltan daude eta hizkuntza maila galtzen dutela konturatzen dira; etxea euskaraduna dutenak, aldiz, gune horretan ziurtatzen dute erabilera eta erreztasun maila:

"nik izan dut bentaja bat askok ez dutena eduki, izan da beti giro euskaldun batean bizitzea /-eta erdera ez zaizu kostatzen hitzegitea, beti..., hemen erdera pilo bat dagoelako eta orduan erderaz ere ondo dakizu" (4T,92-3).

Etxeak aseguro bezala funtzionatzen duen heinean, etxe euskaradunetakoak egunerokoa gaztelaniaz duten arren ez dira horretaz, praktikan, bereziki arduratzen (nahiz eta ideologikoki aldaketak aldarrikatu), badirudi errezago barkatzen dutela gaztelaniarako joera. Etxea gaztelaniaz dutenak, aldiz, ardura agertzen dute euskararen erabilera faltagatik euskara maila galtzeko zorian ikusten dutelako euren burua.

Gazte hauek etxeke gunea eraginkorra ikusten dute euskararen irudiaren edota erabileraren transmisioaren inguruan; alde batetik, gurasoen euskararekiko jarrera ideologikoa aipatzen da, familia bertan hizkuntzaren irudi sinbolikoa bermatzeko edo ezeztatzeko orduan. Euskararekiko oztopo gehienak dituztenak <Guraso kanpotarrak> aipatzen dira (kasu honetan, euskararen irudi sinbolikorik ez badago, azpimarratzen diren euskararen ezaugarriak konnotazio negatibokoak dira: alde batetik, euskararen eta politikaren arteko harremana - negatiboa, biolentziari lotuta-; beste aldetik, euskararen erabilgarritasun txikia):

"Mi madre lo primero es de fuera y mete las ideas políticas (...) Mi madre es que no te razona, mi madre te dice, pues lo primero lo relaciona con la política y luego te dice (...) <y no te sirve para nada>" (4T,45-6).

Euskararen irudiaz gain, bere erabilera ere azpimarratzen da; etxeke erabilera hizkuntzaren transmisiorako oinarrizkoa da gaur egun eta etorkizunari begira, hots, erabilera sustatzeko etxeke gunea premiazkoa da eskolako gunearen eragina indartzeko:

" Ba niretako, aldaketa handia egon da, lehen haur txikiak ez zuten euskeraz hitzegiten eta nik orain ikusten ditut, badaude ere gaztelaniaz egiten dutenak, baina, nik ikusten dut haurrak, txikiak, beraien artean klasetik kanpo euskeraz hitzegiten, hori da gurasoek euskeraz irakatsi dietelako eta nire ustez lehen gurasoek gutxiago irakasten zuten euskeraz eta hori da aldaketa nagusia" (7T,42).

— **ESKOLA.**- Gazte hauek hizkuntza eredu ezberdinetan daude: batzuk beti D ereduan egon dira, beste batzuk B ereduan egon dira eta gaur egun A edo D ereduan daude. Hala eta guztiz, gunea honetako hizkuntza ohitura gaztelaniazkoa da eredu denetan; eredu euskaradunean ere, nahiz irakaslearekin euskeraz egin, ikaskideen artean, normala, gaztelaniaz hitzegitea

da. D ereduan, Donostiako gazteen artean gaztelaniaz egiten dute; euskararen ohitura, orduan, bi <pertsonai> bereziki dute: bata, irakasleekin, eta bestea, <herrikoekin>, azkenengo hauek <sartzen> dute euskara Donostiako gazteen arteko eskolako interakzioan. Donostiako gazte hauek bereizketa bat egiten dute hizkuntzaren ohituraren arabera: hiritarrak (beraiek)/hiritarrak:

- Hiritarrek, gaztelaniazko ohitura dute, euren perzepzioa honako hau da: gaztelaniak <inguratzen> dituela. Inguratze horretan, <Kanpotarraren> irudia adierazgarria da; kanpotar asko dagoelako (edo etorri zirelako, bere garaian) gaztelania da nagusi hirian eta hori da oztopo nagusienetakoa euskararen erabilera mugatuan.

- Hiritarrak, aldiz, euskarazko ohitura dute, beraien egunerokoa euskaraz delako, orduan, eguneroko ohitura hori eskolako gunera ere eramaten dute; horregatik, eskolan, donostiarrak donostiakoekin, normalean, gaztelaniaz dena, herrikoekin euskarara biurtzen da. Honako aipamen hau adierazgarria da:

"Baino, hemen bultzada, hemen bultzada ez da oso erraza (-eske hemen da imposiblea), o sea, zuk pentsatu behar dezu hemen dagoela kanpotar pilo bat, Erreterian eta Donostialdea hau da denak kanpotarrak, hombre!, herri batean beti sentitzen duzu euskera, zu joaten bazara Ordiziara esaten dezu zuk, ba hor bai, baina hemen gogorra da" (4T,58).

Bereizketa honek bere alde ona du, hots, euskarazko ohitura bermatzen du ikaskideen artean, baina, bere alde txarra ere badu: euskara herri profilari lotuta dago; profil hau, hiritarraren artean, bereziki negatiboa ez izan arren, ez da euren munduko adierazle; zentzu honetan, euskaradunaren estereotipoa, gazte hauen ikuspegitik, herriko-baserriko irudiarena da: kolore gorri, zudur handi, gaztelaniaz gaitasun gutxi... Donostiako euskaradunaren irudia, aldiz, adin zaharrekoa edo gaztea da (tarteko adin multzoa euskaradunaren iruditik kanpo dago), "borroka" (hots, abertzale esparru berezi batean kokatua) edota <abertzalea> zentzu zabalean. Hala eta guztiz, euskaradunaren irudi orokorra herri irudian sendoago oinarrituta dago eta hori, gazte hiritar euskaradunari ez dio mesede handirik egiten irudi hori ez delako

erakargarria berarentzat:

"Suelen ir (Erne diskotekara) más caserotes y eso, pues últimamente yo veía aquí un mogollón de gente así super caserota y digo ¡huy! es que se ha caído el suelo del Erne (barreak)" (6T,72).

Diskurtso honetan kokatzen diren gazteak, eredu baten ala bestean izan, eskolako hizkuntza lehena euskara izan behar dela azpimarratzen dute, hots, euskarazko gaitasuna eman behar du eskolak, orduan, euskara ezin da <ikasgai> soila izan: ordu gehiago behar ditu (A ereduan baldin bada), eta azken finean, <euskaraz ikastea> behar du izan gaitasun maila bat lortzeko.

Azalpenaren argitasunagatik, ezberdinduko ditugu B eredukoak eta Dkoak, ezaugarri amankomunak eduki arren ezberdintasunak ere badituztelako.

## B EREDUA

B eredutik datozenak, lehenago azaldu dugun Indiferentzia diskurtsoko Bko gazteak bezala, A eta D ereduetako erdibidean sentitzen dira euren euskara mailari buruz: A eredukoek baino gehiago dakite baina D eredukoek baino gutxiago. Gazte hauen artean, eredia aukeratu behar izan zutenean, aurreko gazteen artean agertu diren arrazoi berberak agertzen dira bata ala bestea aukeratzeko:

- A eredia aukeratu zutenak, euskara mailaren ziurtasun faltagatik izan zen; horrez gain, "postura erreza" (3T,13) zen euskara ikasgaia errezagoa eta noten batzbestekoa igotzeko aukera zelako. Arrazoi nagusi hauez gain, lanbide heziketan dauden gazteak (D ereduan daudenak Martuteneko eskolan ezik -6bis taldean) aipatzen dute euskaraz egiteko posibilitaterik ez dagoela lanbide heziketa mailan (eskola pribatu nahiz publikoan ikasten dutenak).

- D eredia aukeratu zutenak euskara maila ez galtzeagatik izan zen. Gazte hauek, euskaltzaleak direnez (aurreko diskurtsoko gazteak ez direnak), arduratu egiten dira euskararen egoeraren inguruan; horregatik, euren egoera bizi eta gero, zera azpimarratzen

dute: B ereduan laguntza berezia behar dela euskararen ziurtasuna sendotzeko, D eredurako pausua automatikoa izateko; ziurtasun falta hori (bereziki hitzegiteko orduan) oztupo garrantzitsuena da pausu hori ez emateko:

"Para prepararte un poco ¿no? porque si has estado haciendo bilingüe igual derrepente hacer un COU o una selectividad en euskera, igual te ves un poco perdido, te asusta un poco" (6T,23).

### ABANTAILAK/DESABANTAILAK HIZKUNTZA BATEAN IKASI ALA BESTEAN.

Euskaraz eta gaztelaniaz ikastearen abantalei eta kontrakoei buruz, gazte hauen artean berezitasunak agertu dira ikasketa motaren arabera (lanbide heziketan ala institutuan ikasi), azken finean, bi egoera oso ezberdinak direlako euskararen inguruan; lanbide heziketa euskaraz ikastetxe batean soilik dago, besteak gaztelaniaz dira, institutuek, aldiz, euskal adarra osotua dute:

- Lanbide heziketako gazteek bi abantaila mota aipatzen dituzte: alde batetik, nortasunaren inguruan (<heziketa zure herriko hizkuntzan> eta hizkuntza ez dela galduko eskola gunean baldin badago), eta bestetik, gaitasunaren inguruan (<euskaraz dakizu>); hau da, dimentsio sinbolikoak pisua hartzen du abantailak aipatzerakoan. Hala eta guztiz, euskaraz ikastearen abantailak baino gehiago <oinarriak> (printzipioak) dira (eta hau adierazgarria da hizkuntzari erantzen zaion balio praktikoak ebaluatzeko orduan, hau da, balio praktiko gutxi). Euskaraz ikasteak kontrakoak ere baditu: alde batetik, lan munduaren eta ikasketen munduaren desoreka, hau da, lan munduan gaztelania da nagusi (lanbide heziketakoak dira, eta kasu honetan esparru pribatuko lana dute buruan) eta euskaraz ikasteak arazoak sor ditzake hiztegi mailan bereziki; beste aldetik, euskaraz dauden eskola-materialak oso urriak dira eta askotan gaztelaniaz dauden materialekin ikasi beharra dago (hau oso arazotsua da: materialen itzulpena eskatzen da). Hau da, euskararen desabantailak dimentsio pragmatiko-praktikoak azpimarratzen ditu.

Euskararen desabantaila hauek gaztelaniaren aldekoak dira: gaztelaniaz ikasteak, alde batetik, lanari begira, abantailak ditu BARNE/KANPO dikotomia dela eta; hemen gaztelania da nagusi eta hemendik kanpo gaztelaniaz hobeto; beste alde batetik, eskola material gehiago dago gaztelaniaz, ez dago horretan arazorik. Gaztelaniaz ikasteari ez diote desabantailarik



ikusten; bat bakarra aipatzen da, baina, ez diote hainbeste garrantzirik ematen: EGA lortzea zailagoa dela, hots, implizitoki, desabantaila honako hau da: euskara maila txikia edo hutsa dutela eta lan potentzial baterako hori kontrakoa izan daiteke.

Dimentsio pragmatiko-instrumentala talde batean bereziki agertu da (6T), horrela, <jende gehiagorekin harremanak izatea>, hots, hizkuntza bietan komunikatzeko ziurtasuna izatea, euskararen <plus> bat dela aipatzen da, eta horrekin batera, lanari begira ere euskara <plus> bat dela (hau da, BARNE muturra azpimarratzen da); nortasunaren dimentsioaz gain, dimentsio hau kontuan izatea euskararen BARNE muturreko balio bereziak azpimarratzea da. Talde bietan ez agertzea horrela ez du esan nahi beste taldean (6bisT) dimentsio hau kontuan ez denik hartzen (alderantziz, taldea bat dator honekin), esan nahi duena da euskararen balioa bereziki maila sinbolikoan kokatzen dela eta maila hori da azpimarratzen dena; hortik kanpo, nahiz eta balioak izan, garrantzi ezberdina ematen zaie egoeraren arabera.

- Institutuko gazteen artean (kasu honetan Btik etorriak eta denak D ereduan) bi motatako balioak aipatzen dira: alde batetik, balio instrumentala, hots, euskara jakinda <gizarte ziurtasun> handiagoa duzu bi hizkuntzak dituzulako; beste aldetik, balio pragmatikoak (nahiz eta mugatuak izan) lanari begira. Hala eta guztiz, euskaraz ikastearen abantailak aipatzerakoan maila sinbolikokoak (nortasun mailakoak) azpimarratzen dira:

"eta gero beste gauza bat, euskera maite dezu edo gaztelera maite dezu gehiago? ze maite dezu gehiago?" (5bisT,68).

Ikusten denez, euskaraz ikasteari garrantzi handia ematen diote ikuspegi ideologiko abertzale batetik; gaztelaniaz ikastea ez dute begi onez ikusten, euskara ez delako lortzen, eta hori ezinbestekoa da gazte hauentzat, euskarak lehenengo hizkuntza izan behar duelako.

Horrez gain, institutuko talde bietan (4T, 5bisT) -D eredukoak biak- eskolatik kanpoko klaseak aipatu dira, gaztelaniaz direla denak (akademiak, irakasle pribatuak: ingelesa -hizkuntzak-, informatika, musika...); desio bezala, euskaraz izatea aipatzen da erreztasun gehiago emango liekelako, ohituago daudelako euskaraz ikasten.

## ZUBI-IKASTAROARI BURUZKO JARRERA (A EREDUKOEN ARTEAN).

Karrera euskaraz ikastea gazte hauek oso positibotzat jotzen dute hiru arrazoiengatik:

- Lanagatik, ez soilik lana bilatzeko, hiztegi berezi bat lortzeko lanerako ere bai.
- Euskara maila mantendu eta hobetzeko.
- Nortasun arrazoi bategatik: euren hizkuntza delako (lehenengo hizkuntza, nahiz eta gazte hauek euskaradun osoak ez izan).

Bi ideia azpimarratu behar dira: bata, gazte hauek euskararen kalitateaz arduratzen dira (ez da <chapurrear> soilik behar dena, ondo edo nahiko ondo hitzegin eta ezagutu baizik, lanerako behintzat). Bestea, oso garrantzitsua, euskaraz ikasteagatik gaztelaniazko gaitasuna ez da galtzen, eta horrela izanda, hizkuntza biak irabazten dira. Donostiako gazteentzat eskola gunea euskaraduna izatea beharrezkoa da euskarazko gaitasuna lortzeko eta ez galtzeko (kalea erdaraduna dute, horrez gain, etxea erdaraduna badute ere, ez dute beste gunerik euskara ez galtzeko). Zentzu honetan, adierazgarria da 6bis taldean gertatutakoa: bi taldekide herrikoak ziren (ez donostiarrak) eta herriko batek bere arduraz azaltzen zuen dena euskaraz eginda gaztelaniaren gaitasuna galtzea arazoa zela, ez zela komenigarria hizkuntza garrantzitsua delako komunikazio hizkuntza bezala; Donostiako gazteak sendo erantzuten diote hori ez dela gertatuko, kaleko harremana gaztelaniaz delako, orduan, gaur egun, beti erabiliko delako. Bien arteko ezberdintasuna honetan datza: gunea euskaradun ezberdinak dituztela; herrikoak, etxea alde batera utzita, kaleko gunea euskaraduna dute, hau da, nahi badute (neurri batean) euskaraz bizi daitezke; donostiakoak, berriz, kalea erdaraduna dutenez, gaztelaniazko gaitasuna galtzeko arazorik ez dute ikusten.

Zubi-ikastaroa oso era positiboan hartzen duten ideia da; alde batetik, euskaltzaleak direnez, euskaraz ikasteari garrantzia ematen diote, eta bestetik, hurbileko adibidea dute:

"por ejemplo de BUP a FP que hay un curso de adaptación (-de acceso) es un puente, de acceso sí, es un curso puente" (6T,51).

Orduan, ez dute ideia abstraktu eta urruna bezala ikusten (institutukoekin gertatzen zen bezala). Goian azaldu diren arrazoiengatik, karrera euskaraz egiteak merezi du, hau da, euskarazko eredura pasatzea baliagarria izan daiteke eta horretarako horrelako ikastaro bat

interesgarria ikusten dute. Ikastaro honen helburu nagusia euskararen ziurtasuna lortzea izan behar du, euskararen ziurtasun falta gainditzea:

"Eso, como un primero pero con menos nivel, ya te irán metiendo en el segundo o en el tercero o en el cuarto un poco más de nivel" (6T,52).

Zentzu honetan, karrera erdaraz egitea eta euskaltegiarekin konplementatzea baino egokiago ikusten dute karrera euskaraz egitea; euskaltegia kaleko erabilerari loturik doa, <erabilera arruntari>, karrera euskaraz, aldiz, lanari begira bideratua dago, hau da, beste kalitate mota bat dakar:

"porque coges las palabras que igual se utilizan en tu trabajo, no coges las palabras de la calle que vas a coger en un euskaltegi, coges las palabras que vas a necesitar" (6T,54).

Bereizketa hau interesgarria da lanaren inguruan behar den euskara teknikoak azpimarratzen duelako, hau da, gazte hauek kontuan hartzen dute lanean ez dela soilik hitzegitea, beste gaitasun bereziak behar direla (irakurketa, idazketa teknikoak) karrerak ematen dituenak (hau unibertsitari euskaradunen taldean azpimarratzen den ezaugarri garrantzitsu bat da, bere atal berezian ikusiko dugunez). Laneko gaitasun teknikoak kontuan izaten badira, ikasketetan euskaraz ikastea abantaila handia da horri aurre egiteko.

Jarrera positibo hau, hala ere, arretaz hartu behar da, gure ustez, agian dimentsio ideologikoak pisu handia duelako (euskaltzaleak dira) eta praktikan jartzeko <denboraren> eta <erosotasunaren> pisua handiagoa izan litekelako. Baina, hala eta guztiz, interesgarria da taldearen jarrera baikorra, posibilitate ezberdinak irekitzeko.

## D EREDUA

D eredukoak euskaradunak dira, eskola euskaraduna dute. Taldeen hizketan ondo bereizten da etxea eta ingurune hurbila euskaraduna dutenak eta ez dutenak, azken hauek hitzegiteko erreztasun gutxiago dutelako (ez dute etxeke <asegurorik>). Gazte hauek kexa orokorra dute: euskarazko eskola materialaren falta: gaztelaniaz dagoelako edota edizio

zaharrak direlako. Hau arazo bezala bizi dute zaila delako klasea euskaraz izatea eta gero ikasteko materiala itzuli beharra edukitzea; horrez gain, euskaraz ikasten ari direnez, ikasketa materialen euskaraketa premiazkoa ikusten dute euskal lerroa gaztelaniakoa bezain normalizatua egon dadin. Gai hau garrantzitsua da euskal adarraren kalitatea eta irudia sendotu nahi badira.

Eskola mailan, lanbide heziketa izan edo institutua izan, arazo berdina bat agertu da: euskarazko hitz teknikoaren erabilgarritasun eza; ikasten dute hitz tekniko bereziak, hots, euskaraz badaude, baina, erabiltzeko -gogoratzeko- zailak dira, hitzaren eta objektuaren arteko loturarik ez dagoelako (alderantziz, gaztelaniako hitzak du objektuarekin lotura, ez euskarazkoak). Honek esan nahi du, gazte hauek, nahiz euskaraz ikasi, gaztelaniako erreferentziak dituztela sustraituagoak, hots, euskarazko erreferentziak ez direnez erabiltzen (edo oso gutxi behintzat) ez dituzte gogoratzen. Zentzu honetan, aipamen hau adierazgarria da:

"Ez, badaude (hitz teknikoak) baino egongo ez balira bezela, o sea, hitz asko dira..., ba hori hitz hau entzun det aber asmatzen deten hori ba <urrutizkiña> asmatzea bezela telefonoaren ordean, orduan dira benetan praktikotasun bat ez daukaten hitzak (...) orduan, praktikotasuna askoz gehiago dauka hitz teknikoak mantentzea beraien ildotik eta euskeraz asmatu dituzten hitzak dira guztiz ezberdinak orduan praktikotasun hori galdu egiten dute" (4T,74-5).

Lanbide heziketako taldean, bereziki, aipatzen da euskarazko paper ofizialen (udaletxeak, diputazioak bidalitakoak) irakurketaren zailtasuna ulermen faltagatik; azkenean, gaztelaniaz irakurtzen bukatzen dute. Badirudi hizkuntzaren gaitasuna kontzeptu homogeen bezala ikusten dela eta hori ez da horrela; hizkuntza batek gaitasun ezberdinak ditu eta gaitasun bakoitza <erabili> (hots, praktikatu) egin behar da: adibidez, irakurketa gaitasuna irakurtzen sendotzen da, (lanbide heziketako taldeetan, orokorrean, irakurtzeko ohitura gutxi dago), idazketa idazten, eta abar.

Horrez gain, kultura orokorreko euskarazko hitzen falta ere nabaritzen dute ("ikusi genuen txori bat eta jendeak <nola esaten da halcón euskeraz?> eta jendeak ez zekien eta

hain gauza ximpleak, ze halcón bat zuk badakizu zer den halcón bat -taldea izena asmatzen hasten da baina ez du asmatzen-" (3T,15); kultura orokorra eskolan -ere- ikasten da, baina, gero, ezagutza hori erabilerarekin oinarritu behar da, bestela, galdu egiten da: eskolako ezagupen hori eskolatik kanpoko ingurunearekin sendotu behar da; kasu honetan, txori baten izena ikas liteke euskaraz eta gaztelaniaz baina eskolatik kanpoko ingurune gehiena gaztelaniazko izenarekin baldin badago -telebistako natura programak, aldizkariak, erabilera arrunta...-, azkenean, txoriaren irudia gaztelaniazko izenari lotzen zaio (era automatikoan, behintzat). Beraiek nabaritzen duten gaitasun falta hau ez dute somatzen datozen D ereduko belaunaldietan, hau da, euskarazko maila hobegoa dago belaunaldi gaztetxoetan:

"Nik uste, nere lehengusuak orain zazpi urtekin ikastolan gehiago ikasten dutela guk baino, zuk erderaz dakizuna berak euskeraz daki" (3T,15).

Ikusten denez, nahiz eta D ereduan izan, hots, egoera egokienean, gazte hauek arazoak dituzte hizkuntzarekin, erabilera faltagatik.

#### ABANTAILAK/DESABANTAILAK HIZKUNTZABATEAN IKASIALABESTEAN.

D ereduko gazte hauek arrazoi sinbolikoak azpimarratzen dute euskaraz ikastearen inguruan; <zure hizkuntza> denez euskaraz ikastea <normala> da (edo izan beharko litzateke). Horrez gain, beste arrazoi batzuk -praktikoak- aipatzen dira: euskaraz ikasteko <erreztasuna> eta hizkuntza ezberdinak jakiteak ematen duen <aberastasuna>. Hala ere, abantaila bezala, bereziki, lana aipatzen da:

"Euskal herri mailan orain asko eskatzen ari dira euskera jakitea" (3T,15).

Baina, lanaren abantaila aipatu ondoren, ñabardurak daude abantaila horren inguruan: abantaila bai baina ez oso handia; abantaila mugatua da, lanaren munduan euskararen tokia mugatua delako (lan publikoetan bereziki). Euskaraz ikastearen kontrakoak lanaren inguruan kokatzen dira, lanbide heziketakoek dituzten praktiketako esperientzian. Praktikak egiteko enpresen zerrendan oso enpresa gutxi daude euskaraz eskatzen dutenak. Lanbide heziketako bi arlo ezberdinu daitezke hizkuntzaren inguruan:

- Administratibo arloa: euren lan berezia -paperak, hots, nominak, agiriak...- gaztelaniaz egiten da enpresa gehienetan, pribatuetan nahiz publikoetan (azken hauetan hori

gertatzea ez dute onartzen; euskaraz lanegitea ez da soilik euskaraz hitzegiteko gaitasuna izatea, idazketa gaitasuna ere beharrezkoa izan beharko litzatekelako); horregatik, praktikak euskaraz egiteko oso eskeintza urria dago. Honek frustrazioa sortzen du gazte hauengan, azken finean, euskaraz ikasten ari dira eta horrek badirudi ez duela ondorio praktikorik -lan munduan- izango, orduan, eskolako ikasketaren esfortzu bereziak ez du erantzunik beste esparruetan. Aipamen hau oso adierazgarria da:

"Bai, eskatzen dute euskera baina, adibidez bulego batera, ofizina bateko lana, ez? ba nominak dirala edo fakturak dirala edo ez dakit zer, ba horiek egiten ditugu euskeraz eta erderaz, ba gehienak erderaz ari dira, ze esaten digute praktiketara joaterakoan erderaz dirala paper guztiak, orduan hobeto erderaz egitea ohitura hartzeko, horregatik ez dakit, euskera noizbehinka eskatuko da (...) baina gero paperak eta guztiak bete behar dituzunak denak erderaz dira" (3T,16).

- Mekanika arloa: arlo honetan ikasten ari direnak ez dute hainbeste arazorik ikusten praktikak gaztelaniaz badira ere; hiztegi arazoak sor daitezke (erreminten izenak), baina, gainditzeko errazak direnak ("euskeraz ez dago askotan izenik" -3T,17).

Euskaraz ikastearen beste desabantaila dagoen ikasketa material urria da. Lehenago aipatu dugun bezala, edo material gutxi dago edo edizio zaharrak dira; hau arazotsua da, euskaraz <osorik> ikastea aldarrikatzen dute. Gai honetan, erakundeen -bereziki, Eusko Jaurlaritzaren- erantzukizuna eskatzen dute, materialak itzultzeko eta gaurkotzeko.

Gaztelaniaz ikasteak, aldiz, abantaila praktikoak ditu, hau da, alde batetik, ikasketa material nahiko eta ugari, eta bestetik, lan mundurako eta praktiketarako oportunitate gehiago zabaltzen ditu. Gaztelaniaz ikastearen kontrakoa nortasun mailan dago, hots, ez da euskarazko gaitasunik lortzen, ez da bertako hizkuntza eskuratzen (eta hau oso garrantzitsua da gazte hauentzat).

Gaztelaniaz ikasteak ez du bestelako desabantaila praktikorik, baina, hala eta guztiz, gazte hauentzat pena merezi du euskaraz ikasteak, beraientzat nortasun balioa oso garrantzitsua delako, orduan, euskaraz ikasteak dituen kontrakoak gainditzen dituzte ("eske

gu erderaz hasten baldin bagara!" -3T,18).

### ETORKIZUN HURBILA: UNIBERTSITATEA ETA LAN MUNDUA.

**UNIBERTSITATEA.-** Goi mailako ikasketak beste mundu bat adierazten dute: geroari begira, lan munduarekiko hurbiltasuna. Beste maila ezberdina da, lan munduari lotuagoa (zentzu berezi batean: ikasketa mota hau lan munduarekin erlazionatzen dute). Unibertsitateko ikasketak aipatzerakoan, irudi ahula dago unibertsitatearen egoerari buruz euskararen inguruan; bi ezaugarri ezkor agertzen dira:

- Goi mailako mundua gaztelaniazkoa da nagusiki: ikasketa gehienak gaztelaniaz edo elebidunak dira.

- Euskal adarra dagoen ikasketetan, bere irudi ahula: edukinetan maila bajua dago eta irakasleen euskara maila ahula da.

Euskal adarreko irudi hau ez da oso erakargarria ikasleak bereganatzeko. Bereiztuko ditugu bi taldeetan agertu diren jarrerak eta beraien arteko interakzioa adierazgarriak direlako:

- B eredutik gaur egun D ereduan dauden gazteen taldean (5bisT) bi jarrera agertu dira. Alde batetik, jarrera (motibazio) sinbolikoak indarra hartzen du: gazte hauek euren nahia euskaraz jarraitzeko azpimarratzen dute; honen arrazoia bat bakarra da: nortasun sentimenduak bultzatzen ditu euskararen egoera ahulari aurre egiteko:

"Nire nahia da euskeraz segitzea, euskeraz ikasten segitzea, nik ikusten badet maila oso bajua dana, ba saiatuko nintzateke euskeraz egiten baina beste erremediorik ez banu..., ba erderaz egingo nuke, hori da txarrena konformatu egiten gerala ta..." (5bisT,56-7).

Aipamenean oso argi ikusten da <sakrifizioa> egin behar baldin bada (hots, euskal adarraren egoera ahula jasan beharra) prest daudela euskaraz ikasten jarraitzearen eta egoera ahul hori gainditzen laguntzearen.

Beste aldetik, jarrera pragmatikoak indarra hartzen du: euskarari buruzko ziurtasun maila kontuan hartzekoa da, eraginkorra izan daitekelako karrera batzuetan behintzat; adibidez, <elektronika> karrerari buruzko aipamena dago, gaztelaniaz dagoela eta ez euskaraz, baina, euskaraz egongo balitz ere, agian, errezagoa izango litzateke gaztelaniaz egitea euskararen ziurtasun mailaren arabera (hitz teknikoak gaztelaniaz ezagutzen direlako...):

"Neri ez zait axola eman euskeraz edo erderaz baina ematen du zuk gaiek, nik gaiek ikusi det piskat eta iruditzen zait hori euskeraz ematea ba..., ez zailagoa..., baina, ez dakit, gutxiago ulertuko dezula" (5bisT,59).

Jarrera sinbolikoa duten gazteek erantzun egiten diote besteari ez dagoela arazorik hizkuntza biak ondo menderatzen badira, eta azkenean, hitz teknikoak berdinak izango direla euskaraz ala gaztelaniaz. Oso jarrera sutsua da nortasun balioa azpimarratzen dutenena.

- Betidanik D ereduan ikasten ari diren taldean (4T) beste bi jarrera agertu dira. Alde batetik, jarrera praktiko-sinbolikoa, euskaraz ikasteko "erreztasun" gehiago eta "ohitura" dutenek euskaraz jarraituko dute; nolabait, arrazoi hauen azpian oinarri sinbolikoa dago, baina, gazte hauek ez dute hori esplizitoki adierazten; esplizitoki, arrazoi <praktikoagoak> adierazten dituzte. Arrazoi praktiko horiez gain, kalitate dimentsioa ere aipatzen da (nahiz eta azpimarratu ez).

Beste alde batetik, jarrera pragmatikoa dago. Gaztelania aukeratuko da goi mailako ikasketen hizkuntza gisa arrazoi bategatik: gaztelania delako esparru publiko eta lan munduko hizkuntza nagusia; hori dela eta, UBIRarteko ikasketak euskarazko gaitasuna ematen dute, orduan, gaitasun hori lortu eta gero, beste mailara igarotzeko gaztelania egokiagoa da. Argumentazio hau arriskutsua da euskararekiko: derrigorrezko ikasketan edo ikasketa ertainetan (UBIRarte) euskara eta euskal kultura ikasten da, orduan, hori ziurtatuta izanik, goi mailako ikasketetarako beste ikuspegi bat dago, pragmatikoa; maila horretan euskarak, gaur egun, ez du tokirik edo oso toki mugatua du, orduan, gaztelania denez nagusi gaztelaniaz ikastea baliagarriagoa da (gainera, euskara ezagutzen da ertainetan ikasi delako). Aipamen hau oso adierazgarria da:

"Nik uste kultura bat euskeraz jaso degu orainarte, baino nik pentsatzen det



mundua ez dela euskalduna, orduan, nik ikasi behar det jeneralean dagoena, erdera dago, orduan ni erderaz erabili behar det eta terminoak eta definizioak eta formulak erderaz jakin behar ditut zeren euskeraz ikasten akotatzen zera bakarrik Gipuzkoa, Bizkaia... Gipuzkoa, Bizkaia Araba ez (barre), orduan zer? (...) ni uste det euskera jakitea oso ondo dago baina euskera euskeraz izanda hau dana katalanez Katalunian egiten den bezala, katalan guztiek dakite baino hemen ez da posible" (4T,72-3).

Jarrera pragmatiko hau ingurune erdaraduna duenak adierazten du (euskaraz hitzegiteko ez du erreztasunik). Euskararen gizarte mugak ikusita, haustura bat egiten du ikasketa ertain eta goi mailakoen artean: lehenengoetan, euskarazko gaitasuna lortu behar da; baina, hori lortu eta gero, beste maila batera (lan munduari lotuta dagoena) igarotzean, gaztelania nagusi denez gaztelania aukeratzen da. Zentzu honetan, euskara maila berezi batera mugatuta gelditzen da, nolabait, hitzegiteko mailara (maila tekniko-profesionala, hots, lan munduarena, galtzen duelarik). Beste modura: euskara baliagarria da nortasun hizkuntza delako, baina, horrez gain, gaztelania <ezinbestekoa> da hizkuntza nagusia delako. Jarrera honek euskararen balio sinbolikoak onartu arren, ez ditu balio hauek azpimarratzen, horregatik, egoeraren arabera, balio pragmatikoak garrantzizkoagoak izan daitezke.

Arrazoi <praktiko-sinbolikoak> dutenak euskara aukeratzeko, erreztasuna dute euskaraz (eta hau ezaugarri garrantzitsua da, gure ustez, aukera bat ala bestea egiterakoan, beste ezaugarriren artean). Jarrera pragmatikoa <ulertzen> dute nahiz eta beraiek aukera hori ez egin ("eske erdera hobeto etortzen zaizu, egia da" -4T,72). Ez diote jarrera pragmatiko honi erantzunik ematen arrazonamenduarekin bat datoze delako (nahiz eta bere aukera hori ez izan). Gazte hauen erantzun falta aipatu beharrekoa da, azken finean, nahiz eta eurek euskararen aukera egin, aukera hori ohitura eta erreztasunagatik azaltzen den neurrian ezin diote ezaugarri horiek ez duenari hori arrazoitu; badirudi, arrazoi horiez gain ez dutela besterik (ikusit dugunez, 5bis taldean nortasun arrazoiak gehi arrazoi praktikoak adierazi dira). Talde honetan, jarrera pragmatikoa duenari euskaraz ikasteari jarraitzeko arrazoiak eman beharrean, euskararen egoera ahularen arrazoiak ematen diote, hau da, euskara katalana baino ahulago dago arrazoi historiko-politiko batzuegatik (migrazio handia, burgesia gaztelaniaz, euskaradunak lotsaz, euskara zailagoa...). Horrez gain, gaur egun,

euskararen gizarte ospea katalanarena baino mugatuagoa da pertsonai publikoak, politikariak bereziki, gaztelaniaz egiten dutelako:

"hori da baita ere gobernuak eraman duen politika zea bat, ni, iruditzen zait adibidez, ba euskera ez dute ezarri Katalunian ezarri zuten bezela eta gobernuak beti edo ia beti esango dizut erderaz mintzatzen da, gure gobernuak beti ia beti erderaz mintzatzen da" (4T,73).

Azpimarratzekoa da gazte euskaradun eta euskaltzale hauek ez dutela arrazonamendurik goi mailako ikasketei buruzko jarrera pragmatikoari aurre egiteko. Honen esplikazio bat honako hau izan liteke: <besteak> dimentsio pragmatikoan kokatu duenez bere planteamendua, dimentsio pragmatikoan bilatu nahi dituzte euren arrazoiak ere, baina ez dituzte aurkitzen arrazoi sendorik, azken finean, <bestearen> planteamendua ulertzen (eta, nolabait, onartzen) dutelako. Euren arrazonamendua egoera horren azalpenarekin betetzen da (hots, zergatiarekin), baina, egoera horri aurre egiteko ez dute planteamendurik <bestearen> aurrean azaltzeko (nortasun arrazoirik ez dute erabiltzen kasu honetan).

Unibertsitatearen irudia hobetu beharra dago, euskal adarra motibazio sinbolikoengatik soilik aukeratzea ez delako euskararentzako komenigarriena etorkizunari begira (kalitate kontzeptua sartu beharra dago, dimentsio ezberdinetan); euskal adarra erakargarria izan behar da bere aukeraketa indartzeko eta hori lortu daiteke bi alde azpimarratuz: barneko kalitatea eta irudia sendotuz eta gizartearen eskaera profesionala euskaraduna bermatuz. Bestela, gazte euskaradun eta euskaltzaleek, arrazoi sinbolikoez gain (eta badirudi maila honetan ez direla beti nahikoak gazte hauentzat ezta), ezingo dute beste planteamendu pragmatikoei aurre egin euskarazko goi mailako ikasketei buruz. Arrazoi pragmatikoen hutsunea eraginkorra da ikasketa maila honetan, azken finean, goi mailako ikasketak gizarteari, eta bereziki lan munduari, begira daudelako (eta gazte hauek nortasun arrazoiez gain arrazoi pragmatikoak ere behar dituzte <besteei> aurre egiteko; ikusi dugunez aurreko bi taldeetako interakzioetan, gazte hauen artean arazoak daude goi mailako euskarazko ikasketei buruz erantzuteko).

**LAN MUNDUA.**- Esparru hau bi dikotomiak gurutzatzen dute: BARNE/KANPO dikotomiak Euskal Herriko eta atzerriko muturrak adierazten ditu; PUBLIKO/PRIBATU

dikotomiak, lan mota adierazten du. Euskal Herriaren kasua (BARNE muturra) beste dikotomiako bi muturrekin gurutzatzen badugu argi ikusiko dugu zer gertatzen den euskararekin:

- **BARNE/PUBLIKO:** Euskal Herrian garrantzi handia hartzen du euskarak lanaren posibilitateari begira lan publikoa edo publikoari zerbitzuak (banketxeak, dendak...) direla eta. Ondo ikusten da esparru publikoetan euskara eskatzea. Are gehiago, bi kexa daude: alde batetik, ahozko erabilera soilik eskatzen dela eta ez hainbeste idazketa mailan; eta bestetik, ahozko erabilera ez dela beti betetzen (Diputazioko eta jaurlaritzako hainbat kasu aipatzen dira). Azkenean, euskara baliagarria da baina ñabardurekin.

- **BARNE/PRIBATU:** Mundu pribatuari begira, euskararen garrantzia mugatua da; esparru berezi honetan, euskarak beste hizkuntzekin lehiatzen du (ingelesa, alemaniera) eta lehia horretan ez da garrantzitsuena.

Egoera hau dela eta, euskararen garrantzia lanerako mugatua ikusten da, gaztelaniaren nagusitasuna, aldiz, nabaria da; Euskal Herri barruan gaztelania euskara baino beharrezkoagoa da. Gazte hauen desio mailak eta errealitateak elkarjozen dute: desio mailan gehiago nahi da, baina, errealitateko egoerak, momentuz, ez du desio hori betetzen:

"Orain..., orain ate batzuk eta hemendikan aurrera igual ate, ate gehiago edukiko ditu" (5bisT,64).

**KANPO** muturra gaztelaniarena da; euskarak ez du zereginik Euskal Herritik kanpo. Gaztelaniaren nagusitasuna mutur honekin sendotuta gelditzen da.

Hala eta guztiz, diskurtso honetan kokatzen diren gazteek (inplikazio gutxiko jarrera adierazten duenak ezik, goi mailako ikasketei buruz jarrera pragmatikoa adierazi duenak) euskararen gizarte ahultasun hau (dikotomia bien arabera) gainditu egiten dute, hots, ez dute euskara baztertzen gaztelaniaren nagusitasunagatik; alderantziz, euskararen indartze prozesua aldarrikatzen dute, eta horrekin batera, <euskararen aukera> egiten dute nortasun balioagatik (balio pragmatikoak bigarren mailan utziz):

"Es que me da igual que tenga ventajas o desventajas, o sea, es mi idioma"

(6T,86).

Ikusi dugunez, lan munduaren eta goi mailako ikasketen inguruan haustura bat dago: hizkuntzaren nortasun garrantzia, orokorrean, azpimarratzen da (hots, nortasun balioak laguntzen du maila horretan euskarak dituen mugak gainditzen), baina, maila honetan, gazte hauen artean jarrera pragmatikoa ere agertzen da (euskararen mugak direla eta). Zentzu honetan, azpimarratzekoa da, euskararen erreztasuna edukitzea eraginkorra izan daitekela goi mailako ikasketen aukera egiterakoan (jarrera pragmatikoa adierazi duten gazteak, erreztasun maila txikia zuten), beste ezaugarriren artean, noski (adibidez, nortasun balioari ematen zaion pisu berezia...).

- **KALEA.**- Gazte hauek bizi duten kalea edo esparru publikoa gaztelaniaz da ("Donostian hizkuntza bakarra dago, erdera, así de claro" -4T,52). Gaztelaniaz <inguratuta> sentitzen dira, nolabait, egoera horri aurre egitea ezinezkoa zaie. Euren posizioa kontraesanetan dagoela onartzen dute, hots, diskurtso mailan -ideologikoki- euskara erabili behar dela aldarrikatzen dute, baina, gero, egunerokoan, gaztelania da beraien komunikazio hizkuntza nagusia. Gaztelaniaz egitea <automatikoa> da bi zentzuetan:

- Euskaraz erreztasunik ez dutenek gaztelaniaz ez dute <pentsatu> behar adierazpenak nola egin (euskaraz bai); hau da, ez dute razionalizatu behar interakzioa. Kasu honetan, hizkuntzaren komunikazio gaitasun ahulak eragiten du gaztelaniaren automatismoa.

- Euskaraz erreztasuna dutenen artean, gaztelania automatikoa da ez hizkuntzagatik, inguruneagatik baizik:

"Nere kasua da gehien entzuten detena, gehien entzuten detena gaztelera da, orduan, automatikoa..., pentsatuko banu, agian euskeraz hitzegingo nuke"  
(4T,86).

Euskaradun osoak ez diren gazteak euren komunikazio gaitasunaren ziurtasun falta dute, hots, <lotsa> euskaraz hitzegiteko euskaradunekin (hau argi ikusten da B eredutik A ereduaren daudenen artean). Euskaradun osoak direnak, ziurtasun falta nabaria dute ere bai, baina, zentzu ezberdinean: ingurune erdalduna gainditzeko ziurtasun falta, hots, euskaraz

egiteko gizarte legitimitate falta. Euskaradunaren irudia aztertzerakoan adierazgarria da beraiek bezalako gazteak ez daudela irudi horretan edo ez behintzat irudi horren oinarrian. Euskaraduna <herrikoa> da (baserriko ezaugarriak bilduz: musu gorria, zudur luzea, euskal azentoa,...) bereziki. Hiriko euskaradunak beste ezaugarri batzuk ditu:

— Adinarena: zahar edo gaztetxo (gazte ere bai, baina bigarren mailan) izatea (helduak ez daude).

— Euskaradunen jazkera <ez pijoa> da: "hippie", "normal", "más sencillo", "más cómodo"; hau da, jazkera <moderno> ez zaio automatikoki euskaradun irudiari lotzen; adibidez, 6T taldeko neska batek aipatzen du berari ez diotela euskaradun itxura hartzen (jazkera moderno darama):

"A mí no me pega hablar en euskera, o sea, por lo menos me lo ha dicho un montón de gente <¿y hablas euskera?> pero alucinados" (6T,38)

— Alde Zaharreko tabernetan ibiltzen da.

— Ideologia aldetik, abertzalea (bereziki, ezker abertzaleari lotuta).

Ezagun/ezezagun dikotomiak funtzionatzen du euskararen inguruan. Ezagunekin, euskaradunak direla jakinda, euskaraz egingo dute. Ezezagunekin, beti lehenengo hitza gaztelaniaz izango da. Joera honek argi adierazten du euskararen gizarte legitimitate falta; <besteari> ez baldin bazaio euskaradun irudia somatzen gaztelania izango da interakzioaren lehenengo hizkuntza; euskaradun irudia mugatua denez, beraiek bezalako gazteekin gaztelania izango da lehenengo hizkuntza eguneroko egoera <normalean>.

Hirian, kale mailan, <oztopoak> eta <eragileak> daude euskaraz egiteko. Euskaradun ez osoak (Btik An daudenak) eta euskaradun osoak (Btik Dn eta betidanik Dn daudenak) oztopo/eragile bereziak dituzte euren ezaugarri ezberdinak direla eta. Alde batetik, euskaradun ez osoak oztopo berezia dute euskaradun osoekin (Dkoekin) bi zentzuetan: alde batetik, lotsatzen dira ez dutelako euren hizkuntzaren komunikazio gaitasunaren ziurtasunik; euskarazko interakzioa razionalizatu behar dute, ez dute hizkuntzaren etorrera errezik, orduan, gaztelaniara jotzen dute; baina, bestetik, euskaradun osoak dira arazoa, ez dutelako

euskarazko interakzioa bultzatzen beraientzat aspergarria delako ("baina ezin da, hitzegin behar dut poliki eta taberna batean zaudenean ez zaude euskaltegiko irakasle bezala poliki hitzegiten" -7T,38). Euskaradun osoen jarrera hau ulergarria da eguneroko interakzioak behar dituen ezaugarriak hausten direlako komunikazio gaitasunen desoreka honen inguruan; hala ere, euskaradun ez osoek eskolaz edo euskaltegiak gain kaleko guneko praktika berezia behar dute, eta zentzu horretan, koadrilaren barruan konponketaren bat egon behar da hori bermatzeko (hala eta guztiz, euskaradun ez osoek komunikazio gaitasun sendoa lortu beharko lukete eskola/euskaltegi gunean, kaleko guneko praktika errezteko eta desoreka hori gainditzeko). Euskaradun osoen jarrera hori desmotibatzailea da komunikazio gaitasunaren bila doan euskaldunarentzat praktika eta ziurtasuna mozten dizkiotelako; aipamen hau adierazgarria da:

"Momentu horretan ba ez nuen oso ondo euskeraz hitzegiten eta bapatean esaten dit lagunak <ay, deja de hablar en euskera y habla en castellano que se te entiende mejor>, horrek uzten zaitu gogorik gabe; klaro zure esku dagoela baina baita ere besteen jarrerak asko eragiten du zugaran" (7T,38).

Alderantziz, bi eragile agertzen dira euskararen erabilera, nolabait, bultzatzeko: bata, ingurune euskaldunean egotea jai giroan, edanaren inguruan..., hau da, <oztopo razionalak> baztertu ahal dituzten egoeran:

"En lo viejo, si voy un poco piripilla con las amigas y tal muchas veces en euskera (...) pero luego vas al centro y ya puedes ir lo mismo de piripilla pero no hablas euskera ni queriendo" (6T,32).

Bestea, euren hizkuntza mailakoekin hitzegitea (Bkoekin, gaur egun An daudenekin), hau da, batak ez du besteak baino askoz hobeto hitzegingo, orduan, hierarkiarik gabe eta komunikazio gaitasun antzekoarekin lasai hitzegin dezakete bata bestea asperturik gabe.

Euskaradun osoen artean, oztopo hauek dira azpimarratuak:

- Hiriko interakzioan parte hartzen duten <pertsonai> bereziak:

\* <euskararen kontrakoak> (ez dute nahi euskeraz egiterik nahiz eta jakin; kanpotarrak izan daitezke baina baita ere bertakoak, ez abertzaleak);

- \* < kanpotarrak > (ez dakite euskaraz; batzuk, euskaltzaleak dira - hauei, barkatzen zaie ez jakitea- eta beste batzuk kontrakoak);
- \* < euskaldunberriak > (euskaraz badakite, baina, lotsatu egiten dira hitzegiten ziurtasun faltagatik);
- \* < B eredukoak > (komunikazio gaitasun faltagatik gaztelaniara jotzen dute).

- Hiriko < toki > bereziak; Txepetxek askotan adierazten duen bezala, ez dira tokiak toki horiei eransten zaizkien ezaugarriak baizik, hizkuntza baten ala bestearen erabilera eragiten dutenak:

- \* Dendak (hiri-erdiko dendak). Erosketen mundua orokorrean eta, bereziki, jantzi dendak, gaztelaniari loturik doaz. Gazte hauek ez badute agiriko zeinuren bat ikusten dendan euskaraz badakitela gaztelaniaz egingo dute. Gainera, dendetan daudenen irudia erdaldunarena da, hots, euskaraz ez dakienarena. Talde batean (6bisT) ikertzaileak proposatu zuen egun osoa euskaraz egingo balute eta denda batera joan zer gertatuko ote zen, taldearen erantzuna adierazgarria izan zen: "seguro que no compras nada -barreak-" (6bisT,44).

- \* Diskoteka. Alde batetik, diskotekaren giroa < ezezagunen > giroa da bereziki eta ezezagunen artean euskaradunek gaztelaniaz egiten dute < bada ez bada >. Bestetik, diskotekaren elementu adierazgarriak ez dira euskaradunak (askotan gaztelaniakoak ere ezta, anglosajonak baizik): musika -bakalao, ingelesez...-, edarien kartelak gaztelaniaz:

"zu nahiz eta diskoteka baten egon, giro euskalduna badago, nahiz eta jarri bakalao edo edozer, ba euskaldun giroa baldin badago ba euskaldun giroa dago" (3T,55).

Tokiaren < giroa > garrantzizkoa da, azken finean, helburua toki euskalduna izatea delako. Baina, zeri deitzen diote gazte hauek < giro euskalduna >? Alde Zaharreko tabernetan dagoen giroari deitzen diote horrela; honek esan nahi du, taberna horiek ezaugarri batzuk dituztela:

eskaera euskaraz, musika euskalduna (euskal taldeak, euskaraz nahiz gaztelaniaz abestu), agerian dauden zeinuak euskaldunak dira (kartelak, pegatinak...), euskaraz eta gaztelaniaz. Azken finean, giro euskalduna deitzen diote ez euskararen erabileragatik, agerian dauden zeinuengatik baizik. Diskotekak, bere izaeragatik -dantzaleku, bereziki- ez ditu tabernak dituen ageriko zeinu horiek (eta dituen ageriko zeinuak -musikaz gain, hau normalean ingelesez delako- gaztelaniaz soilik daude. Gazte hauek ez dute, egunerokoan, euskararik erabiltzen ez tabernetan (eskatzeko ez bada) ez diskoteketan, hala eta guztiz, bien arteko diferentzia honetan datza: ageriko zeinuak batean euskaraz (eta gaztelaniaz ere bai) daudela eta bestean gaztelaniaz soilik.

\* Hiri-erdiko tabernak. Donostiako hiri-erdian (<zona>) dauden tabernetan ez dira egunerokoan ibiltzen. Toki berezi horrek bi adierazle ditu: gazte <pijoak> biltzen dira egunerokoan eta giro <ez abertzalea>, ez euskalduna dago. Gazte <pijo> horiek ez dute euskararekin zer ikusirik nahi, ez dira euskaradunak (A ereduak dira, eskola pribatuetakoak). Diskurtso honetan kokatzen diren gazteen giroarekin ez dute harreman zuzenik. Gazte euskaradun eta euskaltzaleak ez dira eroso sentitzen giro horretan eta joaten direnean ez dute euskaraz eskatuko ere; giro horretan euskaraz eskatzea ingurunearen <eredua> haustea izango litzatekelako (nolabait, euren egunerokoa alde zaharreko tabernak dira, giro abertzalea eta euskaltzalea).

\* Agerian dagoen ingurunea. Gazte hauek kexatzen dira kalean edo esparru publikoan agerian dauden zeinu guztiak (kartelak, pegatinak, trafikiko seinaleak, iragarkiak, paper ofizialak, etab.) gaztelaniaz daudela nagusiki (toki irekietan izan edota itxietan), hots, <ikusten> dutena ere gaztelaniaz dagoela, horregatik, esan daiteke gaztelaniaz <inguratuta> sentitzen direla, ez soilik harremanengatik, inguruneke elementuengatik ere bai).



— Euskararen erabileraren eragileen artean honako hauek daude:

- hiriko interakzioan parte hartzen duten <pertsonai> bereziak:

\* Herriko jendea. Herriko jendeak, gazteak, euskara sartzen du hiriko harremanetan. Euskal ohitura dutenez, hirikoekin ere euskaraz egiten dute. Talde batean aipatzen da alde zaharreko tabernetan euskara gehiago entzuten dela herriko jendea bertan ibiltzen delako.

\* Ikastolako gazteak. Badirudi, ikastolako gazteek ohitura gehiago dutela euskara erabiltzeko, eta horren arabera, beste euskaradun gazteekin euskara erabiltzeko aukera gehiago daude.

\* Euskaradun inplikatuak. Gazte hauek euskaraz egingo dute beste euskaradunak euskaraz egiten badie, hau da, euskaraz <erantzungo> dute, eta gustora erantzun gainera euskaraz egiten badiete.

- Hiriko toki bereziak:

\* Alde zaharreko tabernak. Euren eguneroko aisialdia alde zaharreko tabernetan egiten dute; bertan giro euskalduna aurkitzen dute, baina, azaldu dugun bezala, <giro> horrek ez du bereziki zer ikusirik euskararen erabilerarekin, agerian dauden zeinuekin gehiago erlazionatzen da: kartelak, pegatinak, musika (euskal musika, euskaraz ala gaztelaniaz izan). Horrez gain, eskaera beti euskaraz da, nahiz eta tabernariak euskaraz hitzegiten jakin ez; azken finean, eskariak <konsigna> bezala funtzionatzen dute ("zurito bat", "gorri bat"... ) eta hori errez adierazi eta uler daiteke - erdaradunak ere egiten dute; ezaugarri hau da tabernaren eta dendaren arteko ezberdintasun nabari bat: tabernan, eskaerak konsigna bezala funtziona dezakete -eskaera motzak dira, azalpen gabekoak, ohizko eskaeren izenak ezagutzen dira; alderantziz, dendan, adierazpen zabalagoa behar da produktuen arabera (oinetakoak edo prakak izan; okela edo arraina izan...), produktu askoren euskal izena ez da ezagutzen, horregatik ere, zailagoa da euskara sartzea. Gazte hauentzat, gainera, taberna hauek euskal giroa dute jende euskaltzalea biltzen delako: "Euskaltzaleak dira, o sea abertzalea, askoz abertzaleagoa da alde zaharrea, ez, o sea, ez da euskeraz hitzegitea bakarrik, o sea, erderaz asko hitzegiten da..., baino giro euskaltzaleagoa da" (5bisT,14-5). Zentzu honetan, esan

dezakegu gazte hauentzat garrantzitsuagoa dela beste gazteekin biltzen direnean euskaltzaletasunaren (hau da, abertzaletasunaren) giroa euskaradun giroa baino.

Aipatzekoa da, alde zaharreko dendek bertako tabernen irudiaren eragina dutela; alde zaharrean daudenez, eta ingurune honek euskaldun ezaugarria duenez, gazte hauetariko batzuen jarrera euskaraz egitea da; aipatzen diren adibideetan dendariak ere euskaraz zekiten (hala eta guztiz, beste gazte batzuk, dendetan - nahiz eta alde zaharrekoak izan- ez dute lehenengo hitza euskaraz egiten ez badute ageriko zeinurik ikusten).

- **Festak.** Gazte hauek kaleko egunerokoa gaztelaniaz dute, hala ere, salbuespena festetako garaia da. Aldameneko herrietako festetan euskaraz egiten dute eta, horrez gain, Donostiako hainbat festetan (Porrontxoak, santotomasak,...) euskararen erabilera gehiago sartzen dute (euskaraz motelago egiten duten gazteek ez dute jarrera hau, gaztelaniaz egiten dute ziurra gaztelaniaz jakitea delako):

"Neri gertatzen zaidana da beti pentsatzen dutela ulertuko nauela nahiz eta euskeraz ez jakin ulertuko nau, orduan ez det pentsatzen eta orain hasiko zait no te entiendo esanez eta hori" (4T,107-8).

Aipamenean ikusten den bezala, <bestearen> euskararen ezjakintasunaren irudia <ulermenaren> irudira bihurtzen baldin bada ("ulertuko du") eragilea izan daiteke gazte hauen lehenengo hitza euskaraz izan dadin. Bata bestearen ezagupena zein hizkuntzatan izan garrantzitsua da geroko harremana hizkuntza horretan izango delako (hizkuntza aldaketa ez da erreza).

Gazte hauen aisialdian hiru harreman mota (ekintza mota) oinarrizkoak dira:

- **Kirola**, alde batetik. Kirolaren inguruan oinarrizko faktorea dago: monitorea. Taldekideek euskaradunak badira ere, monitorea erdaraduna baldin bada gaztelania izango da komunikazio hizkuntza. Aipatzen dira egoera batzuk, zeinetan taldekideak euskaradunak diren (nahiz eta batzuk euskaradun osoak ez izan, baina, bai euskaraz ulertzen dutenak) eta monitorea gaztelaniaz egin erreztasunagatik (errepikapenak edo gaizki ulertzeak

baztertzeko). Taldekideen artean ere, askotan erdaradunak eta euskaradunak biltzen dira, kasu horietan komunikazio hizkuntza gaztelania da beti (askotan, denak euskaradunak izanda ere, gaztelaniaz egiten dute). Monitorea eta taldekideak euskaradunak direnean, egoera hoberena da euskaraz egiteko.

- Bestetik, aisialdi taldeak umeekin. Gazte hauetariko batzuk monitorea gisa ibiltzen dira umeekin. Ekintza honetan ere egoera ezberdinak daude: talde batzuetan ume euskaradunak eta erdaradunak biltzen dituzte, hizkuntza amankomuna -gaztelania- erabiliz. Hau gertatzen denean, bi egoera agertu dira: lehenengoan, umeak hizkuntzaren inguruan banatzea < marginazioa > izango litzateke, oso gutxi daudelako euskaradun osoak -gehienak A eredukoak dira ("hombre, egin dezakegu -banaketa- baina, jo! da oso marginatua uztea, lau handik eta beste hogeitasei handik" -5bisT,35); bigarrenetan, aldiz, hasieran euskaradunak eta erdaradunak biltzen zituzten, baina, beti gaztelaniaz egiten zuten eta aldaketa prozesuan ari dira euskaradunak alde batetik eta erdaradunak bestetik biltzeko (Kutxaren kolonietako antolaketa kontuan hartuz) ("sí, en la Kutxa ya hacen eso, hemos recogido información (...) y la Kutxa las colonias hace así, pone como bilingües, cada uno pues, es que sino también es..." -6bisT,51). Auzo bakoitzaren egoerak eragiten du posibilitate ezberdinak, baina, beharrezkoa da ume euskaradunak euskaradunekin biltzea, bestela, hizkuntzaren ohitura gaztelaniarena izango da. Zentzu honetan, beste aisialdi maila batzuetan berdin gertatzen da, hots, euskaradunak eta erdaradunak biltzen direnean hizkuntza amankomuna nagusitzen da:

"Igual en las reuniones hablas en castellano, pero eso es porque pues eso lo de siempre, porque hay igual gente que no sabe euskera, entonces si no quieres que esté el tío así que no se entera de nada, no te queda otro remedio de comunicarte, es la cosa de la comunicación. Luego también en las cuadrillas pasa lo mismo, tenemos reuniones de cuadrillas y es que es lo mismo, o sea todo es lo mismo" (6bisT,50).

- Azkenik, baina ez garrantzi gutxiena duena, koadrila harremana. Gazte hauen oinarrizko aisialdi harremana koadrilarena da. Koadrilarekin burutzen dute astebukaerako ekintza gehienak, eta bereziki, gauekoak, hau da, tabernetan ibiltzea. Koadrilak, orokorrean, euskaradunak eta erdaradunak osatzen dira, orduan, hizkuntza amankomuna da erabiltzen dena, hots, gaztelania. Koadrila kideak euskaradunak direnean denak, askotan, gaztelania

erabiltzen da (beste batzuetan, euskara). Koadrila harremanaren hizkuntza aldaketa oso zaila da, orduan, aldaketa proposatzeko eta aurrera eramateko kideen <baimena> behar da, hots, denen adostasuna, bestela, ezinezkoa da, azken finean, kideekin harremana haustea izango litzatekelako:

"Zure inguruan dagoen jendeak ez baldin badu zugaz holan pentsatzen, ba benga jarriko gera denak horrela eta <benga, lehendabizi euskeraz hitzegingo degu> eta saiatuko gera ahal degun gehien egiten, baino zure ondoan ez baldin badaukazu inor zuk bezala pentsatzen duenik..., zaila da egitea" (5bis,T,83).

Koadrilaren hizkuntza aldaketa posible izan dadin ezaugarri minimo batzuk behar ditu: kide denek edo gehienek euskarazko komunikazio gaitasun maila bat edukitzea eta aldaketa horrek suposatzen duen esfortzua asumitzea. Ezaugarri hauek daudenean ere, euskaraz hasi baina gaztelaniaz bukatzen dute, eta horrek frustrazioa dakarkie. Interakzioa < lana > bezala hartzen baldin bada (< euskaraz egin behar dugu >) interakzioaren oinarritzko ezaugarria apurtzen da (espontaneitatea) eta orduan oztopo bihurtzen da aldaketa gainditzeko.

Koadrilan euskaradunak eta erdaradunak daudenean hizkuntza aldaketaren planteiamendua oso zaila da adiskide batzuk baztertuta geldituko liratekelako. Adiskidetasuna hizkuntzaren gaitetik dago; begi txarrez ikusten dute adiskide bati esatea euskaraz ikasteko; adiskidea, gainera, euskaltzalea baldin bada ez dute horrelakorik egitea onartzen gogorregia delako (ez badu ikasi ez da bere <errua> delako, faktore batzuegatik baizik: etxea erdaraduna, eskola erdaraduna,...):

"eske hori ezin duzu... oso fuertea da/- eske nola esango diozu beste pertsonari zer egin behar duen, berak badaki zer egin behar duen, nik ez diot lagun bateri esango zuk egin behar duzu hau eta hau, berak badaki" (3T,27).

Koadrilan, euskaradunak dira hizkuntza biak dakitenak, orduan, normalean, eurak bukatzen dute gaztelaniaz egiten. Aipagarria da talde batean agertu den egoera: koadrila batean denak euskaradunak ziren eta bat erdaraduna eta azken honek ikasi zuen euskaraz; kasu honetan bi eragile funtzionatu dute bereziki: alde batetik, koadrilako euskaradun kideek euren arteko hizkuntza ohitura euskara zutela, orduan, euren artean, erdaradun kidearekin

ezik, euskaraz egiten zuten beti (hau, erdaradunarentzat euskararen erabileraren legitimazio iturri sendoa da, euskara hurbil eta, nolabait, beharrezko, ikusten duelako; hau da, kideen hizkuntza ohituraren aldaketaren arrazoi bakarra bera zen, bestela, kideek euskaraz egingo zuten); beste aldetik, kide erdaradunaren borondatea egoera aldatzeko eta euskara ikasteari ekiteko (horrek suposatzen duen esfortzuarekin). Egoera hau ez da <normala>, alderantzizkoa da gertatzen ohi dena (hots, euskaradunek gaztelaniaz egitea); <normalean> euskaradunek euren artean gaztelaniaz egiten dute, orduan, erdaradunak ez dun beharrik hizkuntza ohitura aldatzeko. Kasu berezi honetan, kideek ez zioten esplizitoki adiskideari eskatu euskara ikastea, hori baino eragile sendoagoa erabili zuten inplizitoki (eta, nolabait, jakin gabe): euskara erabili beraien artean, euskara agerian utzi:

"Konturatu zan, beti askotan erderaz ari zara hitzegiten eta igual berarekin erderaz hitzegiten eta beste batek zerbait esaten dizu eta besteari euskaraz esaten diozu, orduan bestea konturatzen da bere, jakin egin behar duela o sea ikasi egin behar duela"(3T,28).

Koadrila mistoetan (euskaradunak eta erdaradunak daudenetan), nahiz eta normalean gaztelaniaz egin, bi interakzio mota daude: aldamenekoarekin eta talde osoarekin. Aldamenekoarekin (euskaradun ohitura duenarekin), hau da, banakako edo binakako interakzioetan, euskara erabiltzen dute (nolabait, koadrilako azpi-taldeetan); bestela, talde osoa hitzegiten dagoenean, talde bezala, gaztelania erabiltzen dute (denek ulertzeko eta inor ez baztertzeko). Aipagarria da aldamenekoarekin gerta daiteken interakzio mota hau, euskara sartzen duelako koadrila harremanetan; gainera, gazte hauek ez dute begi onez ikusten azpi-taldeko interakzio hau erdaradunak apurtzea, hots, gaztelaniara aldatzeko eskaera egitea, talde osoko interakzioa ez delako, eta horregatik, <errespetu> falta dela kontsideratzen dute:

"Eta esan zidan <oye, no te importa, ¿no te importa que hables en castellano cuando estes hablando con Seba?> y le dije ¿y por qué? si yo estoy hablando con él, no contigo, y me dice, es que no entiendo lo que decís, quiero saber lo que decís; ba neska hori ya no me cae bien (...) ez da tolerantzia, neska horrek nahi du dena jakin, o sea, dena bere espensatan egotea eta ni baldin badago oportunitate bat euskeraz egiteko, horregaitik egingo dut erderaz!" (4T,79).

Aldamenekoarekin gertatzen den interakzioa kide horien artean egindako hizkuntza aukerarekin izan da, beste hizkuntza sartzea ez da onartzen talde osoko interakzioa ez delako:

"zu hasi zera euskeraz, zure iniziatiba izan da euskera, zuk aukeratu dezu, hori da, euskera, eta batek esaten dizunean eh, perdona, no, habla en castellano, o sea, niri hori neretzako da errespeto falta bat, baino, vamos..." (4T,80).

Ikusten denez, koadrila izan daiteke eragile edo oztopo euskararen erabilera bermatzeko. Gaur egun, badirudi, eragile baino gehiago oztopo dela, alde batetik, gaztelania delako komunikazio hizkuntza nagusia, eta bestetik, adiskideen artean hizkuntza aldaketa eskatzea ez delako onartzen euskaradunen artean ezta. Aldaketa hori banakako mailan kokatzen dute, nahiz eta beraiek -euskaradun bezala- lagun dezaketen (inplizitoki, beti) euskaraz hitzegiten eta euskararekiko interesa bultzatzen. Inoiz ez <euskara ikasi behar duzu> edo <euskaraz hitzegin behar duzu> adiskideari adierazita:

"esan dugu ezin dela inposatu horrela, derrepentean esan, zuk euskeraz hitzegin behar duzu, baina nolabaiteko sentimendua erakutsi, euskeraren eta horrela sentimendua baldin badauka euskeraren alde ba seguraski azkenean saiatuko da bera bakarrik, esan gabe, euskera ikastera" (3T,43).

Euskaradunak, askotan, gaztelaniaz egiten dute beraien artean ere; horren zergatia <ohituran> oinarritzen dute, hots, txikitatik hartutako ohituran. Bi faktore agertzen dira bereziki gaztelaniaren ohitura sendotu dutenak:

- Gaztetxotan (8. maila aipatzen da), eskola ereduari (irakasleen jarrerari, gurasoenari...), hots, <euskaraz hitzegin beharrari>, kontra egitearren (beste hainbat erduei bezala) gaztelania sartzen da. Horrekin batera, adin horietan kale gunean gehiago sartzen dira, koadrilak osatzen dira ez soilik eskolako ikaskideekin, beste eskolakoekin ere bai eta hor erdaradunekin (beste erduetakoekin, ez soilik Dkoekin) harremanetan sartzean amankomun hizkuntza sartzen da ere bai. Hortik aurrera, eguneroko erabilerak gaztelaniaren <ohitura> eragiten du.

- Beste aldetik, eta aurrekoarekin lotuta, azaldu dugu gazte hauen euskaradunaren

irudia baserriari lotuta doala gaur egun ere; irudi honek, konnotazio peioratiboak agertzen ditu euskaltzale ez direnen gazteengan (irudi ez modernoa, kultura gutxikoa, azken finean, hiriko ezaugarrietatik urrun dagoena). Euskaltzale gazteengan, aldiz, ez dago konnotazio peioratibo esplizitorik (nahiz eta aipamen batzuk egon hiritar/nekazal kontraesana adieraziz), baina, hala ere, irudi hori ez da euren bizimoduko adierazle (euskal tradizioari loturik doan adierazlea, baizik). Hiritarrak direnez, hiriko adierazleak bereganatzen dituzte eta adierazle horiek nagusiki gaztelaniak bideratzen ditu (modernotasuna, hiritartasuna,...). Euskara eta baserri irudia elkarloturik egon dira zentzu ezkor batean; horrek eragin du gaztetxo euskaradunek urrunduta izatea irudi horretatik eta horretarako gaztelaniaz baliatu dira: euskara <kaxero> izatea baldin bazen, gaztelania, <modernoa>, <hiritarra> izatea zen. Badirudi, gaur egun, irudi ezkor horren nagusitasuna ez dela orain urte batzuk bezalakoa, baina, hala eta guztiz, lehenago azaldu dugun bezala, aztarna batzuk agertu dira hizkuntzaren eta baserriaren arteko loturaren inguruan. Hau gainditzeko euskaradunaren hiritar irudia sendotu beharra dago (eta hiritar irudi horren barruan, gazte hiritar euskaradunaren irudia). Euskaradun unibertsitari batekin egindako elkarrizketan argi azaltzen da adierazi duguna:

"hasiera batean izan zan, orain dela lau urte edo, euskeraz egiten zuena <era de pueblo>, esateko <era kaxero> eta orduan jendeak, jende gazteak adibidez, gazteen artean ikasi genuen izan behar ginala <a la moda> esateko, ez? eta modan egon behar ginala eta hasi ginan erderaz hitzegiten eta jende asko ohitu egin zan eta erderaz jarraitzen du" (elkarriz.2,20).

Azaldu dugunarekin argi dago kale gunea edo esparru publikoa ez dela zurrak gazte euskaradunarentzat. Zentzu honetan, <gehiengo> erdaradun batez inguratuta sentitzen da, <gutxiengo> gizarte multzo baten partaide den bitartean. <Gutxiengo> bezala errekonozitzea norberaren burua <gutxiengo> jarrera asumitzea dakar, hots, <lotsa>, <molestatu dezakezula> euskaraz egiten baldin baduzu:

"eta gainera pizkat..., aurrerapausu bat eman behar dezu hor denda batean sartu eta euskeraz hitzegiten hasteko, gehienetan ez dakitelako..., eta orduan zuri pizkat lotsa ematen dizu" (4T,77).

Gazte euskaraduna ez da bere hizkuntzarekin eroso sentitzen gizarte interakzio mailan, azken finean, badakielako euskara gutxi dakitela eta gaztelania, aldiz, denek dakitela.

Orduan, euskaraz egiten baldin badu gizarte eredu hausten du eta haustura hori beti arazotsua da (<bestearekin> burutzen den harremana bitartekatzen duelako). Horregatik, geroago azalduko dugun bezala, euskara agerian izatea eskatzen dute, hots, <bestea> euskaraduna den ala ez jakitea, hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko; azken finean, gizarte ziurtasun baten bila dabilta

"Txarteltxo bat, hori ya lagundu egiten dizu, lasaitasun bat ematen dizu..., bestela ezin" (4T,77).

### EUSKARAREN ETORKIZUNA.

Gazte hauen artean bi jarrera daude euskararen etorkizunari buruz:

- Jarrera ezkorra, hau da, geroari buruz ez dute aldaketa nabarmenik ikusten; jarrera honek gaurko elementu bat bereziki azpimarratzen du: gaur egun ikastetxe asko daudela ez dutenak euskara ondo irakasten (ikastetxe pribatuak aipatzen dira: colegio inglés, francés...); horregatik, gaurko gaztetxo-gazte horiek biharko egunean euskaraz ez dute jakingo. Orduan, etorkizuna gaurkoaren antzekoa izango da, eta gaurkoa ez da oso baikorra -erabilera faltagatik, bereziki, baina, ezagupenaren faltagatik ere bai, eskoletan ez delako sendo irakasten-. Jarrera hau bereziki Btik A ereduaren dauden taldean agertu da, hots, euskaradun osoak ez direnen artean (agian, gaztelaniazko ingurunea hurbilago ezagutzen dute).

- Jarrera baikorra, hots, etorkizuna gaur egungoa baino hobea izango da euskararentzat. Hau bi faktoretan oinarritzen da: alde batetik, ezagupenaren kopurua handitzen doalako (jende gehiagok ikasten du euskara, eta horrekin batera, jende gehiagok ulertzen du nahiz eta ez hitzegin), eta bestetik, datozen belaunaldiek euskararen ohitura gehiago dutelako. Bi faktore hauek bi gune berezietan kokatzen dira: lehenengoa, eskola gunean, hots, eskolaren eragina oinarritzkoa izango da txikitatik euskalduntzeko esfortzurik gabe, horrez gain, euskaltegien lana ere eraginkorra da; bigarrena, etxeko gunean, hots, familia -gurasoak- gehiago inplikatu dira etxeko giroa euskaraz izateko, orduan, euskararen ezagupena eta erabilera ere bermatuko da. Euskaradunen artean, euskalduntze prozesua belaunaldiz belaunaldi enfokatzen da, eta horregatik, gazte hauen arabera, egoera geroz eta hobeto doa eta joango da (nahiz eta astiro eta laguntza beharra izan): euren gurasoek, askok ez dute posibilitaterik izan euskara ikasteko; eurak euskaraz ikasten ari dira -nahiz eta



oraindik gaztelania asko erabili ikasketetan barne-; hurrengo belaunaldiek (gaurko gaztetxoek) euskara maila hobetua izango dute eta horrek bere erabilera ere areagotuko du.

Beste alde batetik, aipatzekoa da herritarrak eta hiritarrak osatzen duten taldean (6bisT) bi jarrerak agertu direla, ezkorra eta baikorra; herritarrek jarrera ezkorragoa agertu dute, ez dutelako erabileraren hedapenik ikusten (dakitenek askotan ez dute erabiltzen eta beste batzuk ez dute erabiltzerik nahi); hiritarrek, aldiz, ikuspegi baikorragoa dute, geroz eta interes gehiago dagoelako euskararen inguruan; azken finean, fokalizazio ezberdinak dituzte ingurunearen arabera: herriko ingurunean, euskararen erabilera agerikoa denean, ezaugarri edo egoera negatiboak, nolabait, gehiago ikusten dira; hiriko ingurunean, aldiz, egoera ahula den neurrian, ezaugarri positiboak pisu gehiago hartzen dute. Aipamen hau adierazgarria da:

"Yo creo que ellos lo verán peor porque ellos son los que quieren hablar siempre en euskera, entonces vienen aquí y verán una diferencia grande, nosotros sin embargo hemos estado siempre aquí, igual vemos que cada vez va mejor, yo por lo menos de cuando era pequeña a ahora veo que hay más, que va a mejor" (6bisT,56).

Jarrera biak, ezberdinak izanik, ez dira kontrakoak, gaurkoaren elementu ezberdinak azpimarratzen dute soilik. Biak bat datoz gaurko egoeraren ebaluaketan: gaur egun euskararen egoera ez da ona, euskararen erabilera falta da bereziki. Etorkizuna ez da erreza ikusten (jarrera baikorrean ezta), hau da, azken finean, egoera geroz eta hobeto doa, baina, <prozesu> bat da eta <zaila> eta <luzea> izango da. Zentzu honetan, <desio> mailak eta <errealitate> mailak elkarjotzen dute:

"nik bi gauzak, espero dut eta gustatuko litzaidake eta seguraski nik uste dudana baino gehiago kostatuko da, baina nik hobera joko duela" (7T,41).

Euskararen etorkizuna anbigualentzia batean dago desio/errealitate muturren artean (jarrera baikorrean ere bai): gaur egungoak, errealitateak, datu ezberdinak ematen ditu (alde batetik, jende gehiagok ikasten du -inkesten emaitzak aipatzen dira, egoera positiboa objetibatzen dute-, baina, bestetik, erabilera ez da areagotzen -datuen arabera ere, horrela, egoera negatiboa objetibatzen dute-), orduan, geroaren nahia hobea izatea izan arren ez da erreza ikusten, alderantziz, zaila ikusten da: <nahia>, <esperantza> aipatzen dira.

Etorkizunerako bi gune azpimarratzen dira, ikusi dugunez: eskola, esfortzurik gabeko euskararen ikasketa oinarritzeko eta euskara ume guztiei zabaltzeko, eta etxea, familiaren inplikazioak euskararen ezagupena eta bereziki erabilera lagun dezakelako. Kaleko gunea, aldiz, aipatzen denean zalantzan gelditzen da euskalduntzeko gune zailena delako. Gaur egungo hutsunerik nabarmenena erabilerarena da (ezagupena ere garrantzizkoa da, baina, erabilera falta azpimarratzen da) eta erabilera falta hau kaleko gunean areagotzen da, hau da, gune honetan erdaradunak gehiengoa direnez euskaradunak ez dira legitimatuta sentitzen euskaraz egiteko, eta horrez gain, ez dira legitimatuta sentitzen erdaradunari ikas dezala adierazteko, azken finean, erabaki hori banakakoa izan behar delako, ez badago borondaterik ez duelako ezertarako balio (hitzegingo ez delako nahiz eta ikasi).

Zentzu honetan, gazte hauek euskara ikastearen inguruan motibazioen gaia aipatzen dute, hots, derrigortu behar den ala ez... Derrigortasuna esparru ezberdinetan kokatzen dute: alde batetik, lanaren esparruan orohar -lan publikoa baldin bada bereziki- begi onez ikusten da euskara eskatzea (gehiago eskatu beharko litzatekela ere aipatzen da), nortasun arrazoiak gain legediaren -ofizialtasunaren- arrazoiak bezero mota biei -euskaradunari eta erdaradunari- erantzuna emateko aipatzen dira. Eskola gunean begi onez ikusten da euskara sendo sartzea txikitatik, errez ikasteko, hala ere, adibidez, unibertsitarien taldean ereduaren inguruan eztabaida sortu da A ereduaren desagertu ala ez; eztabaida ez da kokatzen edukinaren mailan (hots, eredu honek ez duela euskalduntzen), horri buruz ados daudelako; eztabaida formari buruz da, hau da, batek desagertzea adierazten du eta besteak, aldiz, hori gogorregia ikusten du (banakako eskubideen arabera), hirugarren partaideak erdibideko irteera proposatzen du B ereduarekin:

"Baina B ereduaren ere, gazteleraz ondo ikasteko posibilitatea daukazu, baina klaro beti kontutan hartuz hemengo hizkuntza euskera dela" (7T,28).

Kaleko gunea da zailen ikusten dena aldaketarako etorkizunari begira, hor derrigortasunak ez duelako lekurik; < motibazioa >, < giroa sortu > dira erabiltzen diren hitzak. Azken finean, banakako borondaterik ez badago euskararen erabilera sendotu baino lehen baztertu egingo litzatekelako:

"eske giroak zerikusi asko dauka, giroa, ez dakit giro erdalduna ikusten badezu kalean ere ez daukazu inungo tendentziarik euskeraz ikasi edo

hitzegiteko, euskaldun giro batean bizi baldin bazara, ez dakit, beste sentimendu bat daukazu eta beste inizatiba bat daukazu ikasteko eta hitzegiteko" (3T,53).

Etorkizuna erabilerarekin baino ezagupenarekin gehiago erlazionatzen da, ezagupena - eskolaren bidez bereziki- errezagoa delako. Etorkizunari begira erabilera -gazteen erabilera- eskola eta etxeko guneekin erlazionatzen dute: eskolan, euskal material gehiago izango dira - euskara maila altuagoa-, etxean euskararekiko inplikazio handiagoa (umeekin hitzegiteko, umeak D ereduan sartzeko); kaleko gunea da erabileran ere zalantzan gelditzen dena zailtasun bereziak dituelako: kaleko <giroaren> aldaketa aldarrikatzen da (erdal giroa euskal giroa bihurtuz). Azken finean, hitzegitea banakako mailakoa da, orduan, bakoitzak erabaki behar du. Inplikazioaren atalean azalduko dugun bezala, gazte hauek erakundeen laguntza eskatzen dute kaleko erabileraren zailtasun horri aurre egiteko.

Etorkizunak (gaur egungokoak bezala), gazte hauentzat, maila politikoarekin zerikusi handia du, hau da, euskararen egoeraren hobekuntza (edo normalkuntza) esparru abertzalearekin erlazionatzen da (hots, gizarte multzo batekin); esparru ez abertzaleak, aldiz, ez du ezer egingo euskararen alde:


"ez dakit nola esplikatu, nola politika ari den (...), horrek kriston mina egiten dio (euskarari), segun eta ze politika erabiltzen den kriston mina egin dezake, eta orduan euskera dago hor, erdian, gorutz doala baina hor dagoela (...) segun nola doan politikaren asunto guzti hori edo beheraka doa edo pixkanaka goruz joango dela" (3T,39).

Zentzu honetan, esparru politikoaren inguruan egiten den zatiketa horrek euskarari ez dio laguntzen gizarte ziurtasuna mugatzen diolako. Gure ikerketako talde guztiek (euskaltzaleak izan ala ez) euskara politikarekin erlazionatzen dute eta bereziki esparru abertzalearekin; hala ere, zentzu ezberdinetan: euskaltzaleak ez direnak zentzu peioratibo batean, ikusi duguniez, eta euskaltzaleak direnak, zentzu positibo batean. Banaketa honen ondorio bat euskara ez dela gizarte (osoko) mailako ezaugarria da, eta horrek hizkuntzaren gizarte normalkuntza bera baldintzatzen du.

## 6.2.- Hizkuntzaren gizarte izaera.

### 6.2.1.- Hizkuntzaren funtzioak.

Atal honetan euskarak eta gaztelaniak betetzen dituzten funtzioak aztertuko ditugu, gizarte/banakako ardatza hizkuntzekiko nola kokatzen duten ikusteko.



- **JATORRIZKO FUNTZIOA:** Diskurtso honetan kokatzen diren gazteek, batzuk euskara dute etxeko hizkuntza eta beste batzuk gaztelania. Euskararen erabileran bereizten da batzuen eta besteen erreztasun maila (etxean euskara dutenak hitzegiteko erreztasun gehiago dute, etxearen <aseguroa> dute). Hizkuntza bati, euskarari kasu honetan, funtzio hau betetzea oinarritzkoa zaio bi zentzuetan: batetik, euskararen transmisio praktikoa ziurtatzen delako (erabileraren erreztasuna lortuz), eta bestetik, euskararen transmisio ideologikoa ziurtatu daitekelako (gurasoen inplikazioa umeak D ereduan sartzeko). Horregatik, gazte hauek etxearen garrantzia, hots, jatorrizko funtzioaren garrantzia, azpimarratzen dute. Etxeko hizkuntza gaztelania dutenen artean, euskara eskolan ikasirik, euren jatorrizko hizkuntza gaztelania da, baina, euskarak betetzen du jatorrizko-sinboliko funtzioa (abertzale sentimendua adierazten dutenek besteek baino sutuago azpimarratzen dute euskararen izaera hau).

- **FUNTZIO MITIKOIA:** Gazte hauen artean euskarak betetzen du bereziki funtzio hau. Euskarak bideratzen duen mitikotasuna bere izaeran oinarritzen da: izaera <berezia> du hizkuntza zaharra delako ("Europako zaharrena"), <hizkuntza> bat delako eta ez dialekto bat (gailegoa, bablea, katalana bezala), bereizten zaituen hizkuntza da oso gutxi

ezagutzen dutelako ("jakitea hizkuntza bat ia inor ez duena ezagutzen, sentitzen naiz pribilejiatua ez dizut esango, baino..." -4T,70). Euskarak (eta Euskal Herriak) jasan duen egoerak ere bere mitikotasuna elikatzen du: gal-zorian, arriskuan, zanpatu-zorian egon den hizkuntza:

"eske gu beti ibili gara, gu ez baina, hemen beti defenditzen, beti zanpatu nahian ibili dira, orduan guk horregatik sentitzen, beste batzuk ba beti erderaz eta ez duenak eta ez duenak eduki ez dute sentitzen hori" (3T,24).

Funtzio hau betetzea garrantzitsua da hizkuntzarentzat, are eta gehiago hizkuntza minorizatu batentzat, bere ezagupena/ erabilera bultzatzea; hala eta guztiz, funtzio hau eraginkorra izan daiteke hizkuntza horrek beste funtzioak ere betetzen baditu neurri batean. Gaztelaniak ez du betetzen funtzio hau; beste bi diskurtsoetan bere ezaugarri pragmatikoak izan dira erantsi dizkietenak funtzio hau eta diskurtso honetan hori ez da gertatzen.

**-TRANSMISIOKO FUNTZIOA:** Funtzio hau nagusiki gaztelaniak betetzen du, euskaradunen artean ere; honek esan nahi du, egunerokoan gaztelaniaz bizi direla nagusiki. Eskola munduan interakzio hizkuntza nagusia gaztelania da, azaldu dugun bezala, baina, funtzio honen leku berezia esparru publikoa da. Kale mailan, hirian, hainbat oztopo dituzte euskararekin aurrera egiteko: alde batetik, erdaradun asko dagoela (gehiengoa) hiri mailan eta euren ingurunean, bestetik, txikitatik hartutako ohitura gaztelaniazkoa dela. Funtzio hau komunikazio funtzioa da, hots, <bestearekin> harremana burutzeko funtzioa; <bestea> erdaraduna edo euskaraz erreztasunik ez duena baldin bada komunikazio hori gaztelaniaz burutuko da (euskaraduna baldin bada, askotan, ere bai). Komunikazio funtzio hau gizarte erabileraren funtzio berezia da, horregatik, bere garrantzia hizkuntza baten normalkuntzan; gazte hauek, nahiz eta gaztelaniaz bizi, euskararen komunikazio funtzioa -gizarte erabilerarekin eskatzen dute bi arrazoiengatik: bata, nortasun balioarena, <gure> hizkuntza da; bestea, legediaren arazoia, <hizkuntza ofiziala> da. Euskarari gertatzen zaiona zera da: hizkuntza ofiziala dela gaztelaniarekin batera eta horrek aldaketa bat suposatzen du, bereziki, administrazio mailan, baina, kaleko erabilera mailak beste zerbait behar du aldaketarako, kasu honetan, gaztelaniaren inertzia aldatzeko. Hizkuntza baten ofizialtasunak ez du bere gizarte erabilera ziurtatzen; legediaz gain, gizarte ingurunea osatzen duten elementuak aldatu

behar dira. Kaleko guneko erabilera areagotzeko bertako egoeraren ezaugarriak aldatu behar dira. Gazte euskaradun hauek ez dute komunikazio legitimitaterik sentitzen euskaraz egiteko, nahiz eta hori izan euren helburu ideologikoa euskararekiko, horregatik, ingurune erdaldunetan -Zonan, adibidez- "euskaldun batek euskera egitera bakarrik ausartzen dena, benetan txalotuko nuke" (4T,84); hau da, <ausardia> behar da euskaraz ibiltzeko hiri mailan, ingurune erdaldunetan.

Hizkuntza batek transmisioko funtzioa betetzeko hizkuntza hori gizarte osoak edo gehienak ezagutu behar du; horrez gain, edo horrekin batera, lehenengo pausu bezala, hizkuntza hori transmisioko funtzioa betetzeko legitimoa dela onartu behar da. Euskara transmisioko hizkuntza izatea ez dute gazte denek legitimatzen bere osotasunean (ikusitugun bezala aurreko bi diskurtsoetan); legitimazio hau, osorik, diskurtso euskaltzalean kokatzen diren gazteek legitimatzen dute soilik. Hau arazotsua da euskararentzat, azken finean, legitimazio hori gizarte mailan konpartitzen edo asumitzen ez den neurrian euskararen erabilerak bi oinarritzko oztopo gainditu beharko dituelako funtzio hau bete aurretik: oztopo <ideologikoa> (euskarak zein gizarte toki behar duen onarpena) eta oztopo <fisikoa> (euskaraz ez dakitenak).

Gazte hauek kontraesanetan ikusten dute euren burua, euskaltzaleak direlako eta, hala ere, gaztelaniaz bizi direlako; euskaraz bizitzea da euren helburua, horren alde daude nortasun dimentsioagatik, baina, ez dute lortzen -ezin dute- gaztelaniak inguratzen dituelako. Zentzu honetan, gizartearen -erakunde- laguntza eskatzen dute, euskarak gizarte legitimitatea lor dezan komunikazio hizkuntza ere izateko.

— **ERREFERENTZIA FUNTZIOA:** Funtzio hau kultura munduarekin erlazionatzen da zentzu orokorrean: literatura, aldizkariak, zinema, telebista,... Gazte hauen artean gaztelaniak betetzen du funtzio hau maila handi batean, hau da, kultur erreferentzia gehienak gaztelaniaz ezagutu eta bizi dituzte (literatura dela, aldizkariak, telebista, zinema...). Euskarak ere betetzen du funtzio hau, baina, era ezberdinean; gazte hauen artean bi multzo bereiz ditzakegu euskararen gaitasunaren arabera:

- Gazte euskaradun ez osoak: gazte hauek B ereduan ikasi dute eta gaur egun A

ereduan daude. Euskaraz, bereziki, arlo bat aipatzen dute: musika taldeak (Sorotan Bele, Hertzainak, Su ta GAr, EH Sukarra, Tapia eta Leturia, Oskorri), "las típicas de verbena" (6T,62). Horrekin batera, bertsolaritza ere aipatzen dute, baina, azken hau, ez zaie denei gustatzen eta gustatzen zaienei <gazte> ezaugarriarekin erlazionatzen dute. Irakurketa aldetik, aldiz, ez dute ia ezer irakurtzen euskaraz bi arrazoi aipatzen direlarik: ulermen zailtasunak izatea, "yo creo que no se lee por miedo a no entender" (6T,63) eta euskaraz ez daudelako gaur egungo gai interesgarriak:

"con los libros en euskera, que no encuentro un tema así modernillo (=diarios, drogas, actualidad general,...) que me apetezca" (6T,63).

Ikusten denez, euskarazko kultura erreferentziak musikari, bereziki, loturik doaz. Bestelako arloak, irakurketa adibidez, alde batetik ez dute ondo ezagutzen (Bernardo Atxagaren izena, adibidez, talde batean gutxi batzuk ezagutzen zuten) eta bestetik bere irudia interesgabekoa da, hots, gaur egungo gairik ez dagoela; azken finean, modernotasunik -gai modernorik- ez dagoela. Euskararen irakurketa gaitasun maila ez dute handia izango eta horrek ere oztopatzen du idatzizko produkzioa gutxi ezagutzea, hala ere, produkzio horren irudia erakargarria ez izatea -ezagutu gabe- arazo larria da euskararentzat, azken finean, erakargarria ez bada ez da pausurik emango ezagutzeko.

Talde batean (6T) Hirutxulo aldizkaria aipatzen dute partaide batzuk (denek ez dute ezagutzen); bi ezaugarri ditu: bata, euskaraz dela, eta bestea, auzoetako berriak direla. Ez dago oso garbi nork ateratzen duen ("no sé si es Bagera o quién hace"-6T,65). Bere interesa bereziki bakoitzaren auzoaren inguruan dago eta zera azpimarratzen da: irakurtzen duenak ez du irakurtzen euskaraz delako, bertako berriak direlako baizik:

"sí suelo leer pero yo suelo leer lo de mi barrio, no leo mucho los demás sitios, leo como leo una (revista) cualquiera, no porque es en euskera" (6T,65).

- Euskaradun osoak: gazte hauek D ereduan daude, hala ere, euskararen gaitasun maila ez da denena berdina; bi maila bereiz ditzakegu, bata, erreztasun gutxiago dutenak euskaraz (ingurune hurbila -etxea bereziki- erdaraduna dute), bestea, erreztasun osoa dutenak (ingurune hurbila -etxea- euskaraduna dute). Bereizketa hau interesgarria da, euskararen

erreferentzia funtzioa ezberdina izan delako bietan eta adierazgarria da gure azterketarako. Eztabaida talde batean (4T) agertu dira, bereziki, euskarazko kultura munduak dituen bi irudi kontrajarriak:

\* Alde batetik, euskaraz erreztasun gutxi duten gazteen artean, euskal kultura, nagusiki, nekazal irudiari lotuta doa (herri kirolak eta bertsoak aipatzen dira); salbuespen bezala, pilota gustatzen zaie, hots, herri kiroletako kirol <modernoen>, telebistan presentzia duena, nolabait, modan dagoena:

"Neri eske (euskal) kultura ez zait ezer gustatzen, ezer, ezer, ez musika ezta kostunbreak, ez ezer" (4T,94).

Horrela, euskal kulturak interesgabeko eta modernotasunik gabeko kulturaren irudia du, hau da, gazte hiritar batentzat, berez, erakargarria ez den kultura. Aipamen hau adierazgarria da:

"eske nola esango nizuke, pizkat gauzak berritzen, gauz berriak atera, ez beti, eh..., ez dakit, beti berdina daude eske nik euskeraz entzun ditudan abestiak... grupo abertzalea baldin bada ba dena... gai berdina, politika gai asko, gero beste batzuk beste gaia baina ez dira ateratzen hortik, ez dute esaten aterako degu rap (...) jendeak Espainian edo Frantzian rap erosten du eta guk ez gara arraroak eta rap gustatzen zaigu edo jende askori eta hori ez dute ateratzen euskeraz" (4T,98-9).

Euskal produkzioaren irudiak bi ezaugarri ditu gazte hauentzat: nekazal gaia eta politika gaia (azken hau, rock taldeen inguruan). Besterik ez dute ezagutzen, ondorioz, gai <modernorik> euskaraz ez dagoela uste dute: ez musika aldetik (rap,...), ez irakurketa aldetik (aldizkariak...). Irakurketaren kasua oso adierazgarria da, aipatzen den adibidea Gipuzkoan gehien saltzen den egunkariarena delako: bertan, euskaraz dagoen zutabe bakarretakoa Basarriarena da baserri, nekazal, gaiaren inguruan:

"ba adibidez, El Diario Vascon <nere bordatxotik> edo ez dakit zer, dela euskeraz bi horri, ba behin ez dut irakurri ezta gauza bat ere ez, ikusten det baserri bat horrela, <nere bordatxotik>, paso..." (4T,100).



Ez dute euskaraz dauden beste aldizkaririk ezagutzen, orduan, adibide horrekin soilik euskal kulturaren nekazal estereotipoa sendotzen zaie: "badaude (aldizkariak) baina dira traduzioak bezala" (4T,102), hau da, idatzizko arloa itzulpenarekin (inplizitoki, orijinaltasun faltarekin), zailtasunarekin, erlazionatzen dute (irakurketa gaitasuna ez dute landua seguraski).

\* Beste aldetik, euskaraz erreztasuna duten gazteek ez dute aurreko irudia onartzen, hots, euskal kulturak nekazal ezaugarriak dituela soilik. Gazte hauentzat, herri kirolak, hots, tradizioak, erakargarriak dira, baina, horrekin batera, gazte hiritarrak diren neurrian, hiritar gaiak, gaur egungo gaiak ere interesatzen zaizkie eta ezagutzen dituzte euskaraz:

"euskal kirolak, bertsolaritza, o sea, hori niri pila bat gustatzen zait, euskal literatura ere oso interesgarria iruditzen zait" (4T,95).

Gaur egungo gaiak, gai modernoak, badaude euskaraz: musika arloan (rap badagoela aipatzen dute, irratieta ingelesezkoa gehiago entzun arren), literatura arloan, aldizkarien arloan (gaur egungo gaien inguruan):

"beno, nik esan dizut, adibidez, gaur Argian irakurri deten artikulua zan, zuk baserrietako gauzak esaten dezuna, nik gaur, Argian irakurri dudana artikulua bat zan hori sujetadore famatu hoiek atera dituztenak, adibidez, horri buruzko artikulua" (4T,100).

Gaur egungo kultura, hiritar irudiari lotuta euskaraz ere badagoela azpimarratzen dute: "baino, eske euskeraz dauden aldizkariak eta, ez dira baserriaren edo euskal ohitura zaharrekin erlazionatuta/ -ez, hiriko gauzak dira" (4T,100). Euren intereseko gaur egungo gaien inguruan honako hauek aipatzen dituzte: arrazakeria, abortoarene legea, intsumisioa, aktualitatea,..., hots, "mugitzen diren gaiak" (4T,101), eta horiek euskaraz badaude.

Euskararen erreferentzia funtzioa ezberdina da ikuspegi batetik ala bestetik: lehenengo ikuspegitik, euskarak funtzio hau era mugatuan betetzen du, batere erakartasunik gabe (nekazal irudia); bigarrenetik, euskarak funtzio hau osorik betetzen du. Bien arteko ezberdintasuna honetan datza: euskaraz errez egiten ez dutenak ez dute ezagutzen euskal produkzioa, estereotipoekin mugitzen dira; euskaraz errez egiten dutenak, aldiz, ezagutzen

dute euskaraz zer egiten den. Hala eta guztiz, azpimarratu beharra dago, euskal kulturaren irudia mugatua dagoela, nekazal irudiak oraindik funtzionatzen duelako; hiritar kutsuko produkzioa ez da ezagutzen edota ez da hainbat sektoreetara iristen eta hau, euskararentzat, arazo garrantzitsua da, hiritar-modernotasun ezaugarria galtzen duelako.

Talde hauek egin zirenean Goenkale telesaila hasi berria zen, hala ere, irudi ona agertu zuen kulebroia delako eta modan daudenez, euskaraz izatea modan dagoen zerbait oso erakargarria delako euskararentzat. Honen inguruan, gazte hauek ados daude - euskaraz erreztasun handiagoa ala txikiagoa izan-, hau da, euskarak gaur egungo, aktualitateko gaiak behar dituela:

"holako gauzak behar dira euskeraz, ez dakit kulebroi bat orain modan daude, ba holako gauzak atera" (4T,105).

Hirutxulo aldizkaria gazte batzuk ezagutzen dute, baina, ez zaie gustatzen; "txarra" dela adierazten dute bi arrazoiengatik: forma ("presentazioa") ez da erakargarria eta edukinak ere ezta; auzoetako gaiak soilik ez zaizkie interesatzen, beste gai batzuk ere sartzea eskatzen dute (gaur egungo gaiak). Agian, aldizkariaren erakargarritasuna sendotuko litzateke, auzoko gaiiez aparte, aktualitateko gaiak sartuko balituzkete Donostiako taldeekin erlazionatuta (adibidez: Donostiako intsumisoak, emakume asanbladak, etorkinak...). Beste aldetik, aipatuko dugu, Hirutxulo aldizkaria elkarrizketa batean (elkarriz.1) gustokoa zaiola elkarrizketatuari; bi elementu azpimarratzen ditu: dena euskaraz da eta Donostia mailakoa da (auzoetako gertakariak, jokoak, hitz gurutzatuak...), azken finean, aldizkari "hurbila" da.

Diskurtso honetan kokatzen diren gazteak dira gizarte/ banakako ardatzean euskara bi muturretan kokatzen dutenak (beste diskurtsoetan, ikusi dugunez, gizarte muturra ez da kontuan hartzen edo oso era mugatuan hartzen da). Euskara banakako mailakoa da, hots, bakoitzak erabaki behar du euskara ikasi edota erabili, bestela, derrigortasuna, euskararen kontra izango litzateke; beste aldetik, euskara gizarte mailakoa da, hots, <herri> baten hizkuntza da, orduan, lurraldetasun bat du (<Euskal Herria>, zazpi herrialdeak dira erreferentzia). Ikusi dugunez, euskarak oraindik hutsune nabarmena du komunikazio funtzioan ez duelako neurri handi batean betetzen; horrek bere gizarte izaera mugatzen du, funtzio hau gizarte erabileraren funtzio berezia delako. Horrekin batera, erreferentzia funtzioa

ere mugatua duenez, euskararen gizarte izaera errealitatean baino desio mailan gehiago kokatzen da. Zentzu honetan, gaur egungo euskararen gizarte dimentsioa oso mugatua ikusten dute gazte hauek (nahiz eta geroari begira baikorrak izan, baikortasun neurtuarekin izan arren, lehenago azaldu dugun bezala):

"Nik askotan lotsa sentitzen dut soziedade honekin, beste egunean deitu zidaten Eusko Jaurlaritzatik (...) telefonoz dena eta denbora guztian gaztelera eta esan nion <oye, ¿te importa hablar en euskera?> eta <ya lo siento es que no sé euskera> eta aguantatu behar zara, migaina koska egin behar duzu eta aguantatu behar zara" (7T,39).

Inplikazioaren atalean azalduko dugunez, gazte hauek gizarteari -orohar eta erakundeei bereziki- euskararekiko <laguntza> eskatzen diote, hau da, euskararen gizarte izaera mugatua dagoenez <denek> lanegin behar dute euskara bultzatzeko, ez soilik gazteak edo umeak, adin guztietako jendeak baizik.

### **6.2.2.- Euskaradunen/erdaradunen arteko harremanak.**

Diskurtso honetan kokatzen diren gazteak gaztelaniaz inguratuta sentitzen dira, hots, gehiengo erdaradunaren artean euskaradunak daude <irlak> bezala, bata bestea euskaraduna den jakin gabe. Eguneroko harremanetan ez dago istilurik euskaradunen eta erdaradunen artean hizkuntza amankomuna erabiltzen delako, alde batetik, zerbitzuetan, eta bestetik, lagunartean; horrela, eguneroko interakzioa ez da hausten eta hau, gazte hauentzat, oso garrantzitsua da. Hala eta guztiz, zerbitzuak izan edo lagunartean izan interakzio mota ezberdina da eta hizkuntzarekiko harremana ezberdina ere bai.

Hiriak eskeintzen duen zerbitzu ezberdinetan -dendak, tabernak, zinema, kirola, erakustaldiak, hitzaldiak...- erdaradunen presentzia <jakina> edo <ziurra> da, orduan, <bestea> ez badute euskaradun bezala identifikatzen gaztelaniaz egingo dute lehenengo hitza. Euskaradun bezala identifikatzea bi ezaugarri loturik doa: itxurari (euskaradun itxura baserri/herriko itxurakoa da: musu gorri, zudur luze, handia...) eta entonazioari (euskaradunak azentu bereziarekin egiten du gaztelaniaz). Kontestu honetan, erdaradunen aurrean euskaradunak dira <lotsa> antzekoa sentitzen dutenak, hau da, beldur dira

erdaraduna < molestatuko > ote duten:

"aurkitzen zera pizkat..., ez dakit, kendu nahi dezula hori zurengatik (...) neri ematen didan inpresioa, ba , hori, molestatzen diozula edo horrelako zerbait" (4T,79).

<Beldur> (edo ziurtasun eza) hori euskarak gizarte legitimitaterik ez duelako da; argi dago euskaraz egitea euskararen adierazlerik ez dagoen leku batean arazoa dela: erdaraduna <agredituta> sentitu daiteke eta euskaraduna, bere aldetik, <inposatzailea> edo <probokatzailea> (arazo honetan euskararen eta politikaren arteko loturak bere eragina du); honek esan nahi duena da, azken finean, euskararen gizarte tokia gaur egun ez dagoela argituta. Horregatik, gazte euskaradun hauek <txarteltxoaren> eskaera egiten dute, hau da, euskaraduna agerian uzteko prozedurak hedatzea eskatzen dute; horrela, <bestea> euskaraduna dela ikusten badute euskaraz egingo dute, ziur daudelako euskaraz dakiela. Euskara agerian uzteko seinaleak eta karteltxoak, iragarkiak behar dira; euskaraduna agerian uzteko banakako txartela eraginkorra izan daiteke.

Erakundeetan jarrera ezberdina adierazten dute; zerbitzu pribatuetan sentitzen den <ziurtasun eza> zerbitzu publikoa denean ez da sentitzen: erakundeetan euskaraz erantzutea <derrigorrezkoa> da beraientzat, orduan, euskaraz egiten dute eta, askotan, frustrazioa dago esparru horretan euskaraz ez dutela erantzuten ezta. Adierazgarria da gazte batzuen jarrera erakundeekiko: erakundeen euskararekiko jarrera "frogatzea" gustatzen zaie bertan euskaraz eginez; erakundeek, askotan, ez dute froga hori gaitzen. Gazte hauen jarrera esanguratsua da, erakundeen eta gizartean dagoen hipokresia salatzen duelako: erakundeen aldetik transmititzen den mezua -euskaraz egin- ez da gero euren aldetik betetzen; kontraesan hori ez da egokia euskararen gizarte legitimitatea sendotzeko.

Lagunartean, erdaradunen eta euskaradunen arteko harremana ez da gatazkatsua, adiskidetasuna hizkuntzaren ginetik dagoelako. Honek esan nahi du, hizkuntza amankomuna erabiltzen dela. Lagun bati adieraztea euskara ikas edo erabil dezala ez da onartzen banakako erabakia izan behar delako:

"Irekiak izatera bultzatzen gaitu euskara pizkat baztertzer, beti norbait etorriko da eta ez zaizu burutik pasatzen esijitzea euskara ikasteko edo ez

zaizu bururatzen berak zergaitik ikasi behar duen euskara, adibidez, nere koadrilako batzuei ez nioke inoiz esango zergaitik ez dezute euskara ikasten? ez dakit, ez zaizu bururatzen" (4T,57).

Aipatzen den <irekitasun> horrek eguneroko eta aurrez-aurreko interakzioan funtzionatzen du, hots, euskaraduna elebiduna denez elebakarrarekin hizkuntza amankomuna ez badu egiten <itxikeria> da; gazte hauek hori ez dute onartzen egunerokoa haustuko lukelako. Lagunei <esijitzen> zaiena euskararekiko atxikimendua izatea (euskara maitatzea eta saiatzea -lortu ez arren- ikasten edota erabiltzen) da.

Euskaradunek bi elementu azpimarratzen dituzte garrantzitsuak direnak euskaradunen eta erdaradunen arteko harremanetarako: <errespetoa> eta <euskararen balorapen positiboa>. Euskaradunak <errespetoa> eskatzen du baina ez banakako mailan, kolektiboki baizik (Indiferentzia diskurtsoan zentzu kolektiborik ez dago, azaldu dugun bezala): euskarak, bertako lehenengo hizkuntza bezala, eta euskaradunak euskal hiztun bezala, eskubide batzuk dituzte eskubide kolektiboak direnak, horren ondorioz, euskararekiko <errespetoaz> eta <balorapen positiboaz> gain, euskaradunekiko errespetoa ere eskatzen da, hots, euren eskubidea euskaraz hitzegiteko besteak gaztelaniaz egiteko duen bezala. Euskaradunak erdaraduna errespetatzen duelako gaztelaniaz egiten du elkar ulertzeko eta inor ez baztertzeko, jokabide hori <simetrikoa> izatea eskatzen du, hau da, erdaraduna konturatzea <bestea> dela hizkuntza aldaketa egiten duena beti eta horren ondorioz, erdaradunak ulertzea besteari gaztelania <inposatzen> diola beti; hala eta guztiz, euskaradunak ez dio erdaradunari derrigorrez esijitzen euskara ikastea (hau da, egoeraren arabera hainbat arazo egon daitezke ikasteko eskolan ez baldin bada ikasi, baina, ikasten baldin badu hobe, noski), euskara maitatzea baizik, horrela, nahiz gaztelaniaz egin atxikimendu harreman berbera dute euskararekiko (eta hori euskararen alde doa, etorkizunari begira, adibidez: seme-alabak,...).

Gizarte mailan ez dute euskaradunekiko errespetorik dagoenik ikusten, horregatik ere, euskaraz hitzegiteko ziurtasun eza kale mailan (denetariko erantzunak daudelako: barkamena eskatzen dutenak euskara ez dakitelako nahiz <habla en cristiano> esaten dutenak). Gizarte mailan bi hizkuntzak ofizialak izatea erdaradunengan ez du eraginik, elebakarrak direnez ezin dute hizkuntza aldaketa egin ez badute euskara ikasten lehenago. Euskaradunen artean,

euskararen nortasun balioa azpimarratuz gain beste balio bat azpimarratzen dute, hots, euskara hizkuntza ofiziala dela ere, orduan, jakin beharrekoa dela gaztelania bezala:

"ez da behartu nahi ditugula, nik ez dut esaten gizarte guztia behartu nahi dudala euskera ikastera, nik esaten dut, nik euskeraz hitzegiten dut eta hau bueno, hemen bi hizkuntza dira ofizialak eta ni arduratzen naiz bestea ere ondo hitzegiteaz, hori bai, eskatuko niekela gaztelaniaz ikasten dutenei, beraiek eskubide osoa daukate, bi hizkuntza direlako ofizialak, baina baita eduki beharko lukete euskera menperatua" (7T,27).

Eguneroko harremanetan ez dagoela arazorik adierazi dugu hizkuntza amankomuna erabiltzen delako, baina, horrek ez du esan nahi euskaradunen eta erdaradunen artean arazorik edo gatazkarik ez dagoenik. Euskaradunen errespeto faltaren kexaren azpian <harreman simetrikoen> aldarrikapena dago, hau da, bi aldetatik elebidunak izatea euskaraz egiteko posibilitatea ere irekitzeko

(besteak euskaraz ez dakien bitartean hizkuntza amankomuna beti bakarra izango da):

"gero esaten dute beraiek..., beraiek esaten dute, jo! eske euskera hitzegitera behartzen gaituzte, ez, ez, zuk behartzen gaituzu erdera hitzegitera" (4T,80).

Gatazka sor daiteke ez soilik euskaradunen eta erdaradunen artean errespeto faltagatik, euskaradun ez osoen eta euskaradun osoen artean ere arazoak sor daitezke. Talde batean (6T), euskaradun ez osoak dira (Btik A erduan daudenak), aipatu izan da euskaraz egiten zuten gazte batzuen jarrera <itxia> beraiekiko: azalpenik egin gabe, ezer esan gabe euskaraz jarraitu besteari (euskaradun ez osoari) ezer esan gabe eta bere adierazpenari - gaztelaniaz- jaramonik egin gabe; jarrera hori ez da onartzen azalpenik ez dagoelako, hau da, euskaraz egitea onartzen da, baina besteari ez erantzutea ez. Jarrera agresiboa da beraientzat ez direlako errekonozituta sentitzen ez subjeto bezala ez -kasu honetan- euskaltzale bezala:

"a mí me pareció muy radical y tal, me podían haber dicho si sabes euskera háblame en euskera pero que pasaran de mí olímpicamente me pareció, sí, radical, pero bueno supongo que ese no es el caracter de todas las personas/ -yo es que ni les hablo ya, aunque les tenga que hablar en euskera ni me molesto en hablar, a mí esa gente ¿para qué? (...) vamos que no me gusta la gente que clasifica desde el primer momento, o sea, me da igual que hubiese


sido por el euskera, por la ropa..." (6T,77).

Beste aldetik, euskaradunen artean ere arazoak daude batzuk besteak baino euskararekiko inplikazio handiagoa dutelako, orduan, euskarazko ohitura bultzatzerakoan, azkenean, inertziagatik, gaztelaniak irabazten du. Datorren aipamenean argi ikusten da bi hizkuntzen erabilera interakzio berberan moztu egiten dela gaztelaniaren alde; erabilera mailan zaila da bi hizkuntzen bidez eguneroko interakzioa bideratzea, are eta hgehiago, euskararen eta gaztelaniaren kasuan biak estatus ezberdinak dutelako, orduan, hizkuntza ahuleneko hiztunak lehenago uzten dio bereari eta hori da gertatzen dena euskararen kasuan; hala ere, euskaradunak euskaraz erantzutea besteari pausu bat izan daiteke erabilera areagotzeko eta bestea motibatzeko beste pausu bat ematera, hots, hitzegitera:

"neri beti, neri gertatu zaidana ia beti da ni euskeraz bestea gazteleraz eta azkenean lotsa ematen, ematen dionari da euskaldu, euskeraz egiten duenari ez besteari, eta berak euskeraz daki eta lotsa eman behar zion besteari Euskal Herrian egon eta ez euskeraz mintzatzea, ba neretzat ez da logika, ez du logikarik" (5bisT,88).

Euskaradunen eta erdaradunen arteko harremanak aztertzean ezin dugu aipaturik gabe utzi Indiferentzia diskurtsoan hedatu den <borondate oneko asimilazioaren> mekanismoa. Horri aurre egitea ez delako erreza eta badirudi gazte euskaltzaleak arazoak dituztela horri aurre egiteko. Euskaraduna -eta euskara- agerian uztea aldarrikatzen denean (kolektibo bezala) <diferentzia> ren mekanismoa hedatzen da <asimilazioaren> aurrean; honek esan nahi du, euskaradunak ezaugarri berezi bat duela, ahanzi ezin daitekena, eta hori kontuan izanda erdaradunarekin harremanak izango dituela. Gertatzen dena da, harreman simetrikoak izateko elebitasunaren faktorea ezinbestekoa dela, eta bitartean, gazte euskaradunek oztupo bati aurre egin behar diote: <diferentzia>, gaur egun, beste diskurtsoetan kokatzen diren gazteek <bereizketa> bezala ulertzen dute eta horrek eragina du euskaradun gazteen jarreran, azken finean, <bereizkeria> ez dute eurek ere onartzen. Orduan, <diferentzia/asimilazio> dikotomiaren arabera euskaradun gazteak <bakarrik> sentitzen dira, hau da, diferentzia aldarrikatzen badute, gaur egun, bereizketa uler daiteke, azken finean, hizkuntza amankomuna bakarra delako oraindik. Hori gainditzeko gizartearen -erakundeen- laguntza eskatzen da. Hurrengo irudian azaltzen da nola ikusten duten euskaradun gazteek

euskaradun/erdaradun interakzioa:



Euskaradun gazteak euskara ikasi edota erabili banakako dimentsioan kokatzen du, horren ondorioz, ez dago derrigortasun esplizito baten alde euskararen kontra izan daitezkelako (azken finean, euskararen erabilera bermatzea nahi da). Orduan, ez dago begi onez ikusita <besteari> (euskaradun ez osoa edo erdaraduna izan) maila esplizitoan adieraztea ikasteko edota erabiltzeko. Bilatzen dena da, <bestea> konturatzea euskara ikasi edota erabili nahi duela eta <bestearen> erabakia izan dedila. Horretarako, euskaradun gazteak ez dira soilik geratzen banakako dimentsioan, gizarte dimentsioari ere garrantzi



handia ematen diote (beste bi diskurtsoetan gertatzen ez dena). Gizarteak orokorrean eta erakundeek bereziki, lagundu behar dute euskararen nahia areagotzen; erakundeen (gizartearen) norabideak bi bide ditu:

- Bata, gazte euskaradunekiko: euskararen gizarte ziurtasun eza gainditzeko erakundeen ekintza beharrezkoa ikusten dute; horrela, euskarak bere gizarte legitimitatea sendotuko luke eta euskara erabiltzeko ziur sentituko lirateke. Zentzu honetan, <babesa> eskatzen dute, beraiek bakarrik ezin dutelako euskararen egoera hobetu (erabilera mailan, adibidez).

- Bestea, gazte erdaradunekiko: erakundeek, gizarte mailan, ezin dute derrigortu, alderantziz, egin behar dutena zera da: euskararen <beharra zuzpertzua> (euskararekiko motibazioa bultzatzeko). Azken finean, bilatzen dena -inplizitoki, beti- erdaradunaren euskararekiko interesa areagotzea da eta horretarako, euskara agerian utzi behar da. Inplizitoki izatea azpimarratu behar da, hots, erakundeen lana <zeharkakoa> izan behar du, bestela, arrisku bat dago: beste diskurtsoetan kokatzen diren gazteek <inposizio> bezala ikustea, eta hori da baztertu nahi (eta behar) dena. Gazte hauek erakundeei bereziki <euskal giroa> zuzpertzua eskatzen diote, hau da, gazte euskaradunak gaztelaniaz inguratuta sentitzen diren bezala, egoera aldatzea euskaraz -eta euskaradunetz- inguratuta sentitzeko. <Euskal giroa> zuzpertzeko ekintza bereziak aipatzen dituzte, inplikazioaren atalean azalduko ditugunak.

Ikusten denez, gazte hauen diskurtsoan gizarte/banakako artikulazioa sendoa da: euskarak banakakoa izan arren (beti derrigortasuna baztertzeko) gizarte mailakoa da eta horren ondorioz gizarte mailan ere burutu behar dira hainbat aldaketa euskararen egoera sendotzeko. Kontestu horretan erakundeek euren lan berezia dute, baina ez erakundeek soilik, gizarte mailako beste elkarteek ere garrantzia dute gizarte egoera horren aldaketa bultzatzeko. Aipamen hau adierazgarria da:

"Banaka, gauzak egin daitezke, baina nola dagoen erderaz esaera bat <la unión hace la fuerza> ba hala da, banaka egin daiteke baina banakako pertsona horiek gero eta gehiago bilduz, orduan eta indar gehiago edukiko da eta denak biltzen danean orduan daukan indar handiena lortuko da, banaka

egin daiteke baina gero eta banakako horiek elkartu, orduan eta indartsuagoak izango gara" (3T,41-2).

### 6.2.3.- Euskararekiko inplikazio maila.

Gazte hauen euskararekiko inplikazioa <ardurakoa> da, hots, euskara beraientzat garrantzitsua da eta bere egoeraz interesatzen eta arduratzen dira. Zentzu honetan, euskara arazo bat da ez dagoelako beraiek nahi duten egoera positiboan. Euskara eta gaztelaniaren arteko harremana gatazkatsua da, gaztelaniak bereganatzen duelako, ia nagusiki, euskarari eransten dioten gizarte dimentsioa (erabileran, bereziki). Donostiako euskararen egoera ez dute ondo dagoenik ikusten, alderantziz, hiriko irudia erdaraduna da, hau da, euskaradunak <galduta> daude erdaradunen artean, horren ondorioz, gaztelaniaren ezinbesteko erabilera, azken finean, hizkuntza amankomuna da eta. Bi inplikazio mota bereiztu ditugu:

- Inplikazio ideologikoa: diskurtso honetan kokatzen diren gazteak inplikazio mota hau handia dute, hau da, ideologikoki euskararekiko hurbil sentitzen dira (euren nortasun hizkuntza da); hurbiltasun eta interes horiek ardurari loturik doaz: euskararen egoera, orokorrean, eta Donostian bereziki, ez dute egon behar den mailan ikusten: ezagupenaren aldetik oraindik pausu asko eman behar dira, baina, erabileraz arduratzen dira bereziki:

"jende askok dakiela? nik badakit jende askok dakiela, gauza bat da jakitea eta beste bat erabiltzea" (3T,40).

Zentzu honetan, euskararen <subjektuak> dira, euskararen "berpizkuntzan" (5bisT,73) parte hartu eta hartzen dute, eta horrek "arrotasuna" ematen die ("bai, ya eske gure esku dago eta ordun ez dakit, era batean, erresponsabilitatea hortan" -5bisT,74).

Gazte hauen artean, euskararekiko inplikazio ideologikoan, jarrera politiko berezia agertu izan da, hots, euskara eta Euskal Herria loturik daude eta batarentzat ala bestearentzat lanegitea gauza berbera da. Hizkuntzaren arazoa Euskal Herriaren arazo politikoarekin erlazionatzen da, eta gai politikoa gainditzen denean hizkuntzarena gaindituko dela adierazten da (nolabait, ekintza politikoa hizkuntzaren aurretik dago):

"AEK eta euskaltegiak daude, baina nik adibidez, nik uste dut euskeraren arazoa, bai egin dezakezula zerbait, hitzegin, ez dakit zer, baina inoiz ez dela

ezer lortuko, nola esan dudan lotuta daudela, Euskal Herria eta hori, nire ustez Euskal Herriak lortzen badu Euskal Herria izatea, galduta daukan nortasun hori lortzea, Euskal Herri independente bat daukagunean, orduan, euskararen gai hau... asko..." (3T,41).

Gazte batzuk kokatzen dira jarrera honetan, beste batzuk, aldiz, ez datoz bat ezberdintzen dutelako euskara alde batetik eta Euskal Herriaren proiektu politikoa bestetik (azken hau ez delako bat bakarra, proiektu ezberdinak daudelako).

- Implikazio praktikoa: implikazio mota hau egunerokoari loturik doa eta horrek bere zailtasuna eransten dio; egunerokoa erdaraduna izanik, euskararekiko implikazioa ez da erreza. Ikastearekiko implikazioa erabilerarekikoarena baino <errezagoa> ikusten da, baina ez, berez, erreza ikusten delako, erabilera bera zailagoa ikusten dutelako baizik. Hala ere, ikastea eskolari lotzen diote nagusiki, hots, ikasketa errezari; helduen ikasketa (eskolatik kanpokoak) zailagoa da beste faktore batzuk sartzen direlako (denbora falta, esfortzua,...). Gazte hauek Indiferentzia diskurtsoan kokatzen diren gazteen (hau da, A/B ereduak) jarrera dute errugabeak direla euskara ez dakiten gazteak-helduak, oportunitate gutxi izan dutelako ikasteko (eskolan ez eta familian ere ezta); hala ere, gazte hauek ez dira horretan gelditzen (Indiferentzia diskurtsoko gazteak gelditzen diren bezala), beste pausu bat ematen dute euskararen ikasketa aldarrikatuz, eta gainera, euskararen errespetoa/maitasuna azpimarratuz (hizkuntza lortu ez arren). Implikazio praktikokoaren inguruan bi jarrera hedatu dira: bien arteko ezberdintasuna banakako dimentsioari eransten dioten pisuan datza; jarrera batean, banakako dimentsioa alde batera uzten da arazotsua delako euskararekiko implikazio erreala, euren egunerokoa hausten dutelako (gazte hauek ingurune erdaradunekoak dira -euskararen erreztasun txikiagoa dute); gainera, banakako maila, gizartean ez badago aldaketarik, ez da eraginkorra ikusten:

"nik jarri behar det, baino zertarako? (...) zer jarri behar det nik? zer jarri behar det? euskeraz hitzegun kaletik? eta zer?" (4T,75-6).

Beste jarrera batean, banakako mailari garrantzi handia ematen diote, maila horretan ez bada ezer egiten gizarte mailara iristea zailagoa izango delako. Jarrera honetan kokatzen diren gazteak ingurune euskaradunekoak eta erdaradunekoak dira eta implikazio errealak euren

egunerokoaren haustura ere suposatuko lieke:

"eske ezin dezu pasiboki gelditu ea zein mugitzen den, zuk mugitu behar dezu, zuk jarri behar dezu zerbait" (4T,75).

Jarrera bien arteko diferentzia euskararekiko inplikazio ideologikoan datza: euskararekiko <kontzientzia> edo euskararen garrantzia handiagoa da bigarren jarreran lehenengoan baino. Diferentzia honek ez du esan nahi gazte hauen eguneroko portaera eta inplikazio praktikoa ezberdina denik (berdina delako), baina, ñabardura ideologikoa adierazten du. Hala eta guztiz, jarrera biak bat datoz euskararen gizarte izaeraren garrantzian eta horren alde lanegin behar dela.

Erabilera dimentsioko inplikazioak ikuspegi ezberdina du euskaradun ez osoen eta euskaradun osoen artean, azken finean, gaitasun maila ezberdinak dituztelako:

\* Euskaradun ez osoak: gazte hauek azpimarratzen dute beraien beharra: euskarazko erreztasuna lortu eta hitzegiteko lotsa gainditu:

"y eso, intentar soltarte, que no te cortaría eso de, lo que has dicho tú antes de la vergüenza" (6T,70).

Horretarako, ekintza erakargarriak (eta euskaraz direnak, gainera) egitea proposatzen dute (adibidez, <tailerrak>: argazkigintza, informatika...; irteerak,...) bi helburu azpimarratuz: bata, euskarazko ohitura sendotu (erreztasuna lortu eta lotsa gainditu), eta bestea, lagun berriak egin (euskaradunak, gainera).

\* Euskaradun osoak: gazte hauek beraien erabilera gehitu behar dutela azpimarratzen dute; euren egunerokoan gaztelaniaz bizi dira euskaradunak izan arren (beste euskaradunekin ere gaztelaniaz egiten dute). Gazte hauen portaera adierazten dutenarekin kontraesanetan dago, hots, euskara aldarrikatu eta gaztelaniaz hitzegin. Kontraesana onartzen dute, baina, ingurunearen eragina dela esanaz gainditzten dute, hau da, gaztelaniaz eta erdaradunetz inguratuta daudenez euskaraz hitzegitea oso zaila zaie, eta hori, neurri batean, ez da euren errua.

Inplikazio praktikoa ekintza bereziekin erlazionatzen dute, gune bakoitzak bereak:

\* Etxeko gunea ez da bereziki aipatzen, aipatzen dena da helduei (gurasoei: etxeoandreak aipatzen dira denbora libre gehiago dutelako) erreztasunak eman behar zaizkiela euskara ikastera joateko (euskaltegia hurbil, ordutegi malgua, prezio merkea...).

\* Eskola guneak hiru ekintza mota ditu: alde batetik, aktibitateak (bertso paperak, literatura saioak...), bestetik, ikaskideekin euskaraz hitzegitea lortu, eta azkenik, euskal adarrean jarraitu. Azken hau oso garrantzitsua da ze, ikusi dugunez, euskal adarrak arazo bereziak ditu (ikasketa mailan: material gutxi, praktika mugatuak, unibertsitatean irakaslego falta -ikusiko dugunez hurrengo atalean...) eta hori gaintitzen dute euskararekiko nortasun sentimendua dutelako eta <koiuntura> bezala ikusten delako (edo ikustea nahi delako).

\* Kaleko gunea zailagoa ikusten da beraien inplikazio praktikorako, arrazoi bategatik: gune hau erabileraren gunea da, bereziki, eta hori banakako mailako erabakia denez, zerbait eraginkorra egitea zaila ikusten dute. Euskararen erabilera da ahulena dagoena gizarte mailan baina egoera hori hobetzea oso zaila ikusten dute. Pertsonalki, banaka egitea zaila eta eraginkortasun gutxikoa da, baina, hala ere, hiru ekintza mota aipatzen dira: bata, lagunartean, talde osoak gaztelaniaz hitzegin arren, binaka, hirunaka euskaraz hitzegiten hasi, horrela, pausu bat ematen da euskara agerian uzteko eta besteek ikus dezaten:

"hori aurrerapen bat da, e? igual bi edo hiru artean euskaraz hitzegiten ba azkenean talde guztia..., igual hiru ikustean ez da bat bat bat baten kontra ez? da hiru ba igual biren kontra eta ba ya etortzen dira eta benga euskeraz eta euskeraz" (5bisT,87).

Bigarrena, lagunak motibatu, "euskal kontzientzia" sortu koadrila mailan, lagunaren motibazioa sendotzeko eta bere euskararekiko jarrera bultzatzeko (inplizitoki, beti). Hirugarrena, euskararen aldeko erakunde edo taldeetan parte hartu; azken honetan euskaltegiak aipatzen dira adibide bezala (AEK bereziki).

Kale mailan zerbait egitea, erabileraren inguruan, oso zaila ikusten dute eta zentzu honetan gizartearen laguntza eskatzen dute; gizartea zentzu zabalean ulertuta, hots, erakundeen garrantzia azpimarratzen dute esparru publikoan eragin dezaten, baina, beste elkarteen eta taldeen lana garrantzitsua ikusten da ere bai (Bagera elkartea aipatzen da, baina, era mugatuan, ez da ondo ezagutzen):

"zuk banaka egin dezakezuna da euskeraz hitzegitea eta batenbat baldin badago zure lagun tartean ez dakiena hareri irakastea, baina bestela, egin behar da batera" (3T,42).

Horregatik, erakundeen laguntza, <babesa> eskatzen dute (lehengo atalean azaldu dugunez, euskaradunen eta erdaradunen arteko harremana azaltzerakoan) gizarte mailan, kale mailan, eragiteko. Eragin horrek puntu bat sakontzen du: erdaradun giroa euskaradun bihurtu, hots, euskara <agerian utzi> eta euskaradunentzat euskal elkarguneak sortu (euskaradunak biltzeko eta euskarazko ohitura bermatzeko):

"baina nire ustez mugida horiek (Kilometroak,...) ezin dira egin urtean behin, egin behar ziren aste bukaero, egunero, o sea, jarraipen bat ematen, igual juten zara Kilometroak batera eta gero juten zera astebukaeran eta hori ez duzu nabaritzen, ez dut esaten festa, baina giro hori montatu behar zan nire ustez egunero, egunero, egunero" (3T,48).

Zentzu honetan, euskarari ospea erantsi behar zaio, gizarte prestijioa sendotu eta hori goi mailakoen eskuetan dago (politikariak, pertsonai ezagunak,...); goi mailakoek euskarari buruz jarrera ahula dutela kexatzen dira, gutxi erabiltzen dutelako eta askok jakin ere ez dakitelako (Jordi Pujolen aipamena dago, telebistan beti katalanieraz egiten duelako).

Azaldu dugun bezala, gazte hauek Donostiako euskararen gaur egungo egoera ez dute positiboki baloratzen: Donostia hiri erdaraduna da, gaztelaniaz inguratuta daude. Hori gainditzeko, gazte hauek banakako eta gizarteko artikulazioan kokatzen dute euskararen hobekuntza. Egoera negatiboa denez, taldeetan, joku baten bidez, galdetu zitzaaien zer egingo zutekeen udaletxeko (erakunde hurbilekoa) euskararen arduradunak izango balira. Talde denek onartu zuten jokua eta horren inguruan aritu ziren talde bat ezik: 3T taldeak jokoaren kontestua zalantzan jartzen du, hau da, udaletxean arduradun hori baldin badago, bere lana

ez da kale mailan ikusten ez ezagutzen; datorren aipamena oso adierazgarria da:

"imajinatu orain Donostian dagoen egoera euskerarena, galdetu duzula izango bazina (euskeraren arduraduna) eta guk galdetu dugu, badago? horrek niretzako txokatzen du, ze esan nahi du, zu izango bazina, horrek adierazten ditu nola dagoen Donostian euskeraren gauza, galdetzen badidazu, eta patronatua edo hori badago? ez da ez dugula entzun, eske, ez duzu askotan ez da nabaritzen" (3T,45).

Talde honek gizarte mailari pisu handia ematen dio eta erakundeekiko -goi mailakoekiko- kritikak agertu dira, kontestu horretan kokatzen da kritika hau: udaletxearen inguruan duten irudia erdaraduna da eta hor ez dute bereizten (ez dute ezagutzen) Euskararen Patronatua; udaletxeak irudi homogenea du gaztelaniari lotuta eta hor Patronatuaren irudia irentsita gelditzen da ezagutzen ez delako. Zentzu honetan, irudi mailan, Diputazioaren irudia udaletxeoarena baino <euskaldunagoa> dela dirudi (adibidez, Koldo Mitxelena liburutegian euskaraz egiten dela aipatzen da).

Eginkizun honetan oinarrizko helburu bat eskatzen zaio: <euskal giroa> zuzpertz; horretarako, bi esparru azpimarratzen dituzte:

\* EUSKARA AGERIAN UTZI gizarte ziurtasuna lor dezan, hots, besteari euskaraz egiteko ziurtasuna lortu. Horren inguruan hainbat ekintza aipatzen dira:

- Trafiko seinaleak
- Paper ofizialak
- Esparru publikoko kartelak: dendetakoak, iragarkiak,...
- <Txarteltxoa> zerbitzu munduan (bestea euskaraduna den jakiteko).
- Zerbitzuetako langileak euskaradunak: autobusetako gidariak, hoteletakoak, banketxetakoak,...

\* EUSKAL ELKARGUNEAK SORTU (euskaradunak biltzeko eta erabilera babesteko). Gazteei interesatzen zaizkien ekintzak euskaraz eskeintzea. Garrantzitsua eta azpimarratzekoa ekintza <interesgarria> izan behar dela da, euskaraz izatea bigarren mailan gelditzen da (euskaraz izan arren ez bazaie interesatzen ez dira joango): - Tailerrak: argazkigintza, informatika,...

- Bidaiak (merkeak, erakundeak antolatuta)
- Eskursioak, irteerak (mendira, bisitaldiak, eskiatzera...)
- Zinema euskaraz
- Antzerkia, ekitaldiak euskaraz
- Bideo-hitzaldiak
- Euskal jaiak (Zarautzekoa aipatzen da)
- Festa euskaldunak, nolabait, euskal kultura bultzatu: talde euskaldunekin, bertsoak... (zentzu honetan, kexa bat dago Donostiako jaietan oso euskal talde gutxi ekartzen dituztela eta ez dagoela giro euskaldunik).

Euskararen inguruan kanpainak egitea aipatzen da ere bai; kanpainak, erabilera mailan, ez dira eraginkorrak ikusten; kanpainak egitea ez zaie gaizki iruditzen euskararen gaia ez ahazteko. Hala eta guztiz, kanpainak soilik ez dute ezertarako balio eta beste ekintzekin konplementatu behar dira.

Euskara agerian uztea eta euskal elkarguneak antolatzea gazte euskaradunari laguntzen dizkiote bere <euskaradun nortasuna> agerian uzten, eta horren ondorioz, euskararen erabilera areagotzen. Euskarak (eta ez gaztelaniak) <inguratzen> duela sentitu behar du gazte euskaradunak:

"A mí me ha pasado eso con algún amigo que otro, de decirle igual < vamos a Zarautz al Euskal Jaiak > y dice < ostias, si no sé euskera y voy a ir allí > y que se va a sentir un extraño porque allí vas y todo el mundo habla en euskera y tú mismo hablas ya en euskera, entonces solamente es zona de, que se siente un extraño allí entre tanto euskaldun" (6bisT,42).

Gazte euskaradunak hori behar du euskararekin, geroz eta gune euskaradun gehiago edukitzea, hiri mailan eta auzo mailan:

"igual lograr más que, que la gente del barrio aprenda euskera, lograr que entre la gente que sabemos en el barrio hablar en euskera, sortu, sacar un ambiente euskaldun, entre nosotros crear un ambiente euskaldun y que los que



estamos y tal pues se hagan cosas en euskera(...) en la vida cotidiana de Loiola que se vea que hay gente que sabe euskera" (6bisT,59).

Donostian dagoen euskal taldea -Bagera- taldeetan oso gutxi aipatua izan da (badirudi ez dela ondo ezagutzen zer den eta zertarako lanegiten duen). Ezagutzen duten gazteek, taldearen irudi ona dute nahiz eta ez oso ezaguna. Bi ezaugarri positibo aipatzen dira taldearen inguruan: euskararen alde lanegiten duela eta euskaraz diren aktibitateak antolatzen dituztela (bideoak, mahai inguruak,...). Bagera ezagutzen dutenek udaletxearekin konparatzen dute: taldeak euskararen alde lanegiten du, udaletxeak, aldiz, ez:

"yo por lo menos nunca he oído que hayan organizado algo (udaletxeak, diputazioak), otros colectivos como Bagera y éstos que son de euskera pues sí (...) es un grupo de, tienen la sede éstos, bueno, el local tienen en la Parte Vieja (...) suelen hacer actividades a favor del euskera y eso pero que es un talde que no va por el ayuntamiento tampoco" (6bisT,18).

Aipatuko dugu, unibertsitari elkarrizketatu batek (elkarriz.2) Donostiako euskal talde bat antolatzeko proposamena egiten duela, bi ezaugarri bete beharko lituzkelarik: euskararen alde lanegin Donostia mailan eta ideologikoki irekia eta zabala izatea (elkarrizketatu honek Bagera taldea politikoki markatua ikusten du -ezker abertzaleari lotuta- eta hori euskararen kontrakoa dela uste du, euskara politikaren gainean egon behar delako).

## **7.- UNIBERTSITATEKO IKASLEAK:**

### **UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA.**

Ikerketa honetan azterketa esploratorio bat egin dugu unibertsitateko ikasleekin, nola ikusten duten eta nola bizi duten unibertsitatearen eta euskararen arteko harremanaren inguruan. Txostenaren beste ataletan unibertsitateko ikasleen talde eta elkarrizketak sartu ditugu ere, gazte unibertsitarien egunerokoa -ikasketetatik kanpo- beste gazteena bezalakoa delako. Atal honetan azalduko dugu, bereziki, gazte hauen eskola mundua, hots, unibertsitatearen eta euskararen arteko harremana.

## 7.1.- Euskara unibertsitatean: zergatik/zertarako?

Gazte unibertsitariak aztertu ditugun bi diskurtsoetan kokatu dira: A eremuan ikasi dutenak eta erdal lerroan ari direnak (8T) Indiferentzia diskurtsoan kokatzen dira; D eremuan ikasi dutenak eta euskal lerroan ikasten ari direnak gehi erdal lerroan daudenak, aldiz, Euskaltzale diskurtsoan kokatzen dira. Gizarte posizio ezberdin hauek unibertsitatearen eta euskararen arteko harreman ezberdinak dituzte.

### ERDAL LERROKOAK (betidanik A eremuan ikasi dutenak).

Erdal lerroko taldeak euskara unibertsitatean <normaltzat> jotzen du ikasketa ertainen jarraipen natural bezala, hau da, euskaraz ikasi dutenek euskaraz jarraitzea nahiko dute ohituak daudelako; lehenago aipatu dugun bezala, talde honetan <borondate oneko asimilazioaren> adibide grafikoa dago, baina, hala ere, euskal lerroaren legitimitatea onartzen da: nahi duenak euskaraz edo gaztelaniaz ikasteko aukera izan behar du bi hizkuntzak ofizialak direlako Autonomi Elkartean.

Gazte hauek euskararen eta unibertsitatearen arteko harremana ez dute <zergatiaren> munduan kokatzen (hots, arrazoi sinbolikoetan), <zertarako> munduan (mundu pragmatikoan) baizik. Arrazoi garrantzitsuenak bi dira <zertarako> mundu horretan: <juridikoak>, alde batetik, hau da, euskara hizkuntza ofiziala denez bere leku berezia izan behar du gizarte mailan:

"tú estas en una sociedad bilingüe, castellano y euskera, y tú vas a una Kutxa tú tienes derecho a que te hablen tanto en euskera como en castellano, es lógico que en la Kutxa para dar mejor servicio al cliente pidan euskera y castellano, yo tampoco sé euskera, ¡cuidado!" (8T,21-2).

Aipamenean ikusten denez, ofizialtasunaren onarpenarekin batera esplizitoki adierazten da euskararen ezjakintasuna, bestela, abantailarekin jokatu balitz bezala dirudi (azken finean, euskaraz ez dakitenez, argumentazio hori euren <kontra> doa). Beste aldetik <lanarena>, hau da, lan munduan euskara eskatzen dute; hala ere, lan munduan bereizketa bat dago: euskarak esparru publikoan du bere tokia (udaletxeak, diputazioak, funtzionarioak, zerbitzuak -Kutxa-, aipatzen dira), esparru pribatuan, aldiz, gaztelaniak du bere tokia:

"en una empresa privada no creo que te pidan euskera... te pedirán el inglés o el francés o los dos" (8T,22).

Lanaren garrantzia matizatua dago, azken finean, esparru pribatuan gaztelania da nagusi. Taldearen jarrera hau da: euskarak bere gizarte lekua du arrazoi politikoagatik babestua izan behar delako (hizkuntza ofizial bezala), baina, horri, gizarte esparru berezi batek erantzun behar dio soilik: esparru publikoak; beste esparruetan, gaztelania dago eta egoera horrekin ados daude:

"pues que sí, que políticamente están obligados a pedirlo tal vez ¿no? por dar una atención a la sociedad o lo que sea, pero la empresa privada no, no va por ese terreno, va por unas cuestiones mucho más prácticas y dejando de lado lo que puede ser lo cultural, lo tradicional" (8T,23).

Azken finean, euskara kultura arloan murgiltzen dute; komunikazio hizkuntza nagusia gaztelania da. Arrazoi politikoak dira, azkenean, euskarak duen gizarte legitimitatea (hala ere, oso mugatua) babesten dutenak eta hori onartzen dute, baina, poztasun handirik gabe.

Gazte hauek oso ikuspegi murriztua dute euskararen tokiari buruz unibertsitate mailan. Ikertzaileak gai konkretu bat sartzen duenean (<zer esan nahi duen beraientzat, kultura unibertsitarioarentzat, bi hizkuntza egotea unibertsitatean>) ez dute gaia <arazo>, edota <aberastasun>, <beharra>... ikuspegi orokor batetik planteiatzen, alderantziz, gaia mugatzen dute euren euskararen gaitasunaren ingurura, hots, gai izan ala ez euskaraz ikasteko, beste dimentsio batzuk planteiatu gabe. Honek esan nahi du euskarak ez duela interes bereziki gazte hauentzat. Egoera onartzen dute ezer planteiatu gabe.

### EUSKAL ETA ERDAL LERROKOAK (betidanik D ereduan ikasi dutenak).

Gazte hauek euskara unibertsitatean <zergatiaren> munduan kokatzen dute, hau da, arrazoi sinbolikoak dira azpimarratzen dituztenak. Hori horrela izanda, zertarako mundua ere aipatzen da garrantzitsua delako arrazoi sinbolikoak pragmatikoekin konplementaztea, nahiz eta sinbolikoei pisu handiagoa eman. Arrazoi pragmatikoen artean erdal lerroko taldeak aipatzen dituenak adierazten dute ere: alde batetik, euskara hizkuntza ofiziala da, eta horren

arabera, bere tokia izan behar du goi mailako ikasketetan ere. Beste alde batetik, lanari begira, euskaraz ikastea abantaila bat izan daiteke, nahiz eta mugatua izan (esparru publikora). Hala eta guztiz, azpimarratzen dena da Euskal Herriko hizkuntza denez bere egoera sendotu behar dela gizarte mailan eta unibertsitatean ere.

Gizartea eta unibertsitatea elkarloturik joan behar dute; horregatik, euskararen kasuan feed-back edo retroalimentazio baten beharra ikusten dute gizartearen eta unibertsitatearen artean. Honek esan nahi du, gizartea euskaldundu behar dela -euskarak presentzia nagusiagoa izan behar duela gizarte mailan: ez soilik esparru publikoan, pribatuan ere bai, behe mailan eta goi mailan ere-; horretarako, unibertsitatearen lana oinarritzkoa da: euskal hiritar euskaradun profesionalak, hots, euskaraz lanegiteko gai direnak hezitzen. Beste aldetik, gizarte mailan ere aldaketak egin behar dira unibertsitatea bera alda dedin, hau da, eskola maila guztiak euskaldunduz, goi mailako ikasketetara iristen diren ikasleek euskal adarra aukera dezaten zalantzarik gabe, gero gizarte mailan erantzuna izango dutelako (lana euskaraz, adibidez).

"klaro eta unibertsitateatik ateratzen diranak, ba horiek duten oinarriarekin ba bueno eragin dezakete gizartean, eske da feed-back bat bezala/ -gizartea euskeraz nahi badugu unibertsitatea ere euskeraz eman behar dugu" (7T,27).

Euskararen tokia unibertsitatean bi aldetatik planteiatzen dute: unibertsitatea publikoa ala pribatua izan ezberdina da. Unibertsitate publikoari <esijitzen> zaio gizarteari erantzutea, horregatik, gizartean euskaradunak eta erdaradunak daudenez, hizkuntza biak ofizialak direnez, ikasketa ertainak euskaraz daudenez, unibertsitate publikoak horri erantzun behar dio modu egokienean. Horregatik, ez da onartzen dauden arazoak unibertsitate publikoan euskal adarraren inguruan (irakasle falta,...). Unibertsitate pribatuak, aldiz, araudi berezia duenez, nahi duena egin dezake gai honetan eta horregatik motelago egingo du euskararen eskeintza. Gizarteak presionatzen duen neurrian areagotuko du eskeintza hori; bitartean, pusuak eskatzen zaio baina ez zaio <esijitzen> :

"nik uste dut estatu mailako unibertsitateetan, ba adibidez, kasu honetan Gasteizen menpean dago, ez? jendeak ikasten baldin badu nik uste dut emango zaiela, publikoa da eta jende guztiarena da, baina pribatuan pausoak ere emango direla baina motelago nik uste dut, motelago emango direla, behintzat

nik ikusten dudana, zeren euskera taldeak ere unibertsitatean (EUTGn) arazoak ditu, Euskal filologiak eta euskal taldeak ere egiten baldin badu festa bat arazoak jartzen zaizkie" (elkarriz.1,24).

Galdetzen zaienean <unibertsitate elebiduna> zer den bi ikuspegi daude: batak, <elebidun> kontzeptua subjetuaren mailan -banakako mailan- kokatzen du; euskaradun unibertsitatea soilik izan beharko litzateke, hau da, Euskal Herriko hizkuntza euskara denez, unibertsitatea ere euskaraduna soilik izan beharko litzateke, hau da, pertsonak elebidunak eta unibertsitatea euskaraduna. Besteak, <elebidun> kontzeptua erakunde mailan kokatzen du (subjetuaren maila ere kontuan hartuz: elebidunak izan beharko lirateke): unibertsitateak, bi hizkuntza ofizialak daudenez, biei erantzun behar die, baliabideak jarriz kalitatezko irakaskuntza egon dadin bietan:

"nire ustez unibertsitate elebiduna da gaur egun egon beharko lukeen zerbait, niri gustatuko litzaidake dena euskeraz izatea baina bi hizkuntza ofizial direnez ba besteei ere eskubidea eman behar zaie, nik euskeraz ikasteko eskubidea eskatzen dudan modu berdinean" (7T,29).

Ikuspegi biak bat datoz gaur egungo egoeraren analisisian: gaur egungo egoera ez da oraindik orekatua, euskal lerroak erdarakoak baino askoz ere baliabide gutxiago dituelako; horrez gain, oraindik subjetu denak elebidunak ez dira. Zentzu honetan, karrera gaztelaniaz egitea errezagoa da baliabide gehiago dituelako.

Gazte hauek euskararen etorkizuna unibertsitatean hobera doala adierazten dute, baina prozesu <zaila> eta <luzea> izango dela. Euskal lerroan oraindik pausu asko eman behar dira egoera hobetzeko eta horrek baliabideak behar ditu. Prozesu hau errezago ikusten dute unibertsitate publikoan pribatuan baino; azken honetan presio gehiago beharko delako. Etorkizunerako, unibertsitatea euskalduntzeko, gizartearen presioa, eta bereziki, ikasleen presioa aipatzen dute, hau da, euskaradun ikasleek goi mailako ikasketa euskaradunak eta kalitatezkoak esijitzea.

Gazte hauek, azken finean, euskararen inguruan, unibertsitatea beste esparru bat bezala ikusten dute, hau da, gizarte maila globaleko esparru berezi bat, beste esparru batzuen

artean. Esparru ezberdinen artean interakzioa dago, ez dira autonomoak, orduan, behe mailako eta ertaineko ikasketak euskaraz badira, goi mailako ikasketak ere euskaraz jarraitu behar dute profesionalak euskaradunak sortzeko; azken hauek lan munduan lana euskaraz egitea posibilitateak izan beharko lituzkete; gizarte mailan, profesionalak euskaradunak izatea euskarari ospea eransten dio eta guzti horrek eragina du euskararen erabilera zuzpertzeko. Interakzio horretan garrantzi berezia ematen diote unibertsitatearen lanari (euskara gizarte mailan prestijiatzeko orduan: pertsonai publikoak baldin badira euskarazko ikasketak egin dituztenak publikoki euskaraz hitzegiteko, prentsaurrekoak euskaraz emateko,...).

## **7.2.- Gaztelaniaz ikasi.**

Gazte hauek beti gaztelaniaz ikasi dute eta unibertsitatean horrela jarraitzen dute. Unibertsitatean euskaraz ikasteari ez diote abantaila berezirik ikusten, lanarena ez bada; baina, azken hau esparru publikora mugatzen denez, abantaila bezala ez du kontrakoak gainditzen. Nortasun baliorik edo motibazio sinbolikorik ez dutenez, euskararen balio pragmatikoak mugatuegiak dira hizkuntza ereduaren aldaketa bat planteiatzeko:

"hombre si te arriesgas y tienes el nivel de COU reciente, está claro que te puedes arriesgar a perder un año, yo pierdo un año y aprendo euskera o sea como que te vas a Inglaterra o a Estados Unidos estas un año dando clases y al final te enteras del idioma y vas con un nivel peor que el de euskera"  
(8T,27).

Euskarak balio pragmatiko ziurrak beharko lituzke gazte hauek bereganatzeko, azken finean, esfortzua egin beharko lukete euskaraz ikasteko; balio horiek ez duenez, "no te merece la pena perder un año por aprender" (8T,27).

Euskal lerroan ikastearen inguruan, oinarritzko irudia honako hau da: erdal lerroak baino kalitate (maila) gutxiago duela; arrazoi batzuk aipatzen dira: ez dago libururik apunteak soilik eta horrek, alde batetik, erreztu egiten du ikasketa, baina, bestetik, "que a la vez tienen menos nivel" (8T,19). Horrekin batera, kalitatezko irakasle euskaradun espezializatuaren falta dago.

<Erreztasunaren> ideiak eztabaida sortzen du taldean, bi jarrera ezberdintzen direlako:

\* Batzuentzat, euskal lerrokoek itzulpenak egin behar dituzte eta hori ez da batere erreza ikasketarako, alderantziz, desabantaila handia dela azpimarratzen dute.

\* Beste batzuentzat, ikasketa errezagoa da itzulpena gaztelaniatik euskarara delako eta euskal lerrokoak elebidunak direnez ez diote horri zailtasunik ikusten. Azken jarrera hau <borondate oneko asimilazioaren> adibidea da: hizkuntza batetik bestera igarotzeari ez diote arazorik ikusten biak ezagutzen direlako; orduan, bata bestearen itzulpenaren beharra ez dute baloratzen, <automatikoak> balitz bezala kontsideratzen dute. Horren ondorioz, euskaradunen itzulpen <lan> hori ez da zailtasunarekin erlazionatzen, agian, <normala> bezala da, materialak gaztelaniaz egotea <normala> den bezala.

Azken ideia honi aurre egiteko lehenengo jarreraren kokatzen direnek erabiltzen duten argumentazioa euskaradunaren irudia nabarmentzen du: baserrikoa (herrikoa) da eta gaztelaniaz gaitasun gutxi du; horren ondorioz (gaztelania ez den menderatzen neurrian), itzulpenaren zailtasuna azpimarratzen da. Ikusten denez, argumentazio honek euskaradunaren irudi mugatua du eta ez da oso egokia euskarari laguntza emateko. Hala ere, bigarren jarreraren kokatzen diren taldekideek euskaradunen elebitasuna azpimarratzen dute (euskaradunak elebidunak ez izatea arazotsua izango litzatekelako, gainera, gaztelaniaren ezagupena ezinbestekoa da gazte hauentzat).

Euskal lerrokoen ikasleen irudia politikarekin erlazionatzen dute, hots, "gente con la cabeza más cerrada íba a decir, se suele juntar gente con ideas más fuertes más radicales" (8T,24). Honela bakarrik ulertzen dute euskaraz ikastea lan munduan gaztelaniaz izango den karrera bat (zuzenbidea aipatzen da). Motibazio sinbolikoa, nortasun balioa, ez dutenez kontuan hartzen, ezin dute ulertu horrelako aukera bat ez bada arrazoi <politikoagatik> (karrera horrek euskaraz irtenbiderik izango balu, hots, balio pragmatikoa, orduan bai ulertuko luketela). Gazte hauek motibazio sinbolikoak politikaren esparrura mugatzen dituzte (eta dimentsio ezberdinak dira erlazionaturik egon arren). Hau euskararentzat arriskutsua da,

azken batean, euskararekiko egiten diren aukerak -eta ekintzak- dimentsio politikoak bereganatzen baditu, hizkuntzak bereganatzen duen mundu sinbolikoa murriztua gelditzen da. Gazte hauen irudi hau, hots, euskararen aukera aukera politiko bezala ulertzea, gainditu behar da, bestela, euskararen alde aritzeak (gizarte mailan, orokorrean) esangura berbera edukiko du gazte hauentzat, hots, politika egitea eta horrek ez du euskararuntz hurbilduko (alderantziz, aldenduko ditu).

Unibertsitatean ez dagoela girorik azpimarratzen dute, jendea autobusetan mugitzen delako; hala ere, galdetu zaienean zein zerbitzu interesgarriak ikusten duten kanpusean sartzeko honako hauek aipatu dituzte:

- Kirolak: unibertsitateak duen konbenioa Donostiako hainbat kiroletxekin, txartelaren bitartez, ondo baloratzen dute.
- Liburutegiak hobetu behar dira.
- Jantokiak sortu, ez daudelako (kafetegiak daude baina ez jantokiak).
- Ekitaldiak antolatu: zine-forum, bidai kulturalak...

Ikertzaileak hizkuntzen ikasketaz galdetzen duenean, unibertsitateak Donostiako akademia batekin konbenio bat duela adierazten dute; garestia delako kexatzen dira. Taldeak, zerbitzu hau aipatzen denean, ingelesera jo du zuzenean, euskara ez dute aipatu ezta (gogoratu ezta). Hau adierazgarria da zein garrantzi ematen dioten euskarari ikusteko. Hala eta guztiz, galdetzen zaienean euskara ikasiko luketen unibertsitatean baietz erantzuten dute. Hala ere, erantzun hori matizatu beharko da: ez badute erreztasun handirik (ordutegia,...), euren euskararekiko interes txikia ikusita, ez da oso ziurra onarpen teoriko hori praktikoa bihurtuko litzatekenik. Zentzu honetan, aipamen hau adierazgarria da:

"por eso nos lo tienen que dar en la universidad y claro si hay rama de euskera y rama de castellano no te van a dar euskera" (8T,59).

Taldeak adierazpen hau normaltzat onartzen du, galdera da: zer ikusi du euskal lerroak, zein eragozpen dago, erdal lerroan daudenek euskarazko klaseen eskeintza eduki dezaten?. Hor ikusten da gazte hauen jarrera, nolabait, anbibalentea, euskararekiko unibertsitatean.



### 7.3.- Euskaraz ikasi.

Atal honetan sartu dugu ez soilik euskaraz ikasten ari diren gazteak (7T), gaztelaniaz ikasten ari diren euskaradunak ere bai (elkarrizketa biak): alde batetik, elkarrizketatu biak ikasgai bat euskaraz dute (eurak aukeratutakoa), eta bestetik, gaztelaniaz ikasten ari diren arren, euskarazko ikasketaren mundutik hurbilago daude. Horrez gain, gazte hauek diskurtso berberan kokatzen dira, Euskaltzale diskurtsoan; hori kontuan izanda gaztelaniaz ari direnak ere atal honetan sartu ditugu.

Gazte euskaradunak, unibertsitatean sartu aurretik euskaraz ala gaztelaniaz ikastea erabaki dezake hizkuntza biak dakizkielako; gertatzen dena da, aldeztatik ematen dieten informazioan (batzuk ez zuten informaziorik eduki) konturatzen direla euskaraz dauden ikasketak gutxi daudela. Horrez gain, aipatzen da irakasleek (Lenguakoak bereziki) azpimarratzen zirela gaztelaniaz ondo ikas zezaten goi mailako ikasketak, <normalean>, gaztelaniaz daudelako. Goi mailako ikasketen aurrean zein hizkuntza erabaki ez da beti automatikoa, hots, hainbat eragilek parte hartzen dute prozesu horretan; hori azaltzeko ezberdinduko ditugu euskaraz ikasten ari direnak eta gaztelaniaz ikasten ari direnak, ezberdintasunak daudelako.

<b>EUSKARAZ IKASTEN ARI DIRENAK</b>
---

Gazte hauek unibertsitate publikoan ikasten ari dira euskal lerroan. Nortasun balioa azpimarratzen dute unibertsitateko hizkuntza ereduaren aukera egin zutenean; hau da, abantailak eta kontrakoak (ikuspegi pragmatikoa) aztertu beharrean, <euren> hizkuntzan ikastea jarraitzea nahi zuten.

Unibertsitatera sartu baino lehen euskaraz ikastearen ezaugarri erakargarriak - abantailak- honako hauek adierazi dituzte:

- Ikasle kopuru gutxiko taldeak. Honek, aldeztatik, hiru ezaugarri positibo adierazten ditu:
  - \* ikasleen-irakasleen arteko harremana estuagoa
  - \* ikasleen partizipazioa
  - \* klaseak dinamikoagoak

Nolabait, kalitate gehiago klase dinamiketan (masifikaziorik gabe).

- Lanari begira, euskaraz ikasteak hizkuntza bien gaitasuna ematen dizu, horrela euskaraz eskatzen dutenean prestatuta zaude.

Unibertsitatean sartu baino lehen ikusten diren elementu positibo hauek, unibertsitatean sartu eta gero aldatu egiten dira. Aldez aurretik dauden espektatibak ez dira betetzen (edo ikuspegia aldatzen da, behintzat):

- Ikasle kopuru gutxiko taldeak karrera batzuetan badira, baina beste batzuetan euskal lerroko taldeak oso handiak dira (adibidez, Psikologiako kasua aipatzen da), orduan, elementu erakargarri hau desaktibatu egiten da.

- Lanari begira, unibertsitatean sartu eta gero, badirudi lanaren gaia ez dela argi ikusten ez euskaraz ezta gaztelaniaz. Hala eta guztiz, elementu erakargarri hau ez da guztiz desaktibatzen, azken finean, hizkuntza bietan prestatuta zaudelako:

"lanarena, orain dagoena, ba ez dakit, orain beltzago ikusten dut lanarena, hombre abantaila da beti ere egin dezakezula erderaz, orduan euskeraz ikasten baduzu, biak egin ditzakezu gero lana, euskeraz edo erderaz" (7T,23).

Euskaraz ikasteak dituen abantailak galdetzen zaienean ez dute erantzuna pragmatikoki kokatzen: garrantzitsua ez da abantailak edukitzea, norberan hizkuntzan ikastea baizik (arrazoi sinbolikoa). Gazte hauek goi mailako ikasketetak euskaraz egiteari ez diote abantaila handirik ikusten eta bai kontrakoak (eurak bizi dutenak). Orduan, abantaila aldetik bi azpimarratzen dira:

- Bata, sinbolikoa: < zure > hizkuntzan ikastea.  
- Bestea, pragmatiko-instrumentala: bi hizkuntzak menderatuta hobeto prestatuta zaude eguneroko bizimodurako; lanari aurre egiteko ere bai:

"Euskal Herrian bizitzeko hobeto prestatuta egongo direla" (7T,26).

Abantaila pragmatikorik ez zaio ikusten, lanarena ez bada eta berau oso era mugatuan (esparru publikoa bereziki).

Euskal lerroan ikasteak baditu desabantailak edo kontrakoak, gazte hauek bizi dituztenak:

- Irakaslego falta karrera osoa euskaraz egiteko. Honi garrantzi handia ematen diote:

"rabia ematen dit, zu euskalduna zara ez? ba orduan, gainera legedian jarrita dago euskeraz ikasteko aukera eduki behar duzula, orduan legediak esaten du euskeraz ikasteko aukera daukazula eta gero zoaz unibertsidade pila batetara eta beti dago asignaturaren bat erderaz eman behar duzuna eta iruditzen zait super-tristea" (7T,7).

- Euskarazko material falta. Oso liburu gutxi euskaraz eta askotan apunteak ere gaztelaniaz. Honek ikasketa zailtzen du itzulpenak egin behar dituztelako.

- Irakaslegoaren euskara maila baxua. Institutuko irakasleek euskara maila altuagoa dute. Koiunturalki barkatzen dute euskara maila ahula, baina, egoera horren hobekuntza aldarrikatzen dute.

- Irakaslegoaren kalitate maila -edukinen aldetik- eztabaidatzen da ere bai.

- Euskal lerroan aukera gutxiago daude, hots, erdal lerroan irakasle gehiago daudenez une batean alda dezakezu; euskaraz hori ezin da egin.

- Desabantaila berezi bat karrera batzuetan gerta daitekena ikasketa euskaraz eta lan esparrua gaztelaniaz bereziki baldin bada: desoreka ikasitako eta lanegiteko orduan erabiliko diren hitz teknikoen artean, ikasitakoak euskaraz izango direlako eta lanekoak gaztelaniaz (hau bereziki abokatuen kasuan aipatzen da). Desabantaila hau kontuan hartzekoa da talde denetan (unibertsitari eta ertainetan) agertu delako: lan mundua erdaraduna ikusten denean, desoreka dago ikasten denaren eta erabiliko denaren artean, hau desabantaila garrantzitsua da euskararen kontra.

Aipatu diren arazo hauek euskarazko adarra aukeratzeko orduan oztopoak dira, eta zentzu honetan, desaktibatu behar diren oztopoak.

Beste aldetik, azpimarratu behar dugu euskaraz ikasteak bi alde oso positiboak dituela:

- Bata, euskara maila hobetzen duzula, hots, unibertsitatean euskaraz ikasteak hizkuntza kalitate maila ematen dizu; profesional euskaradun osoa egiten zaitu, horren ondorioz, lana euskaraz egiteko prestatuta zaude. Zentzu honetan, kaleko euskara eta unibertsitateko euskara ezberdintzen dute; unibertsitatekoa maila altuagokoa da:

"eske ez dakit da hizkuntza ezberdina, kaleko hizkuntza eta unibertsitateko hizkuntzaren artean izugarritzko aldea dago, bai kontzeptuak erabiltzeko orduan, ez dakit ezberdina" (7T,14).

- Bestea, euskal lerroa < euskal elkargune > bihurtu da gazte hauentzat. Euren eguneroko hizkuntza gaztelania izan da txikitatik, horren ondorioz, gaztelaniazko ohitura dute kale mailan, lagunartean; unibertsitateera heldu direnean hizkuntza ohitura aldatu dute (eskolako hizkuntza, ikastolan, gaztelania baldin bazen ikaskideen artean; gaur egun, eskolako - unibertsitateko- hizkuntza ohitura euskarazkoa da). Euskal lerroak bi ezaugarri ditu euskara areagotzeko:

- Bi hizkuntz lerro daudenez, euskal lerroan daudenak euskaraz egiten dute; horrela, erdal lerrokoengandik bereizten dira.

- Herrietako gazteekin biltzen dira eta hauek euskarazko ohitura gehiago dute, orduan, euren eraginagatik ere euskaraz egiten dute. Adierazgarria da aipamen hau: "eta joaten zara fakultatera eta ez dakit, euskerazko taldea zarelako edo, hasten zara lagunekin (ikaskideekin) euskeraz hitzegiten eta ya está, ni adibidez pentsatzen banago nire taldeko (koadrilako) lagun batekin izandako elkarrizketa, gaztele-raz imajinatzen dut edo oroitzen dut, da klabija bezala, fakulta-tera joan eta hasten zara euskeraz pentsatzen, etxera joan eta gaztele-raz, da ohitura" (7T,18).

Interesgarria da hau euskararentzat, ze gazte euskaradun hauek unibertsitatean lortzen

dute euren gune euskaradun bakarria (ez badute etxea euskaraduna, behintzat). Gazte batek aipatzen duen bezala, bere koadrilako lagun batekin fakultatean euskaraz egiten dute -euskaralerroan-, gero kale mailan, koadrilan, gaztelaniaz; ohitura biak barneratuta dute eta aldatzea zaila da: unibertsitateak eman diena da eskola guneko ohitura aldaketa (ikastolan gaztelaniaz egiten zutena; orain, unibertsitatean, euskaraz egiten dute):

"ni hiru urtetatik hasi nintzen euskeraz ikasten, baina bakarrik daramatzat hiru urte euskeraz hitzegiten nagoela" (7T,19).

Ezagutzen dituzte euren ikaskideak betidanik euskaraz ikasi dutenak eta unibertsitatean erdal lerroa pasatu direnak; honen zergatiak arrazoi hauetan kokatzen dituzte:

- Euskaraz ikasteagatik gaztelania galtzeko beldurra. Ideia hau sartuta dago erdaradun taldeetan eta desaktibatu beharra dago, oztopo handia delako goi mailako ikasketetegi begira. Gazte hauek arrazoi honi aurre egiten diote bi hizkuntzak menderatzen dituzula, horren ondorioz, hobeto prestatuta zaudela:

"niri behin baino gehiagotan galdetu didate <ez daukazu beldurrik karrera edo euskeraz egin eta gero gaztelera zailtasunak edukitzeko?> eta hori da izugarritzko txorakeria niretzako, zuk egin dezakezu, eske gainera eske ezin duzu, liburu guztiak daude gaztelera, beraz nahiz eta apunteak eta irakasleekin euskeraz hitzegin zure ikasteko material guztia gaztelera dago, ez duzula inoiz gazteleraekin kontaktoa galtzen" (7T,20).

- Euskaraz baino erreztasun gehiago gaztelaniaz (ziurtasun gehiago gaztelaniaz); arrazoi hau kontuan hartzekoa da, badirudi gazte hauen artean (bereziki etxeko <aseguroa> ez dutenek) goi mailako ikasketeten hizkuntza maila oso altua ikus daitekela eta horri aurre egitea zaila ikusi.

- Lan munduari begira: alde batetik, aukera gehiago gaztelaniaz lanegiteko; bestetik, ikasketeten eta laneko hiztegiaren arteko desoreka (bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz), bereziki, zuzenbidea karrera aipatzen da kasu honetan.

- Euskal lerroko lehenago aipatu diren arazoak: irakasle falta, material falta, hots, kalitate gutxi.

Gazte hauek motibazio sinboliko sendoa dutelako onartzen dute euskaraz ikastearen arazoak eta desabantailak (gaztelaniaz ikasteak ez dituenak), baina, beste gazte batzuek, orientazio pragmatikoagoa dutenek, erdal lerroa aukera dezakete arazo horiek baztertzeko. Zentzu honetan, sakondu behar den gaia zera da: zein motatako unibertsitatea nahi den edo behar den; bertara hurbiltzen diren gazteen frustrazioa ez sortzeko.

<p><b>GAZTELANIAZ IKASTEN ARI DIRENAK</b></p>
---

Bi elkarrizketatuek betidanik D eremuan ikasi dute, eta unibertsitatean gaztelaniaz ikasten ari dira. Biak unibertsitate pribatuan daude (EUTGn). Elkarrizketatu bien ikuspegia goi mailako hizkuntza ereduaren inguruan pragmatikoagoa da; nortasun balioa azpimarratzen dute, euskara euren hizkuntza delako, baina, unibertsitateko ikasketeten ordua heltzen denean nortasun balio hori alde pragmatiko batekin elkarlotzen da. Unibertsitateko hizkuntza eredia aukeratzeko tentsio bat dago: alde batetik, betidanik euskaraz ikasteak erreztasun gehiago ematen du unibertsitateko ikasketak euskaraz ere jarraitzeko, azken finean, euskara delako beraien ikasketeten hizkuntza; bestetik, lan munduari begira, gaztelania da nagusi, eta esparru batzuetan, orduan, hobe gaztelaniaz ikasi (hemen ere, zuzenbidearen kasua aipatzen da). Ikusten denez, bi dinamika daude, bata erreztasunak zuzenduta eta bestea pragmatikotasunak zuzenduta. Alde batera ala bestera egitea eragile batzuen arabera izango da: motibazio sinbolikoaren pisua, karreraren lan esparrua nolakoa ikusten den, etab. Zentzu honetan, haustura bat dago ikasketa ertainen eta goi mailako ikasketeten artean:

- UBIrarte euskaraz ikastea abantaila bezala ikusten da, esfortzurik gabe ikasten delako.
- Unibertsitatean, aldiz, zerbait aldatzen da; euskaraz ikasteak ez du hainbeste abantailarik, kontrakoak ere baditu, kontestu horretan euskaraz ikastea aukeratzea ez da automatikoa:

"ez dakit, niretzako ondo pentsatuz gero, gazteleraz ikasteak abantaila gehiago dituela/lanagatik begira hobeto dela gazteleraz" (elkarriz.1,5).

Unibertsitatean euskaraz ikastea bi abantaila ditu bereziki:

- Bata, nortasun balioa, < zure > hizkuntzan ikasten duzu.
- Bestea, lanari begira, nahiz eta mugatua izan (abantaila hau elkarrizketatu batek aipatzen du; besteak, lanari begira ez dio abantailarik ikusten -edota oso mugatuak).

Euskaraz ikastearen kontrakoak honako hauek aipatzen dituzte:

- Lanari begira, gaztelania nagusiagoa da hemen eta kanpoan.
- Aurrekoari lotuta, laneko erdal kontzeptuak ez ezagutzea euskaraz ikasi direlako, desoreka nabarmena sortuz.
- Unibertsitateko hizkuntza bezala euskara zailagoa da, euskarazko kontzeptuen izenak ez direlako ezagutzen; honen azpian itzulpenen egokitasunaren gaia dago:

"hasten baldin badira erderazko gai batetik euskeraz, ez dakit jarri nahian, sartzen dituzte hitzak, terminologia, terminologia bakarrik ez, saiatzen dira hizkuntza ona, egokia aukeratzen baina normalean jartzen dute nahiko zaila eta jendeak ez du oso ondo ulertzen" (elkarriz.2,11).

- Irakaslegoaren euskara maila ahula:

"irakaslegoa txarra baldin bada euskeraz eta ez badiot oso ondo ulertu, o sea ez badiot oso ondo ulertzen nahiago dut erderara joan, ulertzen diot tipoari eta azkenean ohituko naiz erderaz ikasten" (elkariz.2,12).

Euskaradunen arrazoiak erdal lerroa pasatzeko bi puntuetan kokatzen dituzte:

- Lanari begira, gaztelania nagusiagoa delako hemen eta kanpoan.
- Kalitatezko irakaslegoaren falta; erdal lerroak, orokorrean, irakaslego hobea dagoen irudia du.

Gaztelaniaz ikasteak, aldiz, abantailak ditu lan mundurako bereziki eta kontrakorik ez diote ikusten (euskaraz ez ikastea ez bada).

Azkenean, euskara ala gaztelania erabaki unibertsitaterako ikuspegi pragmatiko batean kokatzen dute, hots, karreraren arabera (karrera horrek duen lan egoeraren arabera).

Elkarrizketatu biak gaztelaniaz ikasten dute (batek ingelesez ere bai, ingeles filologia ikasten dagoelako), erabaki hori hartzeko arrazoi hauek aipatzen ditu batek:

- Donostian bertan ikastea nahi zuen.
- Lagunak ere bertara zihoazen.
- Prestijioa, kalitatea aipatzen da; arrazoi hau pisuzkoa da elkarrizketatu batean bereziki (elkarriz.2):

"prestijioa baita ere, publikoa ere oso ondo egongo da, baina badakizu, esaten da hau ondo dago eta jende guztia hara joaten da eta gainera nik uste dut irakaslegoa nahiko ondo dagoela" (elkarriz.2,4).

Unibertsitatera heldu eta gero gaztelaniaz ikasten hastea zaila dela adierazten dute, errezagotzailako euskaraz ikastea eta euskaraz espresatzea, baina, hala ere, ohitura hartzen dela arazorik gabe. Arazo berezi bat kontzeptuak aldatzen direnean sortzen da, adibidez, matematikan euskaraz ezagutzen dute kontzeptuen izenak eta ez gaztelaniaz; elkarrizketatuaren (elkarriz.2) kasuan ikasgai hori euskaraz aukeratu du, oztopo hori gaindituz.

Elkarrizketatu biek unibertsitate pribatuan ikasten dute eta, zentzu honetan, euskararen egoera berezia dute. Unibertsitatea pribatua denez, euskararen tokia publikoan baino mugatuagoa dago, horrela, euskal talde bat dago euskararen egoera zuzpertzeko:

"euskeraren taldea sortzen da, sortu zen ba hori, jende batzuek nahi zuten asignaturak euskeraz, unibertsitatean agiriak ere euskeraz eta erderaz zeren ezin da euskeraz bakarrik pasa, ulertzen dugu badagoelako jende asko gazteleraz bakarrik dakiena eta orduan inposaketa bat bezala izango litzateke eta hori ere ez da nahi" (elkarriz.1,26).

Erakundearen aldetik ez daude erreztasun handirik (euskal festetako laguntza gutxi, erreztasun gutxi), hala ere, lorpenak ere aipatzen dira:

- Iragarkiak euskaraz eta gaztelaniaz.
- Gelako arduraduna elebiduna izatea, informazioa hizkuntza bietan eman dezan.



Unibertsitate pribatua denez, pausu guztiak -txikiak izan arren- garrantzitsuak ikusten dira, euskara geroz eta gehiago sartzeko (prozesu luzea izan arren).

Elkarrizketatu hauen ikuspegia euskararen eta unibertsitatearen inguruan ñabardura pragmatikoa du, ikusi dugunez. Unibertsitatera igarotzeko erabakiaren prozesuan, hizkuntza eredua bigarren mailan dago (hots, ez da aukera automatikoa, euskal lerrokoek adierazten duten bezala); lehenengo mailan kalitatea, prestijioa aipatzen dira, hots, irakaslego egokia, gaiak ondo prestatuak,... (lanaren esparruarekin erlazionatzen diren ezaugarriak).

## **8.- ONDORIOAK.**

Lanari bukaera emateko azalduko ditugu ikerketaren puntu konkretu azpimagarrienak:

- Gazte hauek hiru zentzu mundu ezberdinetan bizi dira (diskurtso bakoitzak hedatzen duen zentzu munduan), eta hor euskarak definizio ezberdinak ditu, batzuk kontrajarriak eta beste batzuk konplementarioak.

- Etxeko guneari garrantzi berezia ematen zaio, euskararen <aseguro> bezala funtzionatzen du:

\* Erdaradun gazteek (A/B) ezagupena/erabilera erreztan edo laguntzen duelako.

\* Euskaradunak, erabilera ziurtatzen duelako eta, gainera, transmisio ideologikoa (euskararen alde: umeak D ereduan matrikulatu,...) laguntzen duelako.

Horregatik, gurasoek -bereziki, etxekoandreek- euskara ikas dezaten egokia ikusten da (horretarako, laguntzak behar dira: ordutegiak, leku hurbilak, prezioa,...).

## IKASKETEN INGURUAN:

- A eta B eredueta <beldur> bat dago: euskaraz ikasteak gaztelania galtzea dakarrela; ideia hau oztopo bat da euskal adarra aukeratzeko orduan. Horregatik, desaktibatu behar da beste ideia bat azpimarratuz: euskaraz ikasteak ez duela suposatzen gaztelania galtzea, gaztelaniaren gaitasuna galtzea. Alderantziz, hizkuntza biak menderatzen direla eta hobeto prestatuta zaudela Euskal herrian bizitzeko (hizkuntza biak ezagutuz) eta lan mundurako orokorrean.

- A/B eredueta agertzen den D ereduoen <pribilejio> irudia gainditu beharra dago: irudi negatibo hori positiboa bihurtu beharra dago zentzu batean: elebidun izatearen abantaila; bi hizkuntzak ezagutuz bi kultura munduak ezagutu ahal dira, hizkuntza bat bakarria ezagutuz, aldiz, kultura mundu bat bakarria ezagutu ahal daiteke.

- B ereduok D ereduoen aurrean euskararen ziurtasun falta nabaritzen dute; harreman gutxi dago eredu bien artean. Hori gainditzeko harreman estuagoak lortu behar dira, bien arteko euskararen erabilera <normaltzeko>, lotsa gainditzeko: adibidez, ekintzetan bildu. Horrekin batera, B ereduoen Dn aukeraketa errezteko.

- B eredueta, hizkuntza ereduaren aukera egin behar denean interesgarria izango litzateke bide <erreza> (A eredura pasatzea) epe motzeko bidea dela, azkenean, euskara galtzen delako. Azpimarratzeko ideia esfortzuarena da, hots, esfortzurik gabe ikasi dutena galduko dutela.

- Euskara esfortzurik gabe ikastea oinarrizko ideia da; begi onez ikusten den ideia. Talde denek bat datoz honetan: euskara ikastea eskolatik kanpo oso zaila da (esfortzua, denborarik ez,...). Horrekin batera, gure ikerketako gazteek -euskaradunak eta erdaradunak- bat datoz beste ideia batekin: gazte erdaradunak ez direla <errudun> euskaraz ez dakitelako bi arrazoiengatik: etxean, gurasoek ez dietelako irakatsi eta ez diete euskal eredu batera bidali; eta, horrekin batera, eskolako ereduak ez die euskarazko gaitasuna eman.

- Unibertsitateari begira, zubi-ikastaroa egitea euskal lerroa igarotzeko bi alde izan ditu: bata, institutuko ikasleen aldetik: ez dute argi ikusten nolakoa den horrelako antolaketa

mota, unibertsitateko ikasketak euskaraz egiteari ez diote interesik ikusten, eta gainera, ereduaren aukera egin dute institutuan. Lanbide heziketako gazteek, aldiz, interesgarria ikusi dute: antolaketa mota hori hurbilagoa zaie eta gainera interesa ikusten diote unibertsitatean euskaraz ikasteari; zentzu honetan unibertsitatean euskaraz ikatea gaztelaniaz ikasi eta euskaltegiarekin konplementatu baino egokiagoa ikusten dute (hizkuntzaren kalitatea aipatzen da).

- Unibertsitateari begira, gaur egun A ereduan daudenak (Btik etorriak) ez dute zalantzarik gaztelaniaz jarraituko dutela, hizkuntza aukeraketa egin dutelako. D ereduan daudenak (Btik etorriak), aldiz, zalantzak dituzte zein hizkuntza eredu aukeratuko duten, hots, euskal ereduaren jarraipen automatikoak goi mailan oztupoak ditu: karrera mota lan esparruari begira izango da pisuzko eragilea. Zuzenbidea da gaztelaniarekin erlazionatzen den karrera aipatuena (hitz teknikoak euskaraz ikasi gero gaztelaniaz lanegiteko oso arazotsua ikusten da); zuzenbidez gain, medikuntza aipatzen da (MIR gaztelaniaz dela). Euskara, aldiz, esparru publikoko lanekin erlazionatzen da: funtzionari, magisteritza, kazetaritza...

- Lan munduaren irudiak eragina du unibertsitatearen hizkuntza aukera egiteko orduan: euskararen irudia oso mugatua ikusten da (esparru publikora), gaztelania, aldiz, nagusiagoa eta zabalagoa ikusten da (esparru pribatuan gehi Euskal Herritik kanpo). BARNE/KANPO dikotomiak funtzionatzen du eta gaztelaniak irabazten du. Dikotomia hau euskaltzale diskurtsoan kokatzen diren gazteek gainditzen dute euskararen alde, nortasun balioa azpimarratuz.

## **EUSKARADUNEN ETA ERDARADUNEN ARTEKO HARREMANAK**

- < Borondate oneko asimilazioak > < normaltasunean > biltzen ditu euskaradun eta erdaradun gazteak; komunikazioaren eta integrazioaren inguruan < diferentzia > baztertzen da, elementu amankomunen alde, horien artean gaztelania dago. Mekanismo horretatik irtetzea zaila da, gazte euskaradunak bere < diferentzia > azpimarratzen du euskaradun bezala (kolektiboki), horren arabera hiztun bezala < errespetoa > eskatzen dute, baina, gaur

egun <diferentzia> hori <bereizkeria> bezala ulertzen dute euskaltzale ez diren gazteek. Hau neutralizatzea interesgarria izango litzateke.

- A/B ereduko (Indiferentzia diskurtsoa) gazteek D ereduko irudia politikarekin erlazionatzen dute; orokorrean, euskararen irudia politikarekin erlazionatzen da: alde batetik negatiboki (erradikaltasunarekin, biolentziarekin), beste alde batetik positiboki (abertzale munduarekin). Hau euskararentzat oztopoa da, azkenean, euskararen inguruan zerbait egiteari -ekintza ezberdinak- zentzu politikoa eransten zaiolako; hizkuntzak duen zentzu sinbolikoa dimentsio politikora mugatuta gelditzen da.

• - Euskaradunaren irudia, orokorrean, herriko, baserriko irudiari loturik doa. <Kaxero> hitza entzun izan da taldeetan, zentzu peioratiboan. Euskara eta euskaradunaren irudiari <modernotasun>, <hiritartasun> ezaugarriak falta zaizkie. Hori lortzeko, gazte hiritarrak euskaradun bezala azaldu behar dute beraien gizarte nortasuna, baina, gaur egun, gazte euskaradunak ez dira legitimatuta sentitzen nortasun hori agerian uzteko (horregatik, bestearekin, ezezagunarekin, lehenengo hitza gaztelaniaz egingo du).

- Aurrekoarekin batera, kultura euskaradunak nekazal irudia du (herri kirolak, bertso zaharrak,...); irudi hori ez da erakargarria. Euskaraz egiten den kultura ezagutzera eman behar da (estereotipoek funtzionatzen dute gaur egun zer dagoen ez delako ezagutzen) eta erakargarria izan behar du (gai modernoak, aktualitatekoak, gazte hiritarraren gustokoak).

- Euskararen erabilerak legitimitate ezberdinak ditu; A/B (Indiferentzia diskurtsoa) eredukoek euskarari bi legitimazio mota onartzen dizkiote: alde batetik, hirikoa, hots, hiria ez da euskararen <toki naturala> (hiria gaztelaniaren toki naturala da), horren ondorioz, euskara hirian erabiltzeari ez diote legitimitaterik onartzen, batzuk bakarrik dakitelako; herrietan, aldiz, euskarak du bere toki naturala, hor, euskararen erabilera legitimoa ikusten dute. Hau euskararentzat mugatzailea da, azken finean, hiritik baztertzen duelako; horren arabera, gainera, hirian euskaraz egiten duenari zentzu politiko peioratiboa eransten diote. Hau gazte euskaradunentzat oztopo bat da, bestea agredituta bezala senti daitekelako. B/D ereduetako gazteentzat (Euskaltzale diskurtsoa), aldiz, euskararen tokia hiria eta herria izan behar dira, hots, komunikazio hizkuntza izan behar du, ez soilik herrietan, hirietan ere bai.

- Gazte erdaradunek euskara hurbil ikusi behar dute, agerian ikusi behar dute, bere beharra sentitzeko (eta, nolabait, euskaradunen nortasun kolektiboa onartzeko); kexa bat dago, euskaradunek euren aurrean soilik egiten dutela euskaraz, gero euren artean gaztelaniaz egiten dutela. Irudi hau negatiboa da euskararentzat, erabilera legitimitatea galtzen duelako.

- Gazte euskaradunak nortasun balioak bereziki azpimarratzen dituzte euskararekiko. Euskararen erabilera eza barkatzen dute euskararekiko maitasuna, errespetoa, sentimendua baldin badago; zentzu honetan, gazte euskaradunak ez du hizkuntza komunitatea azpimarratzen, atxikimendu komunitatea baizik. Hau, euskararen erabileraren normalkuntzarako oztopo bat izan daiteke, azken finean, euskara ezagutzea ez da gehien azpimarratzen dena (nahiz eta bere garrantzia azpimarratu), euskararen inguruan sentimendu bat izatea baizik.

- Adiskidetasuna hizkuntzaren gainetik dago: euskararen ezagupena eta erabilera banakako mailan kokatzen da, derrigortasunik gabe. Zentzu honetan, euskaradunak elebidunak direnez hizkuntza amankomuna erabiltzen dute, gaztelania.

- Gazte hauentzat euskarak ezaugarri ezberdina du Euskal Herrian edo kanpoan: Kanpoan berezitasun ezaugarri bat da, arro sentitzekoa; Euskal herrian, aldiz, berezitasun ezaugarria da, denek ez dakitelako, baina, kasu honetan ezaugarri negatiboa da, ez du > gu > bat eraikitzen, diferentzia bat sortzen du.

### **EUSKARAREKIKO INPLIKAZIO MAILA.**

- Euskararekiko inplikazio maila ezberdinak daude: inplikaziorik gabekoak, alde batetik (hauek euskararekiko kontrako diskurtso ideologikoa dute); beste aldetik, inplikazio ideologikoa dutenak (A/B ereduok, Indiferentzia diskurtsoa), hau da, euskarari onartzen zaio gizarte tokia, nahiz eta mugatua izan: herrietan gizarte legitimitatea du (chapurrear, hacerte entender), hor euskaraz jakitea beharrezkoa da; hirietan euskara jakitea ez da beharrezkoa, ez diote gizarte legitimitaterik onartzen komunikazio hizkuntza gaztelania delako, denek ezagutzen duten hizkuntza (hirian, euskara ulerpen mailan interesatzen zaie soilik). B/D eruedetan daudenak (Euskaltzale diskurtsoa) inplikazio ideologikoa handia dute,

beraien nortasun hizkuntza delako, herri baten hizkuntza, eskubide batzuk dituen hizkuntza.

- Implikazio ideologikoez gain, inplikazio praktikoa nola moldatzen den interesgarria da: A/B (Kontrako eta Indiferentzia diskurtsoak) eredukoek inplikazio praktikorik ez dute nabarmendu; ez gazte bezala, ez etorkizuneko guraso bezala. Euskara ez da galdu behar baina beste batzuen inplikazioarekin (ikastolakoek, euskaradunek) ez da galduko. Gazte hauek ezagupen maila sendotu beharko lukete inplikazio praktikoa gauzatzeko eta hori eskolatik kanpo lortzea oso zaila ikusten da. B/D (Euskaltzale diskurtsoa) eredukoek, aldiz, inplikazio praktikoa ere azpimarratzen dute, nahiz eta zailtasun ugari ikusi gauzatzeko. Maila ezberdinetan kokatzen dute inplikazio praktikoa: ikasketa mailan, euskal adarrean ikasten jarraituz, lagunartean euskara erabiliz, motibazioa zuzpertzeko...

- Euskaltzale diskurtsoan kokatzen diren gazteek euskararekiko inplikazioa gizarte eta banakako dimentsioetan kokatzen dute, dimentsio bien arteko elkarlanean. Euskara banakako erabakia izan behar du baina erabaki horri laguntza eman behar zaio eta hor gizarteak (erakundeek, talde ezberdinek,...) parte hartu behar du. Gazteak erakundearen babes eskatzen du eta erakundeak euskararen beharra zuzpertzeko dezala. Babesa eskatuz, gazteak bere euskaradun edo euskaltzale nortasunaren gizarte ziurtasun eza nabarmentzen du, orduan, babes eske dago. Beste aldetik, erakundeari -eta gizarteari- euskara zuzpertzeko ekintzak bultzatzea eskatzen zaio bi aldetatik:

\* Euskara agerian utzi: bereziki aipatuko dugu kaleko seinale eta iragarkiak orokorrean nahiz zerbitzu ezberdinen (dendak, banketxeak, hotelak, kiroldegiak,...) barruko seinaleak eta iragarkiak euskaraz jarri eta zerbitzuetan dauden euskaradunek txartel edo txapa bat ipini dezaten. Gure aldetik, azpimarratuko genuke txapa pertsonalizatua proposatzea, inplikazio handiagoa lortuko duelakoan.

\* Euskal elkarguneak sortu euskaradunak biltzeko. Hainbat ekintza aipatzen dira, baina, orain azpimarratuko duguna zera da: ekintzak erakargarriak izan behar direla, euskaraz izatea bigarren mailako ezaugarria da. Kontestu honetan, interesgarria da kultur etxeekin harremanak izatea, bertan bideratu

daitezkelako hainbat ekintza.

\* Aisialdia garrantzitsua da euskararen erabilera bultzateko ere, kasu honetan bi aipamen egitea merezi du; bata, umeekin egiten diren aisialdi taldeak: badirudi, auzo batzuetan umeak ereduaren arabera banatu gabe daudela, hots, denak batera daudenez hizkuntza amankomuna aukeratuko dute. Umeak hizkuntzaren arabera banatzea merezi du euskararen ohitura bultzatzeko; horretarako, tutoreen ideia ere aldatu beharrekoa da askotan: ume euskaradun gutxi badaude < bereizketa > dela, baztertzeari; ideia horri buelta eman behar zaio, zentzu positiboan: ume euskaradunak biltzen dira gutxi izan arren euskarazko ohitura bermatzea nahi delako, ondo pasatzea (euskaraz) nahi delako. Beste aldetik, aipatuko dugu kirolaren kasua: entrenadoreen eragina oinarritzat da, zentzu honetan, gazte euskaradunekin entrenadore euskaraduna behar da, eta horrekin batera, ekipoa ere euskaraduna izatea osorik, egoera egokiena izan dezaten euskarazko ohitura lortzeko.

\* Euskarari gizarte ospea eman behar zaio, horretarako, pertsonai publikoen laguntza behar da: politikariak, telebistakoak, kirolariak,... Euskara erabil dezatela.

- Erakundeek ekintzak euskaltzale diskurtsoan kokatzen diren gazteentzat < babesak > diren bitartean, indiferentzia diskurtsoan kokatzen diren gazteek < inposizio > bezala ulertu dezakete gauza berbera. Horrek esan nahi du, erakundeek ezin dutela faktore hau baztertu euren ekintzak antolatzeke orduan.

### **UNIBERTSITATEKO GAZTEAK.**

- Azpimarratuko dugu euskal lerroan dauden gazteek bertan < aurkitu > dutela euren eguneroko euskal elkargune bat. Eguneroko bizimodua gaztelan egiten badute, unibertsitatean ohitura hori aldatzen da eta euskara sartzen da euren eguneroko bizimoduan. Bi arrazoi azpimarratzen dira: herrietako gazteen eragina eta euskal lerroa izanik, euskaraz

jakitea alde zuzenetik suposatzen da, orduan, euskaraz egiteko <toki> berezia da denek dakitelako euskaraz (erdal lerroko ikasleengandik ezberdintzen dira, gainera).

- Unibertsitate publikoko ikasleek euskal lerroan duten hainbat arazo adierazten dute, denak irudi bat konposatzen dute: euskal adarra kalitate gutxikoa eta arazotsua dela. Arazo hauek oztopoak dira ikasleak erakartzeko orduan. Ikasleen artean, gainera, motibazio sinbolikoak dauden arren, motibazio pragmatikoagoak ere badaude, adibidez, unibertsitate pribatuan gaztelaniaz ikasten ari direnak, jarrera pragmatikoagoa dute goi mailako ikasketei buruz (hizkuntza ereduaren aukera ikasketa mota honetan bigarren mailan kokatzen dute; lehenengo mailan, prestijioa eta kalitatea kokatzen dituzte). Euskal lerroa ezin da luzaroan oinarritu motibazio sinbolikoetan, elementu pragmatikoak ere kontuan hartu behar ditu, bestela, ikasle euskaradun asko erdal lerroa pasako dira.

- Ideia interesgarri bat agertu da: unibertsitatean euskaraz ikasteak hizkuntza kalitate maila bat ematen du, lanerako era egokian prestatzen du, hau da, euskaraz nahiz gaztelaniaz lanegiteko profesionalak hezitzen ditu. Honela, hizkuntza mailan prestaketa osoa lortzen da (gaztelania galtzearen beldurra baztertzen da). Komeniko litzateke, honekin batera, euskal lerroaren kalitate irudia sendotzea, horrela prestaketa osoa bi mailatan izango litzateke: hizkuntza mailan -biak ezagutu- eta kalitate mailan -edukinen gaitasuna-.

- Erdaradun ikasleek ez diote garrantzi handirik ematen euskarari unibertsitatean; ikuspegi pragmatikoa dute eta horren arabera euskarak ez du abantaila handirik. Azpimarratuko duguna zera da: euskararen alde zerbait egitea <politika> dela adierazten dute eta hori irudi murriztailea da euskararentzat eta euskaradunarentzat.



# AURKIBIDEA

1.- HELBURUAK .....	p. 1
2.- METODOLOGIA .....	p. 2
2.1.- DISEINU TEKNIKOA .....	p. 2
2.2.- EZTABAIDA TALDEEN PERFILAK .....	p. 4
2.3.- AZKEN DISEINU TEKNIKOA .....	p. 5
3.- SARRERA .....	p. 9
4.- KONTRAKO DISKURTSOA .....	p. 11
4.1.- HIZKUNTZAREN IRUDIA .....	p. 11
ETXEKO GUNEA (GUNE PRIBATUA).....	p. 11
ESKOLAKO GUNEA.....	p. 11
KALEKO GUNEA (ESPARRU PUBLIKOA)....	p. 13
4.2.- HIZKUNTZAREN GIZARTE IZAERA .....	p. 14
4.2.1.- HIZKUNTZAREN FUNTZIOAK .....	p. 14
* JATORRIZKO FUNTZIOA.....	p. 14
* TRANSMISIOKO FUNTZIOA.....	p. 15
* ERREFERENTZIA FUNTZIOA.....	p. 16
* FUNTZIO MITIKOA.....	p. 16
4.2.2.- EUSKARADUNEN ETA ERDARADUNEN ARTEKO HARREMANAK .....	p. 17
4.2.3.- EUSKARAREKIKO INPLIKAZIO MAILA .....	p. 18
5.- INDIFERENTZIA DISKURTSOA .....	p. 19
5.1.- HIZKUNTZAREN IRUDIA .....	p. 19
- ZER DA EUSKARA/GAZTELANIA ETA ZER DA EUSKALDUN IZATEA.....	p. 19
- ETXEKO GUNEA.....	p. 22

- ESKOLA GUNEA.....	p. 22
* A EREDUKOAK.....	p. 23
* B EREDUKOAK.....	p. 26
* ABANTAILAK/DESABANTAILAK HIZKUNTZA BATEAN IKASI ALA BESTEAN.....	p. 31
* ETORKIZUN HURBILA.....	p. 33
. UNIBERTSITATEA....	p. 33
. ZUBI IKASTAROARI	
. BURUZKO JARRERA...	p. 34
. LAN MUNDUA.....	p. 36
. A/D EREDUEN ARTEKO HARREMANAK.....	p. 37
- KALEKO GUNEA.....	p. 40
- EUSKARAREN ETORKIZUNA.....	p. 42
5.2.- HIZKUNTZAREN GIZARTE IZAERA .....	p. 44
5.2.1.- HIZKUNTZAREN FUNTZIOAK .....	p. 44
* JATORRIZKOA.....	p. 44
* MITIKOA.....	p. 44
* TRANSMISIOKOA.....	p. 45
* ERREFERENTZIA.....	p. 47
5.2.2.- EUSKARADUNEN/ERDARADUNEN ARTEKO HARREMANAK .....	p. 49
5.2.3.- EUSKARAREKIKO INPLIKAZIO MAILA .....	p. 53
6.- EUSKALTZALE DISKURTSOA .....	p. 60
6.1.- HIZKUNTZAREN IRUDIA .....	p. 60
- ZER DA EUSKARA/GAZTELANIA ETA ZER DA EUSKALDUN IZATEA.....	p. 60
- ETXEKO GUNEA.....	p. 65
- ESKOLA GUNEA.....	p. 66
* B EREDUA.....	p. 68
— Abantailak/desabantailak	

hizkuntza batean ikasi ala	
bestean.....	<b>p. 69</b>
— Zubi ikastaroari buruzko	
jarrera.....	<b>p. 71</b>
* D EREDUA.....	<b>p. 72</b>
— Abantailak/desabantailak	
hizkuntza batean ikasi ala	
bestean.....	<b>p. 74</b>
* ETORKIZUN HURBILA.....	<b>p. 76</b>
. UNIBERTSITATEA.....	<b>p. 76</b>
. LAN MUNDUA.....	<b>p. 79</b>
- KALEKO GUNEA.....	<b>p. 81</b>
- EUSKARAREN ETORKIZUNA.....	<b>p. 93</b>
6.2.- HIZKUNTZAREN GIZARTE IZAERA .....	<b>p. 97</b>
6.2.1.- HIZKUNTZAREN FUNTZIOAK .....	<b>p. 97</b>
* JATORRIZKOA.....	<b>p. 97</b>
* MITIKOA.....	<b>p. 97</b>
* TRANSMISIOKOA.....	<b>p. 98</b>
* ERREFERENTZIA.....	<b>p. 99</b>
6.2.2.- EUSKARADUNEN/ERDARADUNEN	
ARTEKO HARREMANAK .....	<b>p.104</b>
6.2.3.- EUSKARAREKIKO INPLIKAZIO MAILA .....	<b>p.111</b>
7.- UNIBERTSITATEKO IKASLEAK:	
UNIBERTSITATEA ETA EUSKARA .....	<b>p.118</b>
7.1.- EUSKARA UNIBERTSITATEAN: ZERGATIK?/ZERTARAKO?..	<b>p.119</b>
7.2.- GAZTELANIAZ IKASI .....	<b>p.123</b>
7.3.- EUSKARAZ IKASI .....	<b>p.126</b>
8.- ONDORIOAK .....	<b>p.134</b>